

puntua
KOMUNI
KAZI
LOKALA

Tokikom
jardunaldiak,
erreportajeak

John Anduezarekin
berbetan, idatzi
duen azken lanaz



5.000 urte inguru ezkutuan

Bi trikuharri aurkitu dituzte Leintz Gatzagan; balio berezia dute elkarren ondoan daudelako, eta, ustez, lehen kasua da Gipuzkoan / 4

Leintz Gatzagako udal ordezkariak, basozaina eta Lurrailan enpresako kideak, aurkikuntza gunean, Artabilan.

JAGOBA DOMINGO

Lokatza: 40 urte ziklismoa bultzatzen

Bihar, zapatua, egun osoko ospakizunean elkartuko dira belaunaldi zaharrak eta berriak 1976an sortutako Bergarako ziklismo eskolaren bueltan / 32

700.000 euro gutxiago Arrasateko Udal Gobernuaren aurrekontu proposamenean / 10


Elgetako elizan dagoen margolan bat Sevillako erakusketa batean erabiltzeko eskatu dute / 28

Iristu gazte taldea sortu dute Aretxabaletan, Loramendi euskara elkartearen bueltan / 18

Sandra Carrascok eta Olatz Etxabek lekukotzak partekatuko dituzte Memoriaren Plazan / 2

Amaia Udal Antzokia bete egingo da, beste urte batez, 'La del Soto del Parral' zarzuela ikusteko / 15

SINADURAK

 RUFINA OLASAGASTI / 8	 MIGEL LAZPIUR / 30
 ANE ZUZUBISKAR / 10	 MARINA ETXEGOIEN / 36
 ANDERE ARRIOLABENGOA / 17	 ANDER ETXEBERRIA / 48

VW Tiguan berria



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto



Memoriaren Plazan, herritarrek testigantzak jaso eta eman ditzakete, ikus-entzunezkoen bidez. GOGORA INSTITUTUA

Biktimen testigantzak Memoriaren Plazan

Sandra Carrascok eta Olatz Etxabek elkarrekin partekatuko dituzte lekukotzak herritarren aurrean Arrasaten, Memoriaren Plazan. Hitzaldiak, mahai-inguruak eta dokumentalak izango dira, astebetetz, udaletxeko plazan jarritako karpan

Eneko Azkarate ARRASATE Memoriaren Plaza Arrasaten jarriko dute azaroaren 28tik abenduaren 4ra bitartean, aste osoan. Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusitik sortutako Gogora Institutuaren bidez helduko da Debagoienara, Arrasateko Udala-rekin elkarlanean.

Udaletxeko plazan karpa bat jarriko dute eta bertan antolatuko dira hainbat hitzaldi eta mahai-inguru, frankismoaren eta terrorismoaren biktimak protagonista izango dituen. Era berean, hiru dokumental eskainiko dituzte, eskualdeko eskolekin tailerrak antolatuko dituzte eta gaiaren gaineko testi-

gantzak ikusi eta entzun edota emateko guneak izango dira karpan bertan, "herritarrek esperientziak edo emozioak partekatuzeko" Gogora Institutuko zuzendari Aintzane Ezenarro dioenez. Erakusketa zabalik izango da egunero, 09:00etatik 20:00etara; 14:00etatik 15:00etara itxi egingo dute.

Honako gune hauek izango ditu Memoriaren Plaza erakusketak: Lekukotzak grabatzeko eremua; Lekukotzen bideoak; Proiekzio eta debate eremua, eta Mezuen horma-irudia.

Hiru ekitaldi eta dokumentalak Arrasaten hiru ekitaldi nagusi antolatuko dituzte. Lehena, era-

kusketaren hasiera ekitaldia, azaroaren 28an, astelehena, 18:00etan. Hurrengo egunean, martitzenean, 19:00etan, izango dira beste hitzaldi bi memoria historikoa gai hartuta, eta abenduaren leian, Aintzane Ezenarro mahaiaren bueltan batuko ditu Arrasateko bi biktima: Sandra Carrasco, ETAK hil zuen Isaias Carrascoren alaba; eta Olatz Etxabe, Kanpanzarren hil zuten -BVE erakundeak bere gain hartuta- Iñaki Etxaberen alaba. 18:00etan.

Gogora Institutuko zuzendari nabarmentzen du erakusketak adostasun politiko handia lortu duela. Arrasaten ere, esaterako, udalbatzak ordezkatura

Egitaraua

Azaroak 28

• **18:00** Erakusketaren irekiera-ekitaldia.

Azaroak 29

• **19:00** Memoria historikoari buruzko hitzaldia.

PACO ETXEBERRIA

"Hobiak desehortziz Duintasunak berreskuratuz".

INTXORTA 1936 ELKARTEA

"Arrasateko memoria historikoa". Aurkezlea: Eneko Azkarate, Goienako eduki zuzendari.

Abenduak 1

• **18:00** Arrasateko biktimen testigantzak, **Olatz Etxaberen** eta **Sandra Carrascoren** parte hartzearekin.

Dokumentalen emanaldiak:

LANEGUNETAN

17:00 "El valor de la autocrítica".

JAIEGUNETAN

13:00 "Arrasate 1936. Emakumea, gerra eta errepresioa".

15:00 "Oinatz galduak".

Tailerrak:

EGUNERO

Eskualdeko ikastetxeekin.

dauden alderdi guztiak izango dira hasiera ekitaldian. "Gatazkan eta eztabaidan sakondu beharrean, biktimen eta gatazka-aren alde gizatiarra, gertukoa, ematen da", dio Ezenarrok.

"Kirol zozketa solidarioa", errefuxiatuen alde

"Inguruko proiektu humanitario ezberdinak (errefuxiatuei laguntzen dihardutenak) bultzatu edo indartu nahian, hilabete luzeak daramatzagu hainbat taldek elkarlanean diru-iturri komuntzat daukagun kirol zozketa solidario hau antolatzen". Berba horiekin esplikatu dute bihar, Elgetan, aurkeztu behar duten ekimen solidarioa, Hotz Bergara taldeak bultzatutakoa.

Xehetasunetan sartuta, 90 dohaintza eskuratu dituzte urtarriaren 28an egingo duten kirol zozketa solidarioarako, kirolari entzutetsuek emandakoak: Naroa Agirre, Xabi Alonso, Xabi Prieto, Malen Ruiz de Azua, Maider Unda, Aritz Aduriz, Oscar de Marcos, Aitor Zabaleta, Markel Irizar, Juan Martinez de Irujo, Beñat Rezusta, Alex Txikon, Juanito Oiztegui, Oihana Kortazar... adibide batzuk jartzearen. Zozketa Interneteko zenbaki aleatorioen sorgailua baliatuta egingo dute. Zozketarako txartelak euro batean salduko dituzte.

Gabonetako zozketa solidarioa, Emausen eskutik

80 produktuekin osatu du aurtien Emaus fundazioak Gabonetako enkante solidarioa. 5 eurotan abiatuko dute produkturik ekonomikoaren eskaintza -60ko hamarkadako burdinazko patin batzuk-, eta 275 eurotan, berriz, garestiena -kanposantuko faroltxoak dituen kaxa bat-. Ohi moduan, oso produktu bitxi eta ezohikoak jarri dituzte aukeran.

bastidasukaldeak

Black Friday astean eginiko erosketak guztietan, azaroaren 21etik 26ra, %25eko deskontua aplikatuko da sukalde altzarietan.

Aprobetxa ezazu!

zarautz

elizaurre 3, 20800

tel.: 943 89 49 99 faxa: 943 89 49 98

azpeitia

perez arregi 9, 20730

tel./faxes: 943 15 05 10

bergara

ibargarai 36-38, 20570

tel./faxes: 943 76 70 58

BLACK FRIDAY %25

xey Vive tu cocina

Irudi eta kamioi berriak, bilketaren fase berrirako

OK berba erakusten duen logotipoa baliatuko du Debagoieneko Mankomunitateak edukiontzi bidezko sistema oinarri duen zabor bilketaren oraingo aldi hau irudikatzen; "eraginkortasuna" izango da fase honen "gakoa", baita "optimizazioa" ere

Ubane Madera DEBAGOIENA

Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan ezarritako edukiontziaren sistemarekin "atez atekoarekin besteko emaitza onak" lortzen dira; %80 batzen da selektiboki, "Euskal Autonomia Erkidegoan batzen denaren bikoitza". Hori azpimarratu ondoren esplikatu zuen Lander Arregik, Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen arduradunak, hiri hondakin bilketa irudikatzen duen logoaren jatorria: "Beste fase batean gaude. Hurrengo fase honetan klabea izango da eraginkortasuna. Hiru esparrutan: bilketan, batetik, lortutako emaitzak mantendu nahi ditugu; bigarrena da aspektu ekonomikoa, eraginkortasun aldetik sistema hau merkeagoa dela ikusten dugu; eta hirugarren aspektua da erabilera aldetik, biztanleek errazago dute zaborra ateratzea. Hiru elementu horiek osatzen dute OK hori".



Altuna, Elkoro eta Arregi, Mankomunitateko ordezkariak, Epelen. XABI GOROSTIDI

Datuak, zenbakitan

Arregik datuak eman zituen esandakoak arrazoitzeko: 3,2 milioi eurotik 2,2 milioi eurora jaitsiko dute gastua. "500.000 jaitsiko dugu aurten eta helburua da beste horrenbeste jaitea datorren urtean".

Edukiontzi bidezko bilketa martxan jartzeko, hori bai, baliabide berriak erosi dituzte;

bilketarako alboko kargako hiru kamioi (bi berri -195.000 euro- eta bat 0 kilometroduna -178.000 euro-) eta edukiontziak. "Guztira, Bergara, Eskoriatza eta Aretxabaletarako 348 edukiontzi dira, lau gaitakoak. 208 izan dira errefusetarakoak eta organikoak. Guztira, kostua 351.000 eurokoa zen, baina gaikako bilketa egiteagatik Diputazioak

laguntza batzuk atera zituen, eta horri esker 144.000 euro jaso ditugu", esplikatu zuen Unai Elkorok, Mankomunitateko presidentea.

Edukiontziak ipinita daude, eta kamioiak aurreikusitakoa baino lehenago iritsita; hori horrela, "berehala" ikusiko ditugu hondakinak batzen. Behin guztia martxan, Mankomunitatearen helburua da sistema egonkortzea, eta hori lortu ondoren, "optimizatzea", bereziki, "barrura begira".



Migel Etxagibel. GOIENA

Ertzañako kide izandako Migel Etxagibel hil da

Migel Etxagibel arrasatearra, Ertzaintzaren (Ertzaña) lehen promozioa izan zena, joan den astelehenean hil zen, 97 urte zituela. Martitzenean egin zuten hileta elizkizuna San Juan Bataiatzailearen parrokian.

1936ko Ertzaintzaren lehen promozioa kide izan zen. Tropa faxistengandik ihesi, Bizkaian errefuxiatu zen, eta han zegoela sartu zen orduko Ertzañan. Jose Antonio Agirre lehendakari zen sasoiaren, Deustuko komisarian egin zuen lan, frankistek Bilbo hartu zuten arte.

Apirilaren 16an, lehen promozio hura omentzeko ekitaldia egin zuten Arrasateko udal-txean, Urkullu lehendakaria ere han zela.

Gipuzkoako hondakin ez

Debagoieneko Mankomunitateak "itxiztat" ematen du Gipuzkoako hondakinak Epelera ekartzeko aukera. "Meruelorekin, Tuterarekin eta Mutiloarekin, hori konponduta dute. Guk hasieratik esan genuen interesik ez genuela hona ekartzeko. Eta orain ez dugu inongo beldurrik. Sekula ez dugu jaso eskaera ofizialik, ze hemen ere posible zen, baina gauza asko gairiduta. Inbertsio handia egin behar zen", esplikatu zuen Mankomunitateko presidentea Elkoro.



ORAIN EKONOMIA

gipuzkoa.eus/ekonomia

Ekonomia **Suspertzeko** Plana

Gure lurraldeko **ekonomia, enplegua eta ongizatea** indartzeko.

200M€
2015 > 2019

Industria

Lehen Sektorea

Gizarteratzea

Kultura eta Turismoa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Elkarren ondoan dauden bi trikuharri, ezustean

Duela 5.000 urte ingurukoak dira Leintz Gatzagako Artabila inguruan aurkitutako megalitoak, eta, adituen esanetan, normalean banaka egoten dira, ez da ohikoa izaten bi batera egotea; hauekin, jada bost dira herrian dauden historiaurreko hilobiak

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA Lurrailan enpresak egin du aurkikuntza, Gipuzkoako historiaurreko megalitoak identifikatu eta balioan jartzen lan egiten duen enpresak, hain zuzen. Luis del Barrio Lurrailan enpresako kidearen esanetan, seguruenik, talde, tribu edo familia bereko zenbait pertsona hilobiratzen zituzten bertan, garai batean.

Del Barriok dio oso bitxia dela mota honetako bi megalito elkarren ondoan egotea. "Normalean, trikuharriak bakarka egoten diren panteoiak izaten dira; area handietako taldeak osatu ditzakete, baina normalean banaka egoten dira. Nire ustez, Gipuzkoan, behintzat, elkarren ondoan kokatzen diren bi trikuharri dauden aurreneko kasua dela. Handiak 14 bat metroko diametroa dauka eta txikiak, berriz, 7 metrokoa", dio.

Lehenik, katalogatu

Behin lokalizatuta, fitxa bat egingo zaie eta ondare kulturalen katalogoan izena eman. Eusko Jaurlaritzak espedienteari hasiera eman beharko dio, megalito hauek ondasun kultural kalifikatu bezala deklaratzeko. Behin hori eginda, Del Barriok dio egokiena ingurua zaindu eta bertan indusketa egitea izango



Gaur egun, trikuharrien punta besterik ez dago agerian. JAGOBA DOMINGO

litzatekeela. "Inguruko zuhaiztia moztu beharko litzateke, era kontrolatuan. Aproposena litzateke indusketa arkeologiko bat egitea, azpian zehazki zer dagoen jakiteko. Baina hori beste kontu bat da, izango lukeen kostu ekonomikoa kontuan hartuta", azaldu du Del Barriok.

Elementu turistikoa

Modu honetan, Gatzagak elementu turistiko erakargarri bat gehiago izango du hemendik aurrera. "Ondare historiko moduan, beste elementu bat izango

da aurrerantzean. Ibilbide sare polita daukagu herrian eta hau beste puntu bat izango da", azpimarratu du Joannes Mendizabal kultura zinegotziak.

Orain, dauden aukera guztiak aztertu beharko ditu Udal Gobernuak, trikuharri hauekin zer egin erabakitzeke. "Aztertu beharko dugu nola babestu eta indusketa egiteak merezi duen ala ez", zehaztu du zinegotziak.

Artabila I eta Artabil II izena edukiko dute eta zeuden Isikoaitza, Elgea I eta Elgea II megalitoei batuko zaizkie, bost guztira.

'Lekaixoka!' izango da Oñatiko KMK 2017 jaialdiaren leloa

Berba honek oihua, txilioa, irrintzia, deidarra esan gura du, eta auzolanaren ideia dago leloaren oinarrian

E.A. OÑATI

Aspaldiko euskaldunek erabiltzen zuten deia, irrintzia eta oñatiarrez *lekaixua*, abisuak pasatzeko, arazoak komunikatzeko zein urrun zeudenei hurbiltasuna adierazteko. "Oinarrian, gure arbasoengandik jaso dugun herri ohitura, irrintzi, doinu eta berbaren komunikatzaile berriak gara", adierazi du Kilometroetako koordinatzaile Malen Ugartek.

Berbaren oinarrian, auzolanaren ideia dago. Hortik, auzolanetik sortu eta hazi delako, Txantxiku Ikastola bera ere, 50 urte hauetan. "Jaia ikastolarena da, baina herriarendako egingo dugu, herriko elkarte guztiekin auzolanean", adierazi du Aitor Guridik, Txantxiku Ikastolako lehendakariak.

"Ildo komunikatiboa lantzen hasi ginenean galdetu genion



KMK 2017ko leloa eta logotipoa.

gure buruari. Zer nahi du ikastolak Kilometroaren bitartez komunikatu? Eta pentsatu genuen auzolana zela oinarria. Hortik tiraka etorri zen *Lekaixoka!*", gaineratu du Zigor Ibartzabalek, Ikastolako zuzendariak.

Irudian, lekaioa

Lekaioa bera da irrintziaren errepresentazioa. Formak Oñatiko Aloña mendiko gailurreriaren irudia ere islatzen du. Kolore berdea eman zaio, naturari erreferentzia eginda.

Euskaraz bizitzeko tresnak eskura bihar, Etxaluzen

Goiena komunitatea

Arrasateko Euskalgintza / ARRASATE

Dendariekin euskaraz, pozik gainera! ekimenaren bigarren zatiari ekingo diogu. Helburua azaroaren 21ean hasi eta abenduaren 3ra arte herriko komertzioetan euskaraz hitz egiten ahalegintzea izango da. Batzuen-tzat, ez da hain erraza. Izan ere,

ohiturek, zalantzek, lotsak edota beldurra bezala, emozioek eragin handia izaten dute geure hizkuntza portaeran. Beraz, zeure egunerokotasunean euskaraz bizi nahi bai, baina urratsa egiteko zailtasunak dituzten horien artean bazaude, muga horrekin bukatzeko aukera izango duzu bihar Etxaluzen egingo den tailerrean, goizeko 9:30ean hasita. Izena azkar ematea komeni da, plaza mugatuak dira eta. Horretarako, aed@aedelkarta.eus helbidera mezu bat idatzi.



NISSAN X-TRAIL
23.600 €* TIK AURRERA
7 ESERLEKUREKIN ETA SABAI PANORAMIKOAREKIN



3 URTEKO MANTENTZEA, BERMEA ETA LAGUNTZA

YOU+NISSAN
GURE KONPROMISOA ZURE ESPERIENTZIA.
Ezagutu zehaztasunez Bezeroen Promesa
Cliente programa hemen nuncaconducirassolo.es
edo kontzesionarioeri gure sare ofizialean.

ARABAUTO Gamarrako Atea, 46 A-B, 01013, Vitoria-Gasteiz, Araba - Tel. 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>
Kontsumo mistoa: 6.2 l/100km. CO₂ isurpenak: 145 g/km.

*PSP gomendatua penintsulan eta Balearretan, barne dauzka FAP, garraioa, Nissan Assistance, sustapenaren deskontua, BEZ eta ZGZB, Espainiar merkaturako, nahiz eta azken hori agian ez den aplikagarria zure Autonomia Erkidegoan. 3 urteko mantentze-kontratua (kilometro kopuruaren mugarekin). Sartutako berrikusketak Bermeen Liburuaren eta Mantentze Zifurtagiriaren araberako estandarrik dira. Salbuetsita daude Flotak eta enpresak. Eskaintza balioduna eskuzko Nissan X-Trail Acenta DIG-T 163CV (120 kW) EURO 6 berri bat eskuratzen duten partikular eta autonomoentzat, baidin eta eroslearen izenean dagoen erabiltzako ibilgailu bat ematen badute eta Espainiar Sukurtsala duen Magic Plan de RCI Banque SÁREN bidez finantzatzeko badute. Gutxieneko egonaldia 24 hilabete, finantzatzeko gutxieneko zenbatekoa 6.000€. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta 2016/11/30 arte da balioduna. Informazio gehiago jasotzeko jo zure gertueneko kontzesionarioira. Baliteke bistaratutako irudia ez etortzea bat eskaintzako ibilgailuarekin.

BMk bere supermerkatu handienetako bat zabaldu du Arrasaten

Joan den azaroaren 17an, BM supermerkatuen kateak bere saltoki handienetako bat ireki zuen Arrasaten. 1.420 metro karratuko azalerarekin eta Gipuzkoa etorbideko 32. zenbakian kokatua, BM berri honek katearen presentzia indartzen du herrian; izan ere, 1993a ezkerro, Araba etorbidean ere badauka saltoki bat. Gainera, 23 lanpostu sortu ditu, guztiak ere Arrasateko eta inguruetako bizilagunak.

Supermerkatu berri honek BMren ezaugarri nagusiak helarazten dizkie herritarrei, beste behin: zerbitzuan bikaintasuna, bezeroaren esanetara dagoen profesional talde batekin; lehen marketako produktua, era askotariko aukerekin

eta eskaintza lehiakorrekin; eta produktu freskoekiko eta tokiko ekoizleekiko apustua. Hori horrela, BM berri hau BERTAKO produktuen salmentarako erakusleihu bat gehiago izango da, produktuen kalitate eta freskotasun gorena bermatzen duen marka eksklusiboa. Hortik harago, supermerkatuak bertako ekonomiari eusten eta indartzen laguntzen du.

200 PLAZA BAINO GEHIAGOKO APARKALEKUA ESKURA, SALTOKI PAREAN ETA BAITA ESTALITA ERE

Besteak beste, saltoki berriaren hauek izango dira: Bergarako Valentin Gabilondo ganadutegiaren txahal-okela; Gipuzkoako hornitzaileen frutak eta barazkiak, Bolu-Barri baserrikoak kasu; eta Pasaiaiko, Getariako, Bermeoko eta Hondarribiko portuetatik ekarritako arraina.

Era berean, bodega, parafarmazia, lurrindegia, okindegia, prentsa kioskoa eta produktu osasuntsuak erosteko gunea ere egongo dira. Hain zuzen, 10.000 produktu-erreferentzia baino gehiago. Supermerkatua astelehenetik zapatara bitartean egongo da irekita, 09:30etik 21:30ak arte, eta bezeroentzako 200 plaza baino gehiagoko doako aparkaleku estalia dauka.



Arantxa, arrandegiko arduraduna.



Idoia, harategiko arduraduna.



Leire, frutategiko arduraduna.



Arrasateko BM supermerkatua, Gipuzkoa etorbideko 32. zenbakian.

1.300 langile baino gehiago Gipuzkoan

BMren jatorrizko lurraldea da Gipuzkoa, eta azpiegitura handiena dauka bertan. Bi plataforma logistikoz gain, dagoeneko 45 supermerkatu ditu; horietako bi, Arrasaten. Gainera, 1.300 lanpostu sortu ditu eta probintzian enplegua sustatzen duen enpresa nagusietako bat bilakatu da.

Garagartzako langileak hasi dira bueltatzen

Pixkana-pixkana, Fagor CNAren Garagartzako lantegia badoa jarduera normalera bueltatzen. Indarrean dagoen EREaren eraginez langabezian geratu ziren langileak hasi dira lanpostura itzultzen; lehenengoak joan den eguaztenean itzuli ziren.

Leire Kortabarría ARRASATE

Fagor CNAk urtebeteko EREa hasi zuen urriaren 26an, eta, 122 langileri eragiten bazien ere, hasieran, 95 langile geratu ziren aldi baterako langabezian; batzuk, bi asterako, eta beste batzuk, lau asterako.

Martitzenean, egosketa lerroaren barruan, plaken ekoizpeneko 10 bat langile itzuli ziren lanera. Datorren astelehenean, hilak 21, egosketako gainerako langileak bueltatuko dira, 40 inguru; eta, hilaren 28an, astelehena, garbigailuetako beste horrenbeste.

Stocka txikitu da

EREak datorren urteko urrira arte irauten du eta, epe horretan, enpresak horren beharra ikusten badu, izendatuta dauden 122 langileetako batzuk kalera ditzake; gehienez ere, 90 egunerako kalera dezake langile bakoitza. Edozein modutan, eguen goizean batzarra izan zuten Fagor CNAko zuzendaritzak eta enpresa batzordeak eta, bertan zuzendaritzak esan zuenez, pilotuta zuen stock-aren zati handienari irteera ematea lortu du, 3 milioi inguruko salmentak lortuta; horixe zen, hain justu, ERErako enpresak eman zuen arrazoia, stocka txikitu behar



Fagor CNAren Garagartzako lantegia. GOIENA

zuela. Edozelan ere, langileen ordezkariak "zalantzak" dituzte, datu zehatzik ez dutelako eman, baina horiek datozen egunotan emango dituztela espero dute.

Bestalde, enpresak zenbait gauza agindu zizkien langileei; besteak beste, langabeziagatik kobratuko zutena osatzea. Eta badirudi hori bete egin duela, izan ere, urriko nomina osorik kobratu dute langileak.

Langileen ordezkarien eskara handiena, ordea, oraindik ez da bete, hau da, enpresak bidegarritasun plan bat aurkeztea,

non azaldu beharko liritekeen dituen finantzazio iturriak. Hori ere laster esku artean izatea espero dute.

Salmentak %60 handitu

Fagor CNAk EREa jakinarazi zuenean, esan zuen taldeak Espainiako merkaturan bere posizioa indartuko zuela, eta Edesa Industrialen salmentak ia %60 handituko zirela urte bukaerarako. Lerro zuriko produktu berriak egongo zirela ere aurreratu zuen; horiek dira, hain justu, Garagar-tzan egiten direnak.



Herritarrak inaugurazio ekitaldian. MAITE TXINTXURRETA

23 lanpostu sortu ditu ireki berri den Arrasateko Super BMk

Eguazten ilunkeran inauguratu zuten Arrasateko Super BM supermerkatu berria, Gipuzkoa etorbidean.

L.K./M.T. ARRASATE

BM kateko zuzendari orokor Jose Ramon Fernandez de Barrera izan zen inaugurazioan. Herritar asko joan ziren.

Elorregitik sartuta, herri sarreran dago Super BM berria; 1993a ezkerro badago halako beste supermerkatu bat herrian; Mugarritten, hain zuzen ere. Zentro berriak 23 lanpostu sortu ditu, eta Arrasateko eta inguruko langileak bete dituzte. Proiektu berrian 6,8 milioi euro inbertitu ditu BMk. Inaugurazioan, Fernandez de Barrenak azpimarratu zuen "Debagoieneko eskualdearekiko eta tokiko ekonomiarekiko apustu handia" dela supermerkatu berria, "aberrastasuna, balioa eta enplegua sortuz".

Supermerkatuak 1.420 m²-ko salmenta-aretoa dauka, katearen handienetariko bat.

Bergarako produktuak

BMk esan duenez, tokiko ekonomiaren aldeko apustua adierazten da ere supermerkatu berrian egongo diren produktuetan: "Produktu freskoak eta tokiko ekoizleenak izango dira, kalitatea eta, era berean, tokiko ekonomiaren sostengua bermatzeko". Hala, bereziki aipatzen ditu Bergarako Valentin Gabildoreen txahal-okela eta Bolu-Barri baserriko fruta eta barazkiak, eta Pasaia, Getaria, Bermeo eta Hondarribiko portuetatik ekarritako arraina.

Super BM berriak 117 aparkaleku ireki izango ditu, eta bezeroendako beste 74 aparkaleku estali, azken horiek inguruko beste komertzioek ere erabiltzeko modukoak.

Super BM-ren ondoan beste saltoki handi bat ireki dute egunotan: Lidl katearena.

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUA

Azaroak 19 | 2016

Antolatzailea: **ARRASATEKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
■ Enplegu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea: **ibai-arte**
Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
hurbiltasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.



Zikinkerixia eta errespetu faltia; eztabaida eta hausnarketa

XABIER LEGORBURU IGARZA
ANTZUOLA

Gaurkuan gure etxeko txikixek eskolatik ekarri doskue Antzuolako alkatiak sinatutako idatzixa familixa guztiai zuzenduta.

Bertan, Beñardo Kortabarria alkatiak azaltzen dosku herrixak daukan bi arazo garrantzitsui buruz, kale eta hainbat eraikin publikotako zikinkerixia eta hauekiko errespetu faltia, herritarren artian eztabaida eta hausnarketa sortzeko frontoia ixteko erabakixa hartu dabela azken aste honetan.

Frontoia ixtiaren helburua gai honen inguruan eztabaida eta hausnarketa sortzia izan bada, ontzat emuten dot alkatiak hartutako erabakixa; izan be, zerbaiten biharrian gare gure herrixa hartzen ari dan itxuria ikusitta.

Gozoki paketiak, pipa-azalak, zigarro-mutxikinak, papela, boteilak... lurrian, aulkiak apurtuta, atiak, leihuak, erre, pixa egin, desordutan golpeka jardun metalezko elementuekin, ping-pongeko mahai gainian saltoka ibili, arbolatxuak apurtu... aipatzen dittu alkatiak; nik zerrenda honi txakurren kakak eta aspaldiko partez berriz herriko hormetara itzuli diran pintadak gaineratuko notsake.

Aipatutako guztiak zikintzen dau herrixa eta gauza zein herritarrekiko errespetu falta bat adierazten dau.

Alkatiaren idatzixan txakurren kakarik ez azaltzia idatzixa egitterakuan ez akordatzian ondorixua izan dala pentsatu nahi dot; aldiz, herriko hormetako pintaden aipamenik ez egittiaren arrazoia zein dan jakin nahiko nuke; izan be, honek garbitzeko eta berriz holakorik ez egitteko alkate deirik ez dot ikusi.

Zikinkerixia zikinkerixia da, zeinek sortzen daben kontutan hartu barik.

Herri txukun, garbi, erakargarri eta atsegin batean bizi nahi badogu, bakoitzak geure esparru eta ingurunean eztabaitadu eta hausnartu bihar dau, alkatiak diñon bezala danon ardura dalako ez zikintzia, eta zikintzia ez dalako eskubide bat.

Gure alkatiaren esanai jarraituz, garbi egoteko oinarrixa ez zikintzia da. Kontutan izan daigun.

Esker onez

ASIER ETA LEIRE URZELAI LETONA
ESKORIATZA

Duela egun gutxi hil da gure ama, Carmen Letona Errasti. Lerro hauen bidez, eta berak hala eskatuta, eskerrak eman nahi dizkiegu bihotz-bihotzez azken urte hauetan eta bereziki azken egunetan bidaia-lagun izan ditugun Osakidetzako langileei. Ezinezkoa da guztien izenak banan-banan aipatzea, aurpegiak ezagutu arren guztien izenak ez baitakizkigu. Hemen doa gure ahalegina:

Hasteko, Txagorritxuko onkologo eta kimio-geletako erizain eta auxiliarreri. Bereziki, gure onkologoa izan den Isabel Perez Basocori. Isabel beti saiatu da gaixo eta familiartekoekin behar besteko denbora hartzen. Gaixoa ezagutu eta kezka guztiak argitzen. Gaixoko ezarrira dituzten minutu horiek aise gaindituz eta ondorioz bere lanorduek aise luzatuz.

Eskoriatzako osasun zentroko mediku, erizain eta harreragileei. Bereziki, Silvia Morenori. Zer ez esan Silviari buruz. Silvia izena aipatu eta amari irribarre eder bat marrazten zitzaiola aurpegian. Silvia aingerutxo bat bezala izan da guretzat. Kuttuna.

Eta azkenik, Debagoieneko ospitaleko hirugarren solairuko mediku, erizain eta auxiliarreri. Han pasatako lau egun horiek benetan bereziak

izan direla: aurpegi atseginak, keinu goxoak, arreata etengabea, gure kasa egoteko lasaitasuna...

Aipamen berezia egin nahi diogu Arrasateko ospitalean mediku izan dugun Iñaki Peñari. Luxu eta plazer bat izan da berarekin bide hau egitea.

Heriotza beti traumatikoa zela uste genuen. Heriotza min eta sufrimenduekin lotzen genuen. Ospitaleak leku beldurgarriak zirela uste genuen. Orain, ikasi dugu hori ez dela horrela. Heriotza era lasaian eta minik gabe hel daitekeela. Maite dituzunak alboan eta askatasunean.

Ze ederra den bizitzaren amaierara iristen gabiltzan unean hain ulertuak, babestuak eta lagunduak sentituz.

Eskerrik asko denoi eta besarkada bat.

GuraSOS

GARIKOITZ ITURBE ETA DORLETA SOLOGAISTOA
GURASOS TALDEAREN IZENEAN
DEBAGOIENA

Interes politiko eta ekonomikoak albo batera utzita, Donostian (Zubietan) egitekoak diren erraustegiak gure seme-alaben osasunean izan dezakeen eraginaz kezkatutako taldea da GuraSOS.

Eusko Jaurlaritzak 30 kilometroko diametrodun "eragin-eremua" onartzen du; hala dio erraustegiak ingurunean duen eraginari buruzko adierazpenean jasotzen den kutsaduraren sakabanatze atmosferikoaren azterketak. Eragin-eremu horretan 69.000 haur eta gaztek ikasten dute, mapa honek islatzen duen moduan.

GuraSOS maiatzean sortu denetik dibulgazio eta eztabaida foroa –Orona_Ideo maiatzaren 21–, haurren babeserako familia eta gizarte hesia –Donostia, ekainaren 19an. 5.000 pertsonak parte hartu zuten bertan–, hainbat ekimen juridiko –uztaila ezker– eta Abuztock jaialdi baketsua

–Donostia, irailaren 4a– antolatu ditugu.

Azaroaren 26rako, berriz, GuraSOSek manifestazioa deitu du Donostian. Mobilizazio honen helburua erraustegiaren lizitazioa gelditzeko eta parte-hartze prozesu bat irekitzeko eskatu eta gai honen inguruan adostasuna lortzeko oraindik garaiz gaudela aldarrikatzea da.

Gure asmoa manifestazio honetan ahalik eta jende gehienak parte hartu dezan da, eta, horretarako, Gipuzkoako herritar guztiak deitu nahi ditugu bertara. Gutun honen bidez zure elkartearen laguntza eskatu nahi dugu, GuraSOS taldearen eta azaroaren 26ko manifestazioaren berri zure herrian eman dezazuen. Prest baldin bazaudete, zuekin harremanetan jarriko gara eta oinarrizko materiala helaraziko dizuegu herrian lanketa egiteko.

Hortxe proposamena. Inolako galdera edo zalantzarik izango bazenu, edota GuraSOS taldeari eta gure ekimenari buruzko informazio gehiago nahi izango bazenu, www.gurasos.org-en aurkituko duzu, edota, bestela, jarri zaitez gurekin harremanetan komunikazioa@gurasos.org helbidera idatziz.

Gure ekimenarekin bat egingo duzelakoan agurtzen gara. Mila esker eta ondo izan!

'1936-2016 Izan zirelako gara': zertarako omendu?

IBAI REDONDO
BERGARAKO SORTU
BERGARA

80 urte bete dira Espainiako tropa frankistak Bergaran eta Euskal Herrian sartu zirenetik.

80 urte "España una, grande y libre" armen bidez inposatu zigitenetik.

80 urte ehundik gora herritar eta milaka euskal herritar erail zituztenetik.

Zertarako egin omenaldia?

Batetik, askatasuna, demokrazia eta jendarte eredu aurrerakoiaren alde borrokatu zein bizitza eman zutenak goratzeko, merezi dutelako!

Bestetik, faxismoa ez zela Francorekin amaitu gogoratzeko.

Zoritzarrez, diktadorea ohean hil zen, gaixorik eta ez zen iraultzarik gertatu estatuan.

Sistema frankistarekin ez zen apurtu, boterean zeuden elite politiko, ekonomiko, militar edo judizialek aginte makila izaten jarraitu dute gaur arte: ohore guztiakin hilobiratu edota ohore guztiakin aginte postuetan jarri zituzten.

Horregatik, sasi-demokrazia honetako estatuko enpresa boteretsuenak frankismoan aberastu ziren; gobernua dagoen alderdiko ohorezko presidente dira ministro frankistak; diktaduran karrera militar edo judiziala egin zutenek estatuko aparatuetako goi karguak betetzen dituzte;...

Gauzak horrela, estatuko nazioek ez daukagu erabakitze eskubiderik; kapitalismoa inposatzen zaigu; hezkuntza sistema erabat atzerakoi eta espainiarzalea pairatzen dugu; ez dugu bakerik eta kartzelek preso politikoekin beteta jarraitzen dute...

Edo azkena, tabernako borroka bategatik zazpi gazte kartzelaratutako dira, ehunka torturatutako eta GALeko kide kondekoratuak diren bitartean.

Beraz, larunbat honetan, omenaldi xume bezain beroa egin nahi diegu gure herriaren alde bizitza eman duten guztiei, ordu batean Monzonen enparantzan.

Erakutsi digutelako demokrazia, justizia eta bakea ez direla zerutik erortzen; gaur, atzo bezala, herritarron antolakuntza, batasuna eta mobilizazioa ezinbestekoa da XXI. mendeko faxismoa garaitu eta demokrazian bizitzeko. Gora herria!



ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI GOIENA.EUS/KOMUNITATEA

Euskara lehentasun, inbertsioa jaitsiz?

Bizkaiko Foru Aldundiak 2017rako aurrekontu proiektua aurkeztu du, eta, pertsonal gastuen, amortizazioen eta interesen ondoren, 1.165,55 milioi euro aurreikusi ditu sailentzat.

Kantitate hori iazkoa baino %1,11 txikiagoa da eta sailen artean murrizketa handiena Euskara, Kultura eta Kirola Sailak izan du, %11,08koa: 48,7 milioi eurotik 43,3 milioi eurora, hain zuzen ere.

Unai Rementeria ahaldu nagusiak lehentasunei erantzuten diela adierazi du: "Jendea lehenengo, enplegua eta aktibitate ekonomikoa bigarren eta kalitatezko zerbitzu publikoak hirugarren".

Honetaz gain, Aldundiarentzat, euskararen inbertitza ezinbestekotzat jo eta egitasmorik bertan behera ez dela utziko ere esan du.

DIPUTAZIOAREN APUSTUA GIZARTE GERO ETA ELEBIDUNAGOA LORTZEA OMEN DA

Nola izan daiteke lehentasuna euskara, honetarako aurrekontua txikiagotuta?

Ez al da lehentasuna euskararen zapalkuntza eta ordezkapen sistematikoa izan dela onartu eta justizia egitea?

Euskaldunon eskubideak errekonozitu eta euskaraz bizitzeko aukera izan dezagun bitartekoak jartzea?

Nahiz eta herritar asko izan euskaldunak, ba al daude euskaraz lan egin, dibertitu edo bizitzeko aukerak?

Euskara arloan Bizkaiko Diputazioaren apustua gizarte gero eta elebidunagoa lortzea omen da, honetarako herritarren artean ezagutza eta erabilera bultzatuz.

Nola lor daiteke halakorik baliabideak txikiagotuta?

Nola lortuko du foru administrazioan euskararen erabilera, hau erakundearen lan hizkuntzat ezarri gabe?

Benetan euskara lehentasuna baldin bada, gai izango al dira helburu hauek betetzeko baliabideak jarri eta beste eragile eta herritarrekin elkarlanean aritzeko?


Eta lurralde bakarraren apustua nahikoa ahal da euskaraz bizitzeko aukera izateko?

Zer gertatzen da beste lurraldeekin?

Eta Jaurlaritzarekin?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE GOIENA.EUS/KOMUNITATEA



ZEUK ESANA

Zilegi da oinordekotzatik seme-alabak apartatzea; ze diozu?

ZAKUTO

OÑATI

Logikoa dirudi. Izan ere, gurasoen eta seme-alaben artean tirabirak badaude, ezinikusiak eta bestelakoak, hau da, hartu-eman txarra, gerta daiteke gurasoek beste norbaiti eman gura ahal izatea herentzia; ilobei, adibidez. Nire iritziz, ondo dago lege hori.

RAPUNZEL

DEBAGOIENA

Eta seme-alabek ez badaukate dirurik? Hau da, seme-alabek

diru behar gorria badute eta gurasoek beste batzuei uzten badiete herentzia, orduan zer gertatzen da?

Hori dela eta, tentu handiz aztertu beharreko gaia dela uste dut. Gurasoen eta seme-alaben arteko odol-lotura ezin da horrela tratatu.

Non geratzen dira seme-alaben eskubideak? Eta eurek ez badute errurik eta gurasoak badira euren kasa doazenak?

Galdera asko eta erantzunak ere, denetarikoa. Esan bezala, argi ibili behar da.

MARTIN ARRANTZALEA

ARETXABALETA

Neu banaz aitte edo ama, edo ezkonduete banau edo dana dalakue... neuk dezididuko dot zeñei itxi neure dirue eta ondasunek. Eta puntu.

Zeñek esan biher dust zeñei itxi eta zeñei ez? Juez batek?

Adibidez, asko maitte doten persona bat, baiñe ez dana familixakue; hau da, familixako edozein baiño gehixau maitte dotena. Ba, harei itxiko dutzet dana. Hori da logikuena, ala?

HURRENGO ZENBAKIAN: FRANTZIAN, LANORDUETATIK KANPO NAGUSIEK EZINGO DIETE EZ DEIRIK EZ MEZURIK BIDALI ERE LANGILEEI. ZER DERITZOZU? Eman iritzia: berriak@goiena.com / goiena.eus.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura), Leire Kortabarria (Ekonomia).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeeberría.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Ubane Madera, Monika Belastegi, Gaiatz Arana.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

PROTAGONISTA

"Izugarrria litzateke iazko 165.000 kiloak gainditzea"

JOSE ANTONIO AGIRREBEÑA BERGARAKO ELIKAGAI BANKUKO ARDURADUNA

Mireia Bikuña BERGARA

Azaroaren 25ean eta 26an egingo dute urteroko janari bilketa erraldoia.

Debagoienean, Arrasateko, Bergarako eta Aretxabaletako hainbat dendatan batuko dituzte produktuak. Atzo egin zuten kanpainaren aurkezpena Donostian eta han egon zen Jose Antonio Agirrebeña.

Aurtengo kanpaina ere ate-joka duzue. Dena gertu?

Bai. Datozen egunetan azken lanak egingo ditugu, baina guztia dugu prest. 400 bat lagun egongo dira boluntario lanak egiten. Dendetan poltsak banatzen eta produktuak sailkatzen.

Bergarako elikagai bankuak lau bailara koordinatzen ditu.

Debagoiena, Debabarrena, Urola eta Goierri daude gure ardurapean. Azken horretan, Legazpi eta Beasain arteko herriak sartzen dira. Herri gehienetan, leku jakin batzuk egongo dira produktuak batzeko. Debagoienean,



Jose Antonio Agirrebeña, iazko elikagai bilketa egunean. GOIENA

adibidez, Arrasateko Eroskin, BM-n, Dia-n eta Lidl-en; Bergarako Eroskin, Dia-n eta Super Amaran; eta Aretxabaletako Eroskin. **Eta, zeintzuk dira eskatzen dituzuen produktuak?**

Ez dago aldaketarik. Galtzen ez diren produktuak: esnea, pasta, arroz, lekaleak, olioak, atun latak... Bereziki eskatzen ditugu ume txikiendako direnak: esne-hautsa, ipurdia garbitzeko toallak, ipurdirako

kremak, biberoiak, txupeteak...

Herritarrek, nahiago badute, ekarpen ekonomikoa ere egin dezakete.

Iaz ipini genuen aukera hori lehen aldiz, eta erantzuna oso ona izan zen. 72.000 euro jaso genuen herritarren diru ekarpenekin. Diru horrekin, urtean zehar sortzen diren beharrak ordaintzen ditugu. Bada, dirua eman gura duenak dendan bertan egin dezake ekarpena.

Zein da aurtengo helburua?

Ez dugu zifra zehatzik buruan, baina iazkoa errepikatzea izugarria izango litzateke. Iaz, guztira, 165.000 kilo janari batu genuen. Guk kudeatzen ditugun lau bailaretan 125.000 kilo. Hori gainditzea zaila izango da, baina herritarrek oso kontzientziatuta daude, eta erantzun ona espero dugu.

Zenbat lagun arteen banatzen dituzue batutako elikagaiak?

Gaur egun ditugun datuak hauek dira: 4.500 heldu eta 3 urtetik beherako 465 ume. Astero jasotzen dute euren zatia, elkarteen bidez, udal ordezkarien bidez, gizarte laguntzaileen bidez... Horiak dira bitartekariak. Guregana ere etortzen dira zuzenean. Horiendako guztiendako izango da jasotzen duguna.

HAU BE BADOGU!

#Altsasu, berriz ere, gaien gailurrean



Altsasun guardia zibil batzuei eraso egitea egotzita zazpi gazte kartzelatu ditu Auzitegi Nazionalak, eta sare sozialetan hizpide nagusi izan da gaia asteen. Gazteei babes erakusteko

#denokgaraaltsasukoak eta #nierealtsasukoan izan dira trending topic izan dira. Argazkian, adibidez, EH Bilduko Marian Beitialarrangoitia eta Oskar Matute parlamentariak txiokatutako irudia, Madrilgo Kongresuan. Hona hemen oihartzuna izan duten beste txio batzuk:

@gorkalandaburu: "Lekuz kanpoko zentzugabekeria bat da Altsasuko gazteen kartzelatzea. Gehiegikeria juridikoa da..." (itzulita).

@aitoresteban: "Altsasun gertatzen ari dena gehiegikeria hutsa da; terrorismoaz hitz egitea astakeria da" (itzulita).

#GureAhotsa, atari nafarrari babes

AUGC Guardia Zibilaren elkarrekin *Ahotsa.info* atariaren kontra jo du, eta babes mezu ugari zabaldu dira sare sozialetan #gureahotsa traolarekin.

@Ahotzainfo: "Ahotsa itxi nahi dute. Alarma gorria piztu beharrean gaude. #GureAhotsa".

#tokikom16: 'trending topic' astelehenean

Tokikomek jardunaldiak antolatu zituen Arrasaten, Garaian, eta #tokikom16 traola trending topic izan zen egunetan zehar.

@lontzo: "Zorionak eta eskerrik asko @toki kom #tokikom16 jardunaldiak antolatzeagatik. Askok da ikasitakoa, eta ezagututako jende interesgarria"

ITURRI ONETIK

Gabonetako XII. Futbol Txapelketa

Arizmendi kirol elkarrekin antolatzen duen Gabonetako Emakumezkoen Futbol Txapelketara ezingo da Athletic Club taldea etorri. Dena den, lehen mailako beste talde batek ordezkatuko ditu bizkaitarrak: Oiartzunek. Are gehiago, hango atezaina aretxabaletarra da: Oihana Aldai. Hori horrela, beraz, Real Sociedad taldearen, Oiartzunen eta Debagoieneko Selekzioaren arteko norgehiagokak jokatuko dituzte. Bestela esanda, Euskal Herriko futbol talde garrantzitsuenek hartuko dute parte, urtero moduan.

GORA ETA BEHERA



UBANE MADERA

Ikuspenik ez Arrasateko biribilgunera baterako sarreran



Arrasateko Zarugalde kaletik Muzibarko biribilgunera sartzean susteratzen diren autoak. Edukiontzien ondoan auto bat zegoen gaizki aparkatuta –argazkian moduan–, eta, ondorioz, bere autoaren muturra nabarmen atera behar izan zuen, ikuspenera galarazten ziolako gaizki utzitakoak. Eta ia-ia biribilgunetik zetorren beste auto batekin txoke egin zuen.

700.000 euro gutxiago 2017ko aurrekonturako

Asteazkenean EAJ-PSE Udal Gobernu taldeak 2017rako aurrekontu eta proiektu nagusien zirriborroa aurkeztu zuen. Abenduaren 20ko osoko bilkuran onartu beharko da, eta dagoeneko oposizioko taldeei helarazi diete, euren ekarpenak egin ditzaten

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Zuhurra". Hitz hori erabili du Maria Ubarretxena alkateak Udal Gobernuaren 2017rako aurrekontu proiektua deskribatzeko. Beherakadaren arrazoi nagusiak zeintzuk diren azaldu zuen Maria Ubarretxena alkateak asteazkenean udaletxean egindako agerraldian: "IBItik [Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga] jasotzen den dirua jaitsi egin da, eta, obra handirik ez dagoenez, martxan horien zergetatik eta tasetatik jasotako diru kopurua ere jaitsi egin da. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldunditik 2016. urtea ixteko aurreikusitakoa baino 214.000 euro gutxiago jasoko ditu Arrasateko Udalak. Beste alde batetik, entzuten da kupoa ordaintzeko udalek dirua jarri beharko dutela, eta Arrasateko kasuan 800.000 euro izango lirakeke".

Horrekin batera, inbertsioetarako diru gutxiago izango du Udalak, Diputazioaren balio katalalaren berrikuspenak ezarri dituen balio berriek zerga biltzetatik diru gutxiago biltzea ekarriko duelako. Iaz bezala, Pertsonal Saileko eta Udal Zerbitzuetako gastuek aurrekontuaren %60 gairiditzen dute.

Lehenasunezko hiru ildo

Aurrekontu proiektuak herriarren gizarte beharrei erantzutea, tokiko ekonomia eta enplegua sustatzea eta proiektu estrategikoei jarraipena ematea lehenesten ditu: "Horretarako, laguntza, prestazio eta gizarte programa guztiak mantenduko dira, beharrezkoa baltz horiek handitzeko konpromisoarekin".

Proiektu estrategikokoak

Agintaldi osoko proiektu garrantzitsuenetakoa Kulturola egitasmoa izango da, Aprendices eta erlojuaren eraikina kultur eremu bihurtzea. "Bi erai-



Ubarretxena eta Garcia, asteazkeneko prentsaurrekoan . XABI GOROSTIDI

kinek 625.000 euroko aurrekontua izango dute -1.250.000 euro gutxira- 2017an obreakin hasi ahal izateko".

Auzoei lehenetasuna emango zaie: Makatzenako igogailuaren proiekturako eta pilotalekuan, parkean eta aparkalekuan jardun integral bat egiteko kontu-sailak jasotzea proposatu da. Haur parkeak hobetzeko asmoari jarraituta, Biteri eta Itxaropena parkeak berritzeko 2017rako partida zuzena sortu da. Uribarriko atzealdea berriro urbanizatzeke eta Toki-Argiko teiltatua

konpontzeko kontu-sailak ere txertatu dira.

Garraio publikoaren erabilera sustatzeko, markesina eta bus geltoki berriak jarriko dira. Oinezkoek gero eta nagusitasun handiagoa izan dezaten, ekintza ezberdinak burutuko dira; esaterako, ibilgailuen eta autobusen gehiegizko abiadura eragozteko bost radar finko jartzea.

Uarkape frontoiko taberna gimnasio bilakatzea eta gazteei etxetik joan ahal izateko diru laguntzak ematea dira zirriborroaren beste proiektuetako batzuk.



NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Ajea

Afalordua. Ohiko herri bateko taberna arrunta. Duela bi-hiru hamarkadako taldeen musika mitikoa. "Joder. Ez al da ba talde berririk sortu 80ko hamarkadatik hona?". Ikur zalea nintzela bota nion parekoari, mitikoen mireslea. Barre txikia egin nion; banekien eztabaida zetorrela ostean.

Txikituaren ajeak. Beti handien bila. Sortzen dugunak izan behar du sakona, transzendental eta apurtzailea. Eta ahal dela, sortzaileak izan behar du intelektual, artista irudikoa eta erreferentea. Baina kulturak, izango bada, behar du taberna zuloa, behar du gaztetxe ertza, eta behar du lagunartea. Eta behar ditu gazte eta ez hain gazte eroak; zertan ari diren ondo jakin gabe sortzen dutenak. Euskal Herrian kulturari zerbait falta zaiola irudituko, eta zerbait hori sortuko dutenak. Ez direnak arduratuko zerbait hori sakona eta transzendental izateaz, eta sortzeko sortuko dutenak.

Bai, kultura oso izateko, behar ditugu sortzaile absurdo eta eskasak (ere). Entzun, irakurri eta ikustean traba egingo digutenak, edo barre txikia eragin. Bizi garen seinale.

Sorturen birfundazio prozesuari buruzko eztabaida saio bihar

Sortu alderdiaren birfundazio prozesuaren barruan, eztabaidarako saioa antolatu dute zaturako, hilak 19, Kulturaten (10:30-13:00). "Birfundazioaren inguruko edukia eztabaidagai izango da, eta herriko errealtaterara ere ekarriko da", adierazi dute.

Bestalde, fase berri hau gidatzeko ponentzia bakarra aurkeztu da. *Zohardia* du izena eta Arnaldo Otegi du buru. Honen aldeko edo aurkako botoa eman ahal izango da, baina, horretarako, akreditatzea beharrezkoa izango da. Bi eratara egin ahal izango da: batzarrean bertan edo *partehartu.sortu.eus* helbidearen bitartez.

Dendariekin euskaraz hitz egitea errazteko tailerra bihar

Goiena komunitatea

AED / ARRASATE

Datorren astean ekingo diogu *Dendariekin euskaraz, pozik gainera!* ekimenaren bigarren zatiari. Helburua azaroaren 21etik abenduaren 3ra arte herriko komertzioetan euskaraz hitz egiten ahalegintzea izango da. Beraz, hori egiteko zailtasunak dituzten horien artean bazauda, muga horrekin bukatzeko aukera izango duzu azaroaren 19an, Etxaluzen egingo den tailerrean. 09:30ean hasita, Emuneko teknikariek euskaraz eroso bizitzeko tresnak eta aholkuak emango dizkigute. Izena emateko bidali mezu bat *aed@aedelkarta.eus* helbidera.

Lore

LURRINDEGIA

Olarke kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Eduarne Iriando - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriando - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

<p>Diagnostikoa - Orientazioa</p> <p>Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak</p> <p>Arreta psikologikoa genero indarkerian</p>	<p>Laguntza eskolarrak</p> <p>Estimulazio goiztiarra</p> <p>Logopedia</p> <p>Ikasketa teknika eta ohiturak</p>
---	--

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

VILLAR ILE-APAINDEGIA SALGAI

Nire jabearen erretiroagatik saltzen naute. Betiko bezeroek ni erostea eskertuko dizute!

ESKORIATZA
Tel.: 635 72 36 83
943 71 50 42

Arkauzek aske egon behar lukeela aldarrikatu dute

Sare plataformak agerraldi jendetsua egin zuen, martitzenean, preso arrasatearraren egoera salatzen. Frantzian preso pasatako urteak kontuan izanda zigorra beteta izango luke, baina Espainiako araudiak ez dizkio urte horiek kontuan hartzen

Xabi Gorostidi ARRASATE

Euskal preso, iheslari eta deportatuen giza eskubideen aldeko herritarren sareak (Sare) Josu Arkauz arrasatearraren eta bere egoera berean dauden beste sei euskal presoren "muturreko egoera" salatu eta egiten ari diren "injustizia irmoki" salatu zuen, hainbat herritarrekin batera, martitzenean.

Iraitz Agirre kazetariak eta John Andueza kazetari eta idazleak azaldu zuten, Arkauz eta beste sei presoak Frantziako Estatuan zigortuak izan ziren. Bertan bete zuten zigorra, eta, Espainiara estraditatzekoan, ez zizkieten Frantzian betetako espetxe urteak kontuan hartu, zigorra berriz betetzera derrihortuta.

Sarek dituen helburuak ere gogora ekarri zituzten: euskal presoei ezarritako dispersio politikaren amaiera, euskal preso isolamendu eta bakartze egoerak amaitzea, gaixotasun

larriak dituzten presoek kalekatzea, 70 urtetik gorako adina duten presoak eta zigorraren 3/4k eta 2/3ak beteta dituztenen kaleratzea eta bizi osorako zigorra eta espetxealdi luzapena ahalbidetzen duten lege eta egoerak indargabetzea.

Arrasateko presoek egoera

Herriko presoek egoera zein den ere azpimarratu zuten. Gaur egun zazpi arrasatear daude Frantziako eta Espainiako kartzeletan, batez beste 831 kilometroko distantziara. Denbora luzeen eta distantzia handienera dagoena Unai Parot da. 27 urte daramatza preso eta Puerto de Santamariako kartzelan dago, Arrasateetik 1.020 kilometrorra. Josu Arkauz Murtzian dago eta 25 urte daramatza preso. Aratz Gomez da gertuen dagoena. Ocañan dago, 513 kilometrorra, eta duela 17 urte dago kartzelan. 15 urte daramatzate Premin San Pedrok eta Txus

Goikoetxeak, lehena Jaenen dago eta bigarrena Sevillan.

Azkenik, Frantziako Estatuan dauden Julen Mendizabal eta Kepa Arkauz presoek osatzen dute zerrenda. Duela hiru urte atxilotu zituzten Frantzian egindako operazio baten, eta Osnyko eta Meauxeko espetxeetan daude, hurrenez hurren.



Atxikimendu zabala izan zuen Arkauzen egoera salatzen ekitaldiak. IMANOL BELOKI

Atxikimendu zabala

Esparru ezberdinetako herritar ugarik babestu zuten martitzeneko agerraldia. Bertan izan ziren, besteak beste, Eva Abuin

Baleikeko zinegotzia, Aitor eta Luis Mari Lopez Rekarte futbolari ohiak eta Xabier Zubizarreta eta Inaxio Azkarragaurizar alkate ohiak.

Zuberoako Eperra ikastolari laguntzeko otarreak salgai

Tokiko produktuz osatutako bi otarreen artean aukeratu ahal izango da, Ahizki (40 euro) eta Irati (52 euro). Nobedade bezala, horiekin batera, ikastolako umeekin grabatutako CD bat ere salduko dute. Eskerak abenduaren 12ra arte egin ahal izango dira.

Aurtengoa kanpaina aurrera eramango den 14. aldian izango da, eta bi helburu nagusi izango ditu; alde batetik, tokiko jakiak ezagutzera eman nahi dira; horretarako, Zuberoako baserrien eta enpresen otarreak osatzen dituzten ekoizpenak eskainita. Bestetik, ikastolaren egoera ekonomikoa hobetu nahi da.

Seme-alaben autonomia sustatzeko hitzaldia

Sei eta hamabi urte arteko haurren burujabetasuna sustatzearren garrantziaz jabetzeko hitzaldia antolatu du Arrasateko Udalak. Mintzaldia azaroaren 22an izango da, Kulturaten, 18:00etan, eta Etxadi familia-psikologia unibertsitate-zentroko kideek hartuko dute hitza.

Hitzaldiak bi bloke nagusi izango ditu: lehenik eta behin, autonomia ohiturak zeintzuk diren, zer dakarten eta hauek garatzeko irizpideak emango dituzte. Ondoren, Aspektu praktikoak landuko dituzte. Besteak beste, lo eta elikadura ohitura osasungarriak eta zaintza pertsonalaren garrantzia.

Monica Toro

Chic Estilistak

"Ilea eta buru-azala zaintzen duen abangoardiako produktu sorta %100 ekologikoa daukagu"

Musakola auzoko Chic estetika zentroak badu beste etatik desberdintzen duen zerbait. Izan ere, kalitate handiko produktu ekologikoak darabiltzate. Eskatu hitzordua: 943 04 10 07.

Esperientzia eta gertukotasuna eskaintzen dute Arrasateko Chic Estilistak-en.

Produktu ekologikoak erabiltzen dituzue. Hala da. %100 ekologikoak diren produktuak darabiltzagu, eta produktuok hemen erosteko aukera ere badago. **Zein onura daukate**

produktuok?

Batetik, alde etikoa dago, ingurumena errespetatzen baitute. Horrez gain, baina, ilea zein buru-azala zaintzen dute eta pH-a babesten dute, ez dutelako kimikorik. Gainera, orrazkera luzarago mantentzen dute. Ingeniaritza tislarra darabilte, azaleko ehunak aztertzen; ondorioz, gorritasunak, azkura, kaspa edota ilea erortzea ekiditen dute. **Bezeroarekiko arretak zelako garrantzia du?** Izugarria. Guk gertuko tratua eskaintzen diegure bezeroei, eta aholkatu egiten ditugu.



Monica Toro eta Nagore Vazquez.

“ Bezeroak aholkatzen ditugu eta gertuko tratua eskaintzen diegu ”

Chic
ESTILISTAK



PROMOZIO BEREZIA

Astelehena: Gizonek eta umeek %10eko deskontua (moztea)

Asteartea: Orraztea eta tratamendua 20 €€

Asteazkena: Metxak eta orraztea: 43 €

Osteguna: Ile-sustraiaren kolorea + orraztea 30 €€

Ostirala: Moztea eta orraztea 30 €€

65 urtetik gorakoentzako %10eko deskontua

25 urterik beherakoentzako %10eko deskontua

Promoio baliagarria, jaiagun bezperetan eta abenduaren 20tik 31era izan ezik.

Astelehenetik asteazkenera: 09:30 - 16:00

Ostegunetan eta ostiraletan: 09:30 - 19:00 | Zapatuetan: 09:00 - 13:00

Tel.: 943 04 10 07 | Antso Abarka 6 | Zigarrola | Arrasate

Sasoiko eta bertako jaki zein postreak azarokoan

Abenduan santamasetako azoka berezia egingo denez, urteko azken baserritarren merkatua egingo da bihar Seber Altube plazan (09:00-14:00); gainera, Debagoieneko Jardunaldi Gastronomikoen barruan, II. Postre Lehiaketa antolatu dute

Jokin Bereziartua ARRASATE

Urteko azken baserritarren azoka egingo da bihar, zapatua, Seber Altube plazan (09:00-14:00). Izan ere, Santamas jaiak direla-eta abenduan ez da hileroko azokarik egongo. Bihar, hamalau postu egongo dira: Arrasateko lau, Debagoieneko lau, beste eskualde batzuetako hiru –artean Bermeoko arrain-kontserbena eta Arabako lautadako produktuena– eta orturako zein sukaldarako lanabesen postuak.

Azaroko azokako bereizgarria izango da Debagoieneko II. Postre Lehiaketa egingo dela. Bi kategoria egongo dira: 18 urtetik gorakoetan bost pertsonak eman dute izena; 12 eta 17 urte artekoetan, herriko gazte txokoetatik, hiru postre aurkeztuko dira. Debagoieneko Jardunaldi Gastronomikoen barruan kokatzen da postre lehiaketa.

Lehiaketa ez profesionala

"Helburua da bertako gastronomia eta garaiko produktuen kontsumoa sustatzea. Horregatik, postre lehiaketan parte hartzeko eskatu da, norberak egiteaz aparte, bertako eta sasoiko osagiduna izatea: hurra, gaztaina, sagarra edota ezta. Postreek osagai horietatik bi izan beharko dituzte, gutxienez. Hortik aurrera, irudimenak irabaz dezala", adierazi du Deba Garaia Garapen Elkarteko Agurtzane Diazek. Gozogintzan profesionala ez izatea izango da beste baldintza bat: "Iaz gaizki-ulertu bat egon zen; gure asmoa da lehiaketa herrikoia izatea".

Lehiakideek 11:00etarako gertu izan beharko dituzte postreak eta 12:30 aldera egingo da sari banaketa. Epaimahaiak hiru irizpide zehaztu ditu postre onena aukeratzeko: zaporea, aurkezpenaren itxura eta originaltasuna. Epaimahaiak sarituen berri eman ostean, postre guztiak dastatzeko aukera egongo da.



Ane Gorosabel Arrasateko baserritarra urriaren 15eko azokan. XABI GOROSTIDI

ZAPOREA, ITXURA ETA ORIGINALTASUNA IZANGO DIRA POSTRE ONENA AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

Biteriko azoka, laster martxan

Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordearen eskaera aintzat hartuz, Biteri plazan azoka txikia jarriko dute zapatuetan; urtebetez egingo da, proba modura. Oraingoan, hamalau saltzaile daude; frutak, barazkiak, kontserbak, hestebeteak eta gozokiak salduko dira, besteak beste. Saltokien kokapenaren zozketa egin ostean, Udalak alegazioak egiteko epea ireki du. Konfirmatzeke badago ere, lehen azoka abenduaren 3an egingo dela aurreikusten dute.

Lanbide Heziketako ikasleak

Lanbide Heziketako ikasleek ere hartuko dute parte azokan; lehiaketarako ez diren postre batzuk eramango dituzte –osagai berberekin– eta zerbitzari lanetan ere arituko dira. "Guretako, oso ekintza aberasgarria da. Jendearengandik jasotzen duten edozein mezu oso positiboa da. Ikasleen artean zozketa egin behar izan dugu, iaz oso gustura egon zirelako. Iazko postreak errepikatuko ditugu, jendeak oso gustura jan zituen-eta", adierazi du Iñaki Olalde irakasleak.

Muzibar eta San Frantzisko arteko planaren lehen emaitzak

Herritarrek informatzeko prozesuak harrera "ezin hobea" izan du orain arte; 332 boto eta 87 ekarpen jaso dira

J.B. ARRASATE

Udalak mahai gainean dituen hirigintza proiektuen artean, garrantzitsuenen artean dago Muzibar eta San Frantzisko elizaren arteko kale zatia berantolatzearena. Proiektua jendarteratzeko, erakusketa bat jarri zen otsailean, eta, jende asko hurbildu zenez, beste bat antolatu zuen Udalak irailera. Bertan, herritarrek euren iritzia eman eta gustuko zuten aukera bozkatu ahal izan zuten. Bada, egunotan aurkeztu dituzte emaitzak; erakusketako bisita gidatuek "harrera ezin hobea" izan dute, 332 boto eta 87 ekarpen jaso dira.

10-A aukerak boto gehien

Azken informazio prozesuan 35 aukera izan ziren ikusgai, horien artean herritar talde batek aurkeztutako *Aramaio erreka ardatz*

proposamena; 180 botorekin, 10-A aukera izan da arrasatearren gustukoena. Aukera horrek jasotzen du, esaterako, Muzibar eta Arbolapeta artean Zarugalde kalea oinezko bihurtzea eta bertatik pasatzea bidegorria; Otalora kalean, Santa Barbarako aldean, sei metroko zabalera duen pasealekua; Arbolapeta inguruan, Kondekuarako eta Monterronerako loturan oinezkoie ematea lehentasuna; Arbolapeta eta San Frantzisko artean oinezkoentzat espazio zabalak irekitzea eta aparkalekuak ahalbidetzea bi aldeetan.

Bideragarritasuna aztertzea

Herritarren parte hartzea eskertu ostean, Udal Gobernuak adierazi du egitasmo hau epe luzean garatzekoa dela: "Orain, aukera guztien bideragarritasuna aztertuko dugu".

ARRASATE IRRATIA



'La del Soto del Parral' zarzuelarako zozketa

Azaroaren 25ean (20:00) eta 26an (19:30) Amaia antzokian ikusi ahaliko den *La del Soto del Parral* zarzuelarako sarrerak zozketatzen dira. Parte hartzeko: 943 25 05 05 edo irratia@goiena.eus. Horrez gain, asteburu honetako bi emanaldien kontakizuna egingo dute irratian protagonistetako bik: Ruth Osinagak eta Mikel Izurrategik.

Niña Coyote eta Chico Tornado, Kooltur-en

Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan, Niña Coyote eta Chico Tornado kontzertua eskainiko dute azaroaren 24an gaztetxean (22:00). Bada, kontzertu horretarako bi sarrera zozketatuko dira egun horretan bertan; parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo mezua idatzi irratia@goiena.eus helbidera.

carrascaladapt

sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA
ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • ARRASATE • Tel.: 943 79 01 82
scarrasc_1@infonegocio.com

DIN DAN DON

ABESTU GABON KANTA
ETA IRABAZI SARI GALANTA

1. FASEA

Azaroaren 18tik
Abenduaren 17ra

FINALA

Abenduaren 23an

Oinarri osoak ikusteko:
centrocomercialgorbeia.com

 Parque Comercial Gorbela

SARIETAN
6.000€
BAINO GEHIAGO
DITUZU ZAIN



Babeslea:

EL CORREO
PARTE DE TI ZURE BAITAN


GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Laguntzaileak:

 Carrefour

 BRICO
DEPOT

 DECATHLON

 Norauto

 McDonald's
I'm lovin' it

 merkala
LUGAROS

 CIMER
el outlet del electro

 BIG
KARTING

 SPORTWELL

 SAGA
STAR

 FARMAZIA

Amaitu da Zaldibarko Futbito Txapelketa

54 urteren ostean, Arrasateko historiaren parte garrantzitsua eta bailara osorako erreferente izan den lehiaketa ez da egingo. Horren orde, formatu berri bat egitea pentsatzen ari dira antolatzaileak, iraupen laburragoa, parte-hartzaile faltagatik

Imanol Beloki ARRASATE

Zaldibarko Futbito Txapelketak agur esan du 54 urteren ostean. Arrasateko historiaren parte garrantzitsua eta bailara osorako erreferente izan da txapelketa hau, eta aurten 55. edizioa ez da jokatu. Horren orde, talde falta dagoenez, formatu aldatuta egitea pentsatu dute antolatzaileak, iraupen laburragoa izango dena, hain zuzen ere. Hala, Gabonak pasa ostean batzartuko dira antolaketa taldeko kideak eta txapelketak izango duen formatu aldatuta zehaztuko dute.

Txapelketa laburragoa

1956an lehenengoz antolatu zuten txapelketa, eta urte batzuetan etenaldiak egin zituzten arren, ez dauka lehen zuen arrakastarik. Duela hogeitau urte inguru 80 taldek hartzen zuten txapelketan parte, baina azken urteetan jaisten joan da parte-hartzea. Iaz, hamar talde izan ziren, eta, horregatik, txapelketa laburragoa egin gura dute –lau hilabetekoa–.

Hala ere, adierazi dute izena emango duten taldeen arabera izango dela txapelketaren iraupena; izan ere, formatu aldatuta honen oinarria da azken urteetan luzatzen joan direla txapelketa zortzi hilabete irauteko, eta luze egiten zela. Arzoari konponbidea emateko, antolakuntzak erabaki du aurten txapelketa ez hastea.

Formatu berriko txapelketa, aldiz, otsailean edo martxoan hasi gura dute, eta San Juan jaien aurretik amaituta izatea da asmoa.

ARRASATEKO HISTORIAREN PARTE GARRANTZITSUA ETA BAILARAN ERREFERENTE



Zaldibarko Futbito Txapelketako partidu bat. IMANOL SORIANO

Helburua, ohitura ez galtzea

Zaldibarko Futbito Txapelketa arduradunek ez dute ohitura galdu nahi, eta, aldaketak egin arren, eta betiko Zaldibarko Futbito Txapelketa ez izan arren, parte-hartzaileen konpromisoa

nahi dute formatu berrirako. Hala, Gabon osteko bileraren ostean –eguna zehaztu barik dago– dei egingo diete jokatu nahi duten bailarako herritar guztiei txapelketan izena emateko, eta bide berriari ekiteko.

"Taldea nahikorik ez badago, ez da antolatuko"

MIKEL VIGUERA
ANTOLAKUNTZAKO KIDEA

Txapelketako antolakuntza taldeko kide da Viguera; esan du egin beharreko aldaketa izan dela.

Nolakoa izango da formatu berriko txapelketa?

Aurreko edizioak baino laburragoa izango da.

Hasiera noiz izango den ez dakigu, oraingoz, taldeen arabera izango da; seguruenik, otsailean edo martxoan hasi eta bukatu betiko moduan, San Juan jaien aurretik. Horrez



GOIENA

gain, txapelketaren izena ere, agian, aldatu dezakegu...

Zer dela-eta aldaketa?

Azken urteetan partaidetza jaitsi dalako izan daiteke, agian konpromiso faltagatik... baina hala ere, ez dugu ohitura hau galtzerik nahi.

Taldeen falta nabari da?

Bai, urteak pasa ahala jaisten joan da. Gabonen ostean, izena emateko epea zabalduko dugu, baina talde nahikorik ez badago, ez da antolatuko.

Endika Donnay: "Denbora jaitsita, iaz baino hobeto"

Debagoiendar azkarrena izan da korrikalari arrasatearra Behobia-Donostia lasterketan; pozik da lortutakoarekin

I.B ARRASATE

2016ko Behobia-Donostia lasterketan gizonetako debagoiendar azkarrena izan da Endika Donnay (1:07:58) arrasatearra. Iazko marka hobetu egin du Arrasateko korrikalariak, eta pozik agertu da egindako lanarekin.

Donnay arrasatearrak zazpigarren aldiz egin du Donostiako lasterketa, eta denbora hobetza pozgarria izan dela adierazi du: "1.08 denbora justu-justu jaitsti dut, eta aurten sentsazio hobea izan dut iazko lasterketarekin konparatuta. Izan ere, iaz hankako minarekin nengoen, eta maila honetan ez nuen espero egotea. Hala ere,

ondo egin dut proba, jendearen animoak izan ditut, giro aparta izan da, eta pozik nago egindako lanarekin".

Deskantsua eta prestaketa

Datorren urtera begira, Behobia-Donostia lasterketarako entrenatzen jarraituko duela adierazi du korrikalari arrasatearra, baina beste helburu batzuk ere badituela buruan: "Orain deskantsatzea tokatzen da, eta ondoren, gogor entrenatzen hasiko naiz, egingo ditudan hurrengo lasterketetan fuerte egoteko. Betiere, helburuak markatzen ditut; hala ere, disfrutatzea da garrantzitsuenak...".



Endika Donnay –eskuinekoa– korrikalari arrasatearra metara sartzen. IMANOL SORIANO

Bizkar estiloa lantzeko aukera Arrasasoi-ren eskutik

Arrasateko Udaleko Kirol Zerbitzuaren eskutik, Arrasasoi ekimenak lehen aldiz igerilekura eramango du ikastaroa. Bizkar estiloa hobetzeko kurtsoa antolatu dute, eta, hanken eta besoen mugimendua hobetzeko, gorputzaren posturan horizontaltasun handiagoa lortzeko eta arnasketa arazoak ekiditeko balioko du.

Izena emateko abonatu izan behar da, eta harreraren izena ematearekin nahiko izango da. Hamar pertsonako taldeetan banatuko da ikastaroa, eta 30 minutuko saioak egingo dira: azaroaren 25ean, 12:00etan, azaroaren 28an, 20:15ean eta azaroaren 30ean, 20:15ean.

MU Saskibaloi taldeak liderraren aurka jokatu du

EBA mailako MU Saskibaloi taldeko mutilek Iguatorrio Cantabria Estela taldearen aurka jokatu dute zapatuan, 17:30ean, etxetik kanpora. Liderrak dira kantabriarrak, baina, hala ere, irabaztera joango direla adierazi du Josu Larreategi entrenatzaileak: "Aurkarietako ligako sei partidua irabazi dituzte, ACB ligan aritutako jokalarik bat dute... Guk, ordea, lesioa ditugu jokalarik asko, eta ez da samurra izango garaipena lortzea. Hala ere, irabaztera joango gara". Aurreko jardunaldian, gainera, Imanol Zeziaga ere lesionatu egin zen, eta partiduan eragina izango duela adierazi du Larreategi.

Zarzuela ikuskizunak ikusmira piztu du

Izaskun Murgia elkarte lirikoak *La del Soto del Parral* zarzuela eskainiko du bihar Amaia antzokian, 19:30ean hasita. Elkartek egin duen obra zailenatariko bat da. Biharko emanaldirako sarrerek salgai jarraitzen dute 18 euroko prezioan.

Ibon Carmona ARRASATE

Bihar, hilabeteak entseatzan ibili ostean, Izaskun Murgia elkarte lirikoak *La del Soto del Parral* zarzuela antzetzuko du Amaia antzokian.

Martxoaren ezkerentzat

Elkarteko kideek atzo eta astelehenean egin zituzten azken entseguak. Horietan, orkestrarekin batera aritu ziren, eta, azkenekoan, jantziekin eta makillaturik entseatu zuten. Tere Gonzalez elkarteko zuzendariaren esanetan, *La del Soto del Parral* zarzuela "zaila bezain ederra" da, eta, arrazoi horregatik, ordu asko sartu behar izan dituzte



Izaskun Murgia elkarte lirikoko kideak azken entseguetako batean. NAROA ELORTZA

entseguetan. "Azken entsegu orokorrak urtean zehar egindako esfortzuaren isla dira; izan ere, hauek nahiko ongi joan

dira. Lehenengo entseguak martxoan hasi genituen, eta irailetik aurrera, orkestrak ere hartu du parte".

Obra konplikatu

La del Soto del Parral zarzuela arloko obra ezagunetariko bat da, eta 1927an eskaini zuten lehen aldiz. Istorioa XIX. mende erdialdeko Segovian kokatzen da. Barkalari komikoaren papera egingo duen Mikel Izurra-tegiren esanetan, zarzueletan ohikoa izaten den amodiozko trama bat kontatuko da, paraleloki, istorioari beste ukitu bat ematen dion ikuspegi komikoa ere landuta.

Zazpi izango dira taula gainera igoko diren bakarlariak. "Beste zarzuela batzuekin alderatuta, bakarlari kopurua txikia da, eta, ondorioz, buruz ikasi beharreko paperak luzeagoak dira. Hor uste dut egon daitekeela obraren zailtasunetako bat", azaldu du Izurra-tegik. "Nire kasuan, gehiago kezkatzen nau komikotasunak publikoarengan sor dezakeen erreakzioa; izan ere, barregarriegi geratzeko arriskua daukat", gaineratu du. Soprano nagusia izango den Ruth Osinagaren ustez, inoiz egin duen zarzuela zailena da: "Lehen entseguetan, ez nintzen gai partitura jarraitzeko; izan ere, musikalki zar-

zuela nahiko konplexua da, opera kutsua duena".

Lantalde handia

Abeslariak, musikariak eta kolaboratzaile ezberdinak kontuan hartuta, 120 bat pertsonako lantaldea osatzen dute. Osinagaren esanetan, entseguetan giro oso ona egon da. "Azkenean, ordu asko sartu ditugu, eta horrek elkarren artean hobeto ezagutzeko balio izan digu". Horrez gain, gazteen presentzia gero eta ugariagoa dela adierazi du.

Sarrerek salgai

Biharko ikuskizunaz gain, zapatuan eta hilaren 25ean eta 26an egingo diren saioetarako sarrerek, Amaia antzokiko leihatilaz gain, Arrasateko Udaleko eta Kutxabank-eko webguneetako *on line* leihatiletan eros daitezke.

Zozketa solidarioa

Lau emanaldietan, Harreman gobernu kanpoko erakundeak Rafa Zubiaga eta Fernando Martinez artisten koadro bana eta bi otarre zozkatuko ditu. Errifek euro bateko prezioa izango dute.

RIPeko kideen omenaldia

Pasa den zapatuan, bi urtean behingo ohiturari utsita, RIP taldeko kideak omentzeko jaialdi berezia egin zuten. Aurten, Karlos eta Portu omentzeaz gain, 2014an hildako Jul ere gogorarazi zuten. Taula gainean, Ezin Izan, Perlata eta TxeRIPkumeak taldeak aritu ziren. Hain zuzen ere, adin askotariko musikazaleek gaztetxea bete zuten.



IMANOL SORIANO

Santa Zezilia eguna ospatuko du Arrasate Musikalek asteburuan

Azaroaren 22an Santa Zezilia eguna dela eta, Musikarien Eguna ospatuko du Arrasate Musikalek. Ospakizun horien baitan, bi kontzertu antolatu dituzte.

Bihar, 18:30ean hasita, musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Kulturaten. Biolina, flauta, pianoa, oboea, txistua, akordeoia eta tronpeta izango dira ikusi eta entzun ahal

izango diren instrumentuak. Ikasle gehienek bakarkako emanaldiak eskainiko dituzte, baina, horiez gain, Suzuki metodoa erabiliz biolina jotzen ikasi duten haurrek, txistulariek eta zurezko haize-instrumentuak jotzen dituztenek zenbait abesti eskainiko dituzte taldean.

Domekan, berriz, 12:30etik aurrera, Arrasate Musikaleko bandak egun hauetan ohiko bihurtu den Santa Zezilia kontzertua eskainiko du Seber Altube plazan.

emaús
GIZARTE FUNDAZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL

Enkante con
Encanto
2016

Gabon hautetarako opari original eta solidario bat
Urtean zehar jasotako objektu bereziak

EMAÚSEKO
ENKANTE
SOLIDARIOA

azaroaren 21etik 26ra
EkoCenter Arrasate Bidekurtzeta 2

www.emaus.com
bilketak 943 630 999



Osoko bilkurako aulki guztiak bete ziren gonbidatuen esperientziak entzuteko. XABI GOROSTIDI

Amerikako hizkuntza gutxituen iturritik edaten

Garabidek eta Udalak antolatuta mahai ingurua egin zuten martitzenean, kitxua, kaqchikel eta aimara hizkuntzen errealitatea ezagutzeko. Babes instituzional gutxiago izan arren aurrera egiteko duten gogoia transmititu zuten hizlari gonbidatuek

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Asteartean egin zuten Euskara-ren Egunaren baitan antolatutako hitzaldi zikloen lehen saioa, Amerikako hizkuntza gutxituen egoera ezagutzeko xede zuena.

Hasieran entzule gutxi etortzeko beldurra zegoen arren, osoko bilkuran jarritako aulki guztiak bete ziren lau gonbidatuek esateko zutena entzuteko. Ekuadorko kitxua hizkuntzaren ordezkari gisa Maria Vennancia eta Apak Yarik Perugachi aritu ziren, Boliviako aimara hizkuntzaren egoera azaltzeko Filomena Nina eta Guatemalako kaqchikel hizkuntzaren errealitatearen berri emateko, berriz, Olga Sitan.

Babes instituzionalik gabe

Euren buruak aurkeztu zituzten, norik bere hizkuntzan, eta, ondoren, banan-banan azaldu zuten euren egoera soziolinguistikoa-ren gaur egungo argazkia zein den. Kasu guztietan, argi geratu zen babes instituzional urria duten hizkuntzak direla.

Erakundeek gutxietsi egiten dituzte, eta, ondorioz, ez daukate hezkuntza sisteman presentziarik. Egoera horretan bizirik irauteko zaillasunak areagotzen zaizkie, eta hori nabaria da gaur egun bizi duten egoeran.

"Nire amak kitxua hutsean hitz egitetik, nire semeek uler-tu bai baina ez hitz egitera pasa

gara", azaldu zuen Vennancia. Hala ere, euren hizkuntza bizi-rik mantentzeko konpromiso irmoa azaldu zuten. "Nire sus-traiak kaqchikelak dira eta nire fruituak kaqchikelak izango dira", azaldu zuen Sitanek.

Mintzaldi interesgarria osatze-ko, Manex Agirrek eta Xabi Igoak bertso saiotxoak egin zuten.



OLGA SITAN MICULAX
KAQCHIKEL

"Zuen kasuan, identifikazio maila oso altua duzue hizkuntzarekin, eta hori ezinbestekoa da bizirauteko".



APAK YARIK PERUGACHI
KITXUA

"Kontzientzia da behar duguna. Hizkuntza gure ama da, eta, gaixorik badago, semeon ardura da ama ondo zaintzea".

Bizente Goikoetxeari buruzko liburuaren aurkezpena gaur

Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzi du, eta mahai ingurua egingo dute gonbidatu bereziekin

X.G. ARAMAIO

Konpositore handiaren heriotzaren 100. urteurrenean, hainbat ekintza antolatu dira Aramaion, Goikoetxea zein zen eta zein ondare utzi zuen azpimarratzeko.

Ildo horretan, beste urrats bat egingo dute gaur arratsaldean, 18:30ean Kultura Etxean izango den ekitaldian. Bertan Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzitako *Bizente Goikoetxea, Aramaio*ko musikari unibertsala. 1854-1916 liburuaren aurkeztuko dute eta ondoren mahai ingurua

egingo dute musika alorreko gonbidatu bereziekin. Bertan izango dira Sabin Salaberri musikaria, Floren Unzueta organo jolea eta Rafael Mendiadua konpositorea.

Aramaio Udalak gustura dago orain arte egin diren ekintzekin: "Aramaion eta Araban Bizente Goikoetxea zein izan zen eta zergatik den gure herriko pertsonaia historiko garrantzitsua jende ezberdinari erakustea eta haren musika lanak han eta hemen zabaltzea lortu dugula uste dugu".

Telebista kritikatzeko duen antzerkia domekan

Itur-zuri Emakumeen Elkarteak antolatuta *La caja tonta* antzez-lana ikusteko aukera izango da domekan, 19:00etan, Kultura Etxean.

Eskoriatzako Amuska Emakumeen Elkarteak prestatutako antzerkia da, eta telebistak gaur egun gizartearen duen eragina eta sortzen duen menpekotasuna kritikatzeko ditu.

Umorea baliatuta, edukirik gabeko telezabor programen aurka egiten du obra honek. Hauek ikusleen pentsamendua baldintzatzen dutela ikusirik, horren aurkako iraultzara dei egiten du.

Ekainean estreinatu zuten Eskoriatzan, eta sarrera guztiak agortu zituzten. "Ahozko hainbat gomendio eta kritika entzun ditugu, eta obra Aramaioa ekartzeko aproposa zela erabaki genuen", adierazi du Mertxe Elorzak, Itur-zuri elkartearen kideak.



MAIALEN BALLINA

'Zeruan kolore anitz' irabazle

Aramaio Udalak lehen aldiz antolatutako argazki lehiaketaren lehen sariaren irabazlea da irudian daukazuena. Aramaio zeruak tonalitate ikusgarriak izan ditzakeela ikusten da bertan. Maialen Ballina da egilea eta 200 euroko jaso du lehen postuan geratzegatik. 75 argazki aurkeztu dira eta horiekin etxez etxe banatuko den egutegia osatuko dute.



Behin txapelketa amaituta, finaletan parte hartu zuten pilotarien talde argazkia. ARAMAIOKO PILOTA ELKARTEA

Bostetik bi txapel lortu dituzte herriko pilotariek

Pasa den zapatuan jokatu ziren III. San Martin Pilota Txapelketako finalak eta Aramaioko pilotariek zortzi finaleratik bost jokatu zituzten. Infantil A eta alebin B mailatan txapelak lortu zituzten eta antolatzaileak pozik txapelketak emandakoarekin

Xabi Gorostidi ARAMAIO

III. San Martin Pilota txapelketa pasa den zapatuan amaitu zen, eta bi txapel utzi zituen Aramaioko pilotarientzat. Ander eta Xabi Errasti lehengusuak alebin B mailako irabazleak izan ziren Legutioko Cariñanostarrei 18-8 irabazita. Lehia bizia izan zen, baina lehengusuek egindako lan onak saria izan zuen.

Infantil A mailan Asier Del Campo eta Julen Olaizola aramaiorrek eskuratu zuten txapela. Finalean Larrieta eta Estibaliz bikote lakuarra izan zuten aurkari. Hasieratik agindu zuten partiduan eta nagusitasun osoz gailendu ziren 18-3ko markagailuarekin.

Aramaiorrek jokaturako beste hiru finaletan ez zuten txapela janzterik lortu. Benjamin B mailan Iglesiasek eta Garciak ez zuten aukerarik izan, eta amore eman zuten 18-1 Arruiz eta Rivera Lakuako bikotearen aurrean. Benjamin A mailan, lehia bizia izan zuten Ruizek eta Fernandezek, baina amaieran 18-14 galdu zuten Vicario eta Reinaldoren aurka.

Alebin A mailan Arriolabengoak eta Herrartek aurkari latzak izan zituzten. Sanchez eta Escuzak Laudioko bikoteak maila aparta erakutsi zuen partidu hasieratik, eta ez zien euren jokoa egiten utzi. Azkenean, audioarrak garaile 18-3.

Antolatzaileak pozik

Txapelketa irailan hasi zen, eta tarte horretan, Arabako pilotari gazteak erakarri ditu astebururo Aramaiora. "Euskal Herrian gazte mailan dagoen txapelketarik luzeenetako izango da, luzeena ez bada", adierazi du Josu Olaizolak, Aramaioko Pilota Elkarteko kideak.

"Urtetik urtera jende gehiago erakartzen du eta pozik gaude erantzunarekin. Aurtengo finaletan frontoia erdi beteta egon da, eta pilotarien familia eta lagunak ez direnak ere gerturatu dira". Antolaketa lanak luze joan diren arren, hurrengo edizioa antolatzeko prest azaldu da Josu Olaizola.

Formazio saioa indarkeria sexistari aurre egiteko

Goebelaldeko Kuadrillako begiraleei zuzenduta dago eta prebentzioan trebatzea izango da helburua

X.G. ARAMAIO

Goebelaldeko Kuadrillak begiraleei zuzendutako formazio saioa antolatu du indarkeria sexistari buruz kontzientziatze-ko. "Indarkeria sexista gure jardueran, aisialdian eta hezkuntzan landuko dugu eta gazteekin prebentzioa nola egin aztertuko dugu. Horretarako, bidelagun izango dugu *Beldur Barik* programa eta honek proposatzen duen metodologia. Horrela, datozen urteei begira, Goebelaldeko Kuadrillako gazteek *Beldur Barik* prozesuetan parte har

dezaten", azaldu du Ekaitz Diaz de Garaioak, Kuadrillako presidentea, prentsa ohar bidez. Saioa azaroaren 24an izango da, 16:00etatik 20:00etara, eta, konfirmatu gabe dagoen arren, ziu-rrenik, Murgian izango da. Interesdunek deitu 945 430 467 telefono zenbakira.

Orri-markagailuen lehiaketa

Goebelaldeko Kuadrillak orri-markagailuak sortzeko edo diseinatzeke lehiaketa antolatu du. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 12a da.

Bihar egingo dute Gantzagako jaien errepikapena

Aurreko asteko sanmelixenak ospatu ondoren, jaien errepikapenaren txanda izango da bihar.

Kanpai errepikekin eta etxafuegoen jaurtiketekin hasiko dute jaiak 14:00etan. Ondoren bazkari musikatu egingo dute Sei Pistols eta Trabuko Bat taldeen eskutik, eta 30 lagun inguruk eman dute izena.

Zigoitiko Mairu abesbatzaren emanaldia bihar

Arabako Foru Aldundiaren *Araba Kantan* programaren baitan, Zigoitiko Mairu abesbatzak kontzertua eskainiko du zapatuan, 19:00etan, Aramaioko Kultura Etxean.

Emakumezkoak eta gizonekoak dituen koru hau 2008an jaiotzen Jesus Miguel Etayoren zuzendaritzapean eta gaur egun 39 partaidek osatzen dute.



NIRE USTEZ

ANDERE ARRIOLABENGOA

Abereak eta abelburuak

Egunero Kurtzetan gora eta behera ibiltzen garenok, Albinako pantanoa gurutzatu ohi dugunok, paisaia paregabeaz gozatzeko aukera izaten dugu. Amaigabeko basoak, ametsetako pasadizoak eta ipuinetako bidezidorrak. Batez ere udazkenean, zuhaitz lotien hostoek koadroa urre kolorez margotzen duten garaian.

Baina dena ez da eltze-urre paradisuan. Egunero ibilbidea egiten dugun gidariak nazkatuta gaude abereekin topo egiteaz. Ez naiz orkatz eta basurdez ari, izen-abizenak dituzten behi eta behorrez baizik. Helburua ez da inori errurik botatzea, ardurak exijitzea baizik. Errepideak baditu berezko arriskuak eta biderkatu egiten zaizkigu inongo premiarik gabe.

Azken aste honetan egunero gurutzatu naiz beraiekin. Bai jabeek eta baita dagozkien instituzioek ere, bakoitzari dagokion neurrian ardurak hartzeko ordua da. Kaltebide honekin amaitzeko ordua da. Inork gertatzerik nahi ez duen ezbeharra gertatuz gero, nor egingo da erantzule?

III. San Martin Txapelketako finalerako emaitzak

A Benjaminak	Ruiz-Fernandez (Aramaiio)	Vicario-Reinaldo (Laudio)	14-18
B Benjaminak	Arruiz-Rivera (Lakua)	Iglesias-Garcia (Aramaiio)	18-01
A Alebinak	Arriolabengoa-Herrarte (Aramaiio)	Sanchez-Escuza (Laudio)	07-18
B Alebinak	Cariñanos-Cariñanos (Legutio)	Errasti-Errasti (Aramaiio)	08-18
A Infantilak	Olaizola-Del Campo (Aramaiio)	Larrieta-Estibaliz (Lakua)	18-03
B Infantilak	Loizaga-Rio (Legutio)	Picon-Escuza (Laudio)	03-18
A Kadeteak	Larrazabal-Alava (Amurrio)	Muguruza-Yuste (Laudio)	22-16
B Kadeteak	Saez-Amondo (Laudio)	Esnaola-Arambarri (Lakua)	19-22

ITURRIA: ARAMAIOKO PILOTA ELKARTEA



Iristu gazte taldeko hainbat kide joan den martitzenean, abenduaren 3ko egitaraua gertatzeko lanetan. MIRARI ALTUBE

Iristu gazte taldea sortu da Loramendiren bueltan

Abuztu ingurua ezker dabilta lanean 15 eta 16 urte arteko zortzi bat neska-mutil euskarari bultzadaxo bat emateko asmoarekin, eta azken asteotan Euskararen Nazioarteko Eguneko egitaraua gertatzen jardun dute buru-belarri

Mirari Altube ARETXABALETA

Hainbat urtetan saiakerak egin ostean aurten sortu da gazte taldea Loramendi elkartearen. Iristu jarri diote izena, *Iristu, euskera piztu!* hain zuzen ere, eta zortzi lagun hasi dira elkar-tzen horren bueltan.

"Loramendi eta herriko gazteen artean zubi lanak egiteko asmoarekin sortu da, gazteen artean erreferente izan eta euskaltzaletasunera erakartzeko helburuarekin", jakinarazi du Martin Berrizbeitiak, Loramendiko dinamizatzaileak, eta gaineratu du: "Ez da aisialdi talde bat; izan ere, euskararen aldeko ekintzak antolatuko dituzte autonomia-ekin eta autofinantzatuta". Hain zuzen Berrizbeitiak dinamizatzen du taldea eta hari lagun egin ohi dio gaztelekuko begirale den Jone Ojeak. 15 eta 16 urte arteko zortzi gaztetxok osatu arren taldea, ateak zabalik dituztela edonorendako jakinarazi dute: "Giro lasaia eta euskalduna topatuko du; nork bere ideiak

proposatzen ditu eta guztiak errespetatzen ditugu", dio Lur Garai taldekideak.

Euskararen Nazioarteko Eguna Azken asteotan lan handia izan dute; izan ere, abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Eguneko ekitaldiak zehazten dabil-tza. Egun osoko egitaraua gertatu dute ordurako.

Jai giroak eta aldarrikapenak bat egingo dute egun horretan, eta egitarauko *Gora euskara!* erronka nabarmendu gura dute Iristuko kideek: "Euskararen aldeko leloa duen zapia hartu, mendira igo taldeka (gutxienez hiru lagun) eta argazki polit bat atera beharko da han. Jasotako argazkien artean saria izango dute originalenak eta tontorrik garaienean ateratakoak". Parte hartzeko aurrez izena ematea komeni da (taldearen izena, partaideak eta harremanetarako telefonoa) honako helbide honetara idatzita: euskara@loramendielkartea.eus.

Egitaraua

Abenduaren 3rako, Euskararen Nazioarteko Egunerako, Iristuk gertatutako egitaraua.

- **10:00** *Gora euskara!* erronkaren hasiera.
- **12:30** Erronkaren bukaera eta hamaiketakoa.
- **13:00** Bertso saioa, Lekaixoka bertso eskolaren eskutik; bertsolariak: Arkaitz Oiartzabal *Xamoa* eta Oihana Bartra.
- **19:00** Batukada-poteoa Zaparrada taldearekin udalaxe zaharretik abiatuta.
- **22:00** Kontzertuak. Taldeak: Idoia eta Sara; Atsekabe; eta Txerrikumeak.

'Argazkizkiak' lehiaketa deitu du Loramendik, bosgarrenez

Idatzitako testu bat eta horri lotutako argazki bat aurkeztu behar dira; azken eguna abenduaren 9a da

M.A. ARETXABALETA

Bosgarrenez deitu du Loramendi elkarteak *Argazkizkiak*, helduen literatur lehiaketa, eta oraingoan, gaia izango da bel-durra. Idatzitako testu bat aurkeztu beharko dute parte-hartzaileek, edozein generotakoa –poesia, bertsoa, ipuina...– eta harekin zerikusia duen argazki bat. Horretarako azken eguna abenduaren 9a da.

Argazkiak 30x20 zentimetroko neurria izango du eta testua DIN-A4an eraman beharko da. Biak kartazal batean sartuta

utzik dira Loramendin, barruan egilearen datuak dituela.

Loramendiko kultura lan taldeak osatuko du epaimahaia eta baloratuko du argazkiaren eta testuaren arteko lotura: "Lan bat izango da osotasunean". Sari banaketa ekitaldia abenduaren 15ean egingo dute, 18:30ean, Loramendin bertan. Hiru lan onenak sarituko dituzte; hirurek jasoko dute Errigorako otarra eta horrekin batera bonu bana: lehenengoak 100 eurokoa; bigarrenak, 60 eurokoa; eta hirugarrenak, 40 eurokoa.



MIRARI ALTUBE

Hasi dira skate parkea egiten

Kiroldegi aurreko zelaian, Markole auzoan, hasi dituzte skate parkearen lanak. Contratas FER SL enpresa dabil horretan, eta, eguraldiak laguntzen badie, hilabeteko epean bukatuta izango dituzte. 77.978 euroko kostua dute, eta Aldundiak 25.000 euroko laguntza eman du. Gazteek "behin eta berriz" eskatu duten kirol instalazioa dela jakinarazi du alkateak.

Zientzia Astea egingo dute aurten ere Kurtzebarri eskolan

Goiena komunitatea

Kurtzebarri eskola / ARETXABALETA

Iazko arrakasta ikusita, aurten ere Zientzia Astea antolatu dugu Kurtzebarri eskolan, irakasleek eta Gurabarri guraso elkarteak elkarlanean. Eskolako orduetan, irakasleekin egingo dituzte zientziarekin lotutako esperimentuak, eta, eskolaz kanpo, tailerrak antolatu dira, gurasoak bidera-

turik, Haur Hezkuntzako ikasleentzako zein Lehen hezkuntzakoentzat. Aste berezi honi, amaiera emateko, larunbatean Eureka zientzia museora egingo dute irteera eskolako familiek.

Hainbat helburu landuko dira; zientziarekin lotutako teoria ezberdinak, eta beraien praktika ikasteaz gain, mundu interesgarri honetan beraien ezagupenak zabaltzeko aukera ematen diegu. Aukera ezin hobea da, eskola komunitate guztia elkartu eta elkarrekin zientziaz gozatzeko.

Irabazteko zer egin gakoa duen futbol taldea

Arizmendi/UDako senior mailako futbol taldeak bihar jokatu du lehen bueltako azken partidua eta guztiak irabazi ditu orain arte; azkena, baina, ez da nolana hikoia: Mondraren aurkako derbia, hain zuzen ere. 11:30ean da, Ibarra futbol zelaietan

Mirari Altube ARETXABALETA

Sailkapen buruan dago Arizmendi/UDA, 24 punturekin, lehen buelta bukatzean dela. Hortaz, jokatuak partidu guztiak irabazi dituzte. Hori gutxi ez, eta 2014ko urtarrila ezker ez dute partidurik galdu etxean. Bolada horri eutsi gura dio taldeak eta lehen bueltako azken partidua ere irabazi gura du: Mondraren aurkako derbia, hain zuzen ere. Bihar, zapatua, jokatu dute, 11:30ean, Ibarra futbol zelaietan.

Abuztua ezker lanean

Esti Loiti *Titu* arrasatearrak eta Tito Etxeandia aretxabaletarren hartu dute taldearen gidaritzaren aurten. Denboraldi polita egiten dabilta, baina atzean lan handia ere badago: "Emaitzei begiratu partidu asko samurrak izan direla pentsa lezake norbaitek, baina gertutik jarraitu gaituztenek badakite partidu batzuk kostata atera ditugula aurrera", jakinarazi du *Titu*-k, eta gaineratu: "Taldea kalitatea du, baina lanean ere ez da atzera gertatzen. Abuztua ezker gabilta lanean, ligak ez du etenik izan eta jokalariek ondo erantzuten diote eskatutakoari. Kalitateak lagundu ez duen partidu horietan aurretik egindako lanak lagundu izan digu".



Mondraren aurka jokatuak partidu, aurre-denboraldian. MIRARI ALTUBE

Ane Garcia kapitaina taldeko beteroenetakoa da; dagoeneko hamabi bat urte daramatza futboleko jokatzeko: "25 urte ditut eta beteroa naiz, hori ez da gertatzen mutilen kasuan", dio. Hain zuzen, gogoan du ia hiru urte direla etxean partidurik galdu gabe: "Galdutako azkena Añorgaren aurka izan zen". Gustura dago egiten dabilta denboraldiarekin, nahiz eta jokalarikopuruari dagokionez justu ibili: "Ez gara asko, baina indartsu gaude, eta horri esker goiko postuetan".

Derbirako "gogotsu"

Mondraren aurkako derbia dator orain, eta hori ere irabaztea da helburua. Hala ere, argi dute ez dela samurra izango: "Halako partiduak izan ohi dira jokatzeko zailenak", dio entrenatzaileak. Garciak derbi asko bizi izan ditu eta gogotsu dago: "Sasoi baten maila ezberdintasun handia zegoen, eta gu beti atzetik ibiltzen ginen. Orain parekatuta gaude eta emozio handiagoa dago", dio, eta argi du zer gura duen: "Irabaztea, noski". Eta zaleei dei egin diete harmailak berotu ditzaten.

"Kalitatea dago taldean, baina lan handia ere bai emaitzen atzean"

ESTI LOITI 'TITU' ENTRENATZAILEA

Mondrako jokalarik ohiak urte asko egin ditu futboleko urrutik, eta aurten, entrenatzaile lanetan hasi da.

Zer moduz futbolerako itzulera?

Oso gustura. Urte asko izan dira futboleko kanpo, baina harra beti geratzen da hor. Gaztetxoek talderen bat hartzea pentsatuta nuen, baina eskaintza hau iritsi zitzaidan eta pozik nabil.

Taldea dagoeneko osatuta zegoen; zelakoa da?

Talde heldua eta kalitate handikoa. Ni iritsi nintzenerako hori bazegoen, eta orain saiatzen gabilta geroz eta exijentzia handiagoa izaten.

Orain arteko partidu guztiak irabazi dituzue, hori ez da ohikoa...

Kalitatea egon arren, lana ere badago horren atzean; lan handia, gainera. Astean hirutan entrenatzen gara, eta jokalariek bikain dabilta erantzuten.

Eta hori, justutxo ibili arren jokalarikopuruari dagokionez, ezta?

Hori da; azken urteotako arazoa da, antza, nik gertutik ez jarraitu arren. Egubakoitzetan partidurako jokalarikopuruari beharra gogorra da gero. Arizmendi/UDAn dugu jende falta, baina Mondran ere bai; hortaz, zerbait pentsatu beharko dugu. Hori epe ertain edo luzera begira izango da.



M.A.

Bihar derbia; ez da edozein partidu, ala?

Ez, eta ez da partidu samurra izango, burua hotz mantentzea kostatzen da halakoetan.

Aukera polita da zaleak gerturatzeko eta seniorren taldea ezagutzeko.

Hori da. Poliki-poliki gehiagora goaz eta gure mailan ere partidu politik ikus daitezke. Hortaz, beldur gabe, gerturatu, zaleok, ondo pasatuko duzue.

Egunen baten tokatuko da gaitzea...

Bai, bai, eta jokalariek ere hitz eginda daukat. Edozein unetan iritsiko da partidu tonto bat eta jausi egingo gara.

Baina ez da ezer gertatuko. Nik jokalariek eskatzen diet entrenamenduetan egiten den lana egiteko partiduz partidu.

Bide honetatik jarraituta, gora begira jartzeko moduan zaudete.

Pausoz pauso guztia. Igoera fasea jokatu dugu lehenengo, eta gero zer? Ondo pentsatu behar. Izugarriko ilusioa dago, baina esandako moduan, jokalariek justu gabilta eta...

ALen grafiti koloretsua

Aretxabaleta Lanbide Eskolako tailer bateko atean grafiti koloretsua egin dute automozio ikasketak egiten dabilta bi ikasleek, Aitor Lizaraburuk eta Dani Moralesek. "Proposatuta zitzaizkizun ate hutsa kolorez betetzeko eta ikasketeko ikusgarritasuna hobetzeko". Ikasketxearen izena eta ematen diren moduluekin zerikusia duten irudiak marraztu dituzte.



ARETXABALETA LANBIDE ESKOLA

1956an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute azaroaren 26an

Muru Alde gastronomia elkartean bazkaltzeko elkartuko dira datorren azaroaren 26an, zapatua, 1956an jaiotako kintoak. Izena emateko epea zabalik dago eta Gurea eta Bedarreta tabernetan egin dezakete interesatuek, 10 euro ordainduta. Horretarako azken eguna hilaren 21a dela gogorarazi dute antolatzaileek, astelehena.

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Jaiki elkarteko kideak dantza saio batean. MIRARI ALTUBE

Hiru orduko dantzaldia, norbera askatzeko bidea

Ecstatic Dance saioa antolatu du Jaiki elkarteak azaroaren 26 goizerako eta Oskar Estanga DJak bideratuko du; norberak, era librean, barruan duen guztia ateratzeko dantzaldia izango da; hortaz, ez da inolako esperientziarik beharko

Mirari Altube ARETXABALETA

Ez da barbarik egingo, ez da kontzientzia onetik ateratzen duen substantziarik hartuko eta errespetua eskatuko da, norberari eta ingurukoari. Hiru ezaugarri horiek dituen dantza saioa, Ecstatic Dance, egingo dute azaroaren 26an, kuartelean, 10:00etatik 13:00etara bitartean. Jaiki elkar-

teak antolatu du eta Oskar Estanga DJak bideratua izango da.

Norberaren "bidaiatxo"

DJ formatuko musika eskainiko du Estangak, eta hainbat ezaugarri dituela horrek argitu du: "Gabrielle Rothe musikariak proposatutako bost erritmoetan dago oinarritua, motelenetik

hasi eta kaotikora arte. Hark zioen bizitzak berak dituela mugimendu horiek eta pertsonak ere mugimendu guztiak behar dituela orekatua izateko. Hortaz, erritmo horietatik pasatuko den musika egongo da". Beroketa ariketak eginda hasiko dute saioa, eta gero, dantza libreari emango diote bidea.



OSKAR ESTANGA EZKURDIA
DJ-A

"Mugitzea gustuko duenak lagunarte jatorrean dantzan egiteko leku aproposa du. Mugitzeak sekulako plazera ematen du eta norberaren barruarekin topatzeko bidaia bat izan daiteke. Hortaz, gustura egoteko aitzakia bat besterik ez da Ecstatic Dance saioa. Behin lehen pausoa emanda, norberaren lotsak eta beldurrak alboratuta, oso erraz ateratzen den zerbait da, musikak eraman egiten gaituelako".



MAIER ETXEBARRIA GUTIERREZ
JAIKI ELKARTEKO KIDEA

"Ez da ikastaro bat, ezta inprobisaketa tekniken azalpen bat ere, dantza saio bat baizik. Banaka egin ahal izango da, bikotearekin edo taldean, guztiz libre da. Eta teknikarik ez denez landuko ez da esperientziarik behar. Parte hartuko dutenek saiotik pozik alde egitea gurako genuke, gorputzarekin eta musikarekin gozatu ederra hartuta eta nahikoa dantza egin izanaz aseta eta osatuta".

Euskaldunok oso gustuko dugula dantzan egitea dio Estangak baina sarritan ez duela topatzen testuinguru egokirik: "Mugimendua gustuko duenarendako da aproposa saio hau; norberaren buruarekin eta jende jatorrarekin egotera doan horrendako. Barrenak husteko ere balio du", dio, eta gaineratu du: "Gainera, ez dago ezer erakutsi beharrik, ez diogu ezer eskatu behar geure buruari. Nork bere bidaiatxo egitea da kontua". Estangak esandakoa berretsi

du Jaiki elkarteko Maier Etxebarriak: "Gomendagarria da gorputz zein buruko osasunarendako; izan ere, onura mordoa dauzka gura den moduan dantzan egiteak".

Izena emateko bideak

Saiorako aurretik izena eman beharra dago. Hona hemen bideak horretarako eta argibideak eskatzeko: jaikielkarte@yahoo.es; 943-53 43 96; eta Facebook. Prezioa da 10 euro langileendako eta 7 euro langabeendako.

'Gaztetxia herrira' astea borobilduko dute egunotan

Gaur, Pagaldaixeneko taberna zabalduko dute, eta bihar, bazkaria eta kontzertuak izango dira han, besteak beste

M.A. ARETXABALETA

Azaroaren 10a ezkerro dabilta egiten *Gaztetxia herrira* astea, Atxabaltako Gaztetxeko Asanbladak antolatuta. "Bai hitzaldietan, bai kontzertuetan jende asko elkartu zen joan den aste bukaeran. Gero, astean zehar, gutxiago ibili da; hala ere, Kixkorren emandako dokumentalean jende asko izan ginen proiektu alternatiboen gainean hausnartzen. Hortaz, pozik", jakinarazi dute asanbladako kideek.

Domekara artean dauden ekitaldiekin borobilduko dute astea.

Gaur, egubakoitza, Pagaldaixeneko taberna zabalduko dute eta The Hans Blues Band taldearen kontzertua (18:30) eta bertso saioa (21:30) izango dira.

Zapatuan, ostera, egun guztiko ekitaldiak iragarri dituzte: ipuin kontaketa (11:30), kantu poteoa (12:00), grafiti tailerra (12:30), gaztetxearen aldeko bazkaria (14:30) eta kontzertuak (18:30) Drop! eta Aggressive Combat taldeekin. Eta domekan, *La Haine* filma ikusi eta Pagaladaixeneko kontuak jaso ostean emango dute bukatutzat astea.



M.A.

Gaztaina goxoak Basabeazpin

Gaztaina errekin egin zuten hamaiketako Basabeazpiko umeek eguaztenez; aparteko lagunekin, gainera, aitaita-amamekin. Hiru danbolinetan 24 kilo gaztaina erre zituzten, eta, kantuan eta dantzan egin ondoren, elkarrekin jan. Zaharren egoizatik ere gerturatu ziren hainbat nagusi eta giro ezin politagoa sortu zuten guztien artean.

Santa Zezilia eguna ospatuko dute etzi eta martitzenean

Leizarra musika eskolako kideek martitzenean bertan ospatuko dute zaindari duten Santa Zeziliaren omenezko eguna. 17:30ean egingo dute ekitaldia Herriko Plazan: "Hainbat instrumentutako ikasleak elkartuko dira eta taldeka jardungo dute. Hizkuntza musikalean eta tailerretan dabilzan ikasleek, ostera, abestu egingo dute", jakinarazi du Mariatxen Urkiak, musika eskolako zuzendariak. Ordu erdi inguruko ekitalditxoak izango da eta elkarrekin txokolatea hartuta bukatuko dute.

Aretxabaleta Abesbatzak etzi, domeka, ospatuko du eguna; 11:30ean meza abestuko dute eta gero Hirusta jatetxean bazkaldu.



Saioaren amaieran, ikuskizuneko partaideak publikotik oholtzara igo zituzten herritarrekin batera. IMANOL SORIANO

Beldurrak alde batera uzteko ikuskizun aparta

'Beldurrei Agur' ikuskizunak arrakasta izan du Eskoriatzan. Herriko hainbat taldek eta norbanakok aurrera eraman duten lana ikustera herritar ugari gerturatu zen, eta Mari Pagaldaik utzitako arrastoa jarraitzeko lehen pauso sendoa izan da

Imanol Beloki ESKORITAZA

Manuel Muñoz kiroldegia lepo bete zen zapatuan, hilaren 12an, *Beldurrei Agur* ikuskizunearan. Herriko talde ezberdinek elkar-lanean egindako saioa Mari Jose Pagaldai eskoriatzarra gogoratzeko antolatu zuten eta arrakastatsua izan zen. Izan ere, 600 pertsonatik gora batu zen kiroldegian ikuskizunaz gozatzeko.

Pagaldaik utzitako arrastoa eta lezioak agerian geratu ziren eta jendearen erantzuna bikaina izan zen. Lili Gonzalez antolatzailleak honela adierazi du: "Aurreikuspenak bete ditugu, herritarren erantzuna aparta izan da, eta oholtzara gainean egon zirenek bikain egin zuten... Ez gara profesionalak eta uste dut oso pozik egoteko moduko lana egin dugula".

Musika eskolakoek, gimnasia erritmikoko ordezkariek, kenpo taldekoek, batukadakoek, tai txi taldekoek, dantzariak, abesbatzak, norbanakoek... beldurrak alde batera uzteko saioa eskaini

nahi izan zuten eta helburuak bete dituztela adierazi dute. "Saioaren amaieran, esaterako, *Ausartu* hitza eta *Tú eres mucho más* esaldia irudikatu genuen paper bakoitzean letra bat jarri. Partaideen eta hainbat ikuslaren laguntzarekin osatu genuen. Publikoa oholtzara igota, bateratzea irudikatuz... hala amaitu genuen saioa".

Aurrera begira

Egindako lanarekin gustura, orain deskantsatzea tokatzen dela adierazi dute antolatzailleak. Hala ere, aurrera begira beste zerbait antolatzeko gogoz ere geratu dira: "Oraindik ez dugu ezer buruan, ikusiko dugu aurrerago, baina, izan duen harrekarrekin, seguru zerbait prestatuko dugula...".



Egitarau zabala prestatu dute Euskararen Egunerako

Motorrak berotzen joateko hainbat ekintza antolatu dituzte, abenduaren 3aren aurretik egiteko

I.B ESKORIATZA

Euskararen Eguna ate-joka dago, eta, egun horretarako egitarau zabalaz gain, aurrez ere hainbat ekintza egingo dira Eskoriatzan. Herritar ezberdinek parte hartu dute prestaketa lanetan, eta askotariko jendea batuta antolatu da egitaraua.

Azaroaren 30ean, abenduaren 1ean eta 2an hainbat ekintza egingo dituzte txikienek. Urtero moduan, Tortolis ludotekan jostailu erakusketa eta jolasen txapelketa egingo dute.

Abenduaren 1ean, berriz, Leintz Udal Euskaltegian, Aretxabale-tako lokalean, Mintzodromoa egingo da, ele bitan, 09:30ean. Eskoriatza eta Aretxabale-tako euskaltegi-tako ikasleak, Berbalagunak, Auzoko taldekoak eta nahi duten herritarrek daude gonbidatuta.

Abenduaren 2an, berriz, Eskoriatzako Herriko Plaza apainduko dute, 10:00etan hasita, eta 19:00etan kantu kalejira egingo dute Aretxabale-tako Kantu Po-teo taldearekin batera.

Euskaldun Berrien plaza

Euskararen Egunari dagokionez, Euskaldun Berrien plaza inauguratuko dute -Egokiena elkar-te ondoko plazan-; Udalak iaz osoko bilkura batean onartu zuten euskaldun berriek euskara ikasteko egindako ahaleginaren aitortzan herriko txoko horri izen hori ematea. Ekitaldi instituzionala izango da, baina inaugurazio eguna baino lehen,

gaur, Ixotu Euskara Taldekoek murala margotuko dute.

Denek parte hartzeko ginkana


Abenduaren 3ko lehen ekintza ginkana izango da, Herriko Plazan jarriko den karpan egingo dena. Ekintza berria da eta ume, nagusi, heldu... denentzako antolatu dute. Jolasa 11:30ean hasiko da, eta, herriko hainbat lekutan piezak bilatuz, parte hartzaile guztien artean puzzle bat osatuko da.

Egitaraua

Abenduaren 3a

- **11:30** Ginkana plazan.
- **13:15** Euskaldun Berrien plazaren inaugurazioa.
- **14:30** Herri bazkaria plazako karpan. Paella, kafea eta pastela. Baskalostean: Imanol eta Unai (Eskoriatza) dantzaldia.
- **17:00** Huhezikoek Karaokea Zaldibar antzokian.
- **18:00** *Hi, Selfie* Gaztelekuan.
- **18:30** Freshcool dantza ikuskizuna eta Tio Teronen semeak. Ondoren: Dantza jauziak.
- **22:30** Kontzertuak: Akerbeltz eta Jasan.

Aingeru Guarda ibilbidea, 23



IBILTARIAK
CAMPER EKIPAMENDUAK

627 140 961 | turgu@ibiltariak.com

20540 Eskoriatza, Gipuzkoa

www.ibiltariak.com

'Udazkeneko bonboia', lehiaketako garaile

Eskoriatzako Udalak antolatutako lehen pintxo txapelketan lau tabernak hartu dute parte, eta irabazlea Naira izan da: onddoak, foie eta arrautza, laranja, curry eta ahuakate marmeladako oinarri baten gainean, pintxo horrek arrakasta izan du herrian

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak antolatutako lehen pintxo lehiaketako irabazlea Naira taberna izan da, *Udazkeneko bonboia*-rekin. Onddoak, foie eta arrautza, laranja, curry eta ahuakate marmeladako oinarri baten gainean. Pintxo hori da da herritarren boto gehien jaso dituen. Epaimahaiaren ustez, Akeita tabernako *Udazken bizia* izan zen onena, baina, puntu guztien batura eginez, batez bestekoa aterata, Naira tabernako pintxo izan da garaile.

Guztira, lau tabernak hartu dute parte lehiaketan, Akeita, Toki Alai, Urrestilla eta Nairak, eta, herritarren parte-hartze handia izanda, arrakasta izan du Eskoriatzako Udalak antolatutako lehen edizioak. Merkataritza eta ostalaritza sustatzeaz gain, pintxoak egiterakoan bertako produktuak erabiltzeko helburuarekin antolatu dute ekimena, eta eguenetik domekara bitartean herriko giroa indartu da lehen aldiz egin den ekimen honetan.

Maite Zubia Ekonomia Garapenerako batzordeburuaren esanetan: "Herritarrak oso pozik daude, eta baita parte hartu duten tabernak ere. Espero dugu datorren urtera begira parte-hartze handiagoa izatea tabernen partetik... Hala ere, lehen aldiz izateko, arrakastatsua izan dela uste dugu, baina oraindik lan asko dago egiteko...".

Parte-hartze bikaina

Guztira, 211 boto jaso zituzten epaimahaikideek. Boto bakoitzak hiru tabernetako pintxo ziguiluak jarrita eraman behar zituen, eta hamar botok ez zituzten hiru ziguiluak jarrita -gutxiago zituzten-; beraz, 201 boto izan dira onartuak. Hala, irabazleak 300 euroko saria eta garaikurra jaso ditu. Horrez gain, botazioan parte hartu duten guztien artean 30



Naira tabernakoak Maite Zubia zinegotziarekin sari banaketan. ESKORIATZAKO UDALA

euro zozketatu dira parte hartu duten tabernetan gastatzeko, eta irabazlea Ibai Alzola izan da.

Batzuek gehiago beste batzuek gutxiago, orokorrean 400 pintxo inguru egin dituzte tabernekin eguenetik domekara bitartean,

eta herritar asko probatu barik geratu dira, uste baino lehenago gastatzen zirelako. Horrez gain, Udalak ondo baloratu du ekimena, eta datorren urtera begira bigarren edizioa antolatzeko asmoa adierazi du.

"Ez genuen espero halako arrakastarik"

AITOR BEITIA
TABERNARIA

Aitor Beitia da Nairako ugazaba Jabi Tostonekin batera, eta biak pozik agertu dira pintxo lehiaketak utzi duenarekin.

Pozik garaipenarekin?

Bai, baina, batez ere, herritarrek izan duten parte-hartzearekin. Ez genuen espero halako arrakastarik. Jende ezberdina gerturatu zaigu tabernara eta hori pozgarria izan da.

Pintxo elaboratua prestatu duzue, zer izan da zailena?



Lan asko izan dugu pintxoekin. Prozesua da zailena, masa izoztu egin behar genuen arrautzazatzeko...

Datorren urtera begira?

Gustatuko litzaiguke bigarren edizio bat egitea, eta lehiaketa hau errotzea. Antolaketa lanetarako laguntza emateko prest egongo gara, baina, hala ere, tabernen partetik parte-hartze handiagoa izatea gustatuko litzaiguke, hala, lehiatuagoa izateko... [Barre]

"Ikuskizun dinamikoa, alaia eta dibertigarria izango da"

AIORA ZULAIKA PAILAZOA

'Tipi-tapa, Korrika' ikuskizuna Eskoriatzan izango da

I.B ESKORIATZA

20. Korrika datorren urteko martxoaren 30ean hasiko da Otxandion, eta Iruñean amaituko da apirilaren 9an. Horren harira, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Tipi-tapa, Korrika* ikuskizuna prestatu dute aurten: zapatuan, 17:30ean, Eskoriatzan izango da.

Korrikaren inguruan da ikuskizun berria; zer dela eta?

Korrikaren 20. edizioa dela eta, Korrikarekin eta AEKrekin zorra sentitzen dugu. Gainera, Korrikako azken kilometroan korrika egingo dugu, herrian tokian tokiko euskararen gaineko eragileekin batera, eta hori oso polita izango da. Kanpotik ikusten duen batentzat arraroa edo absurdoa izan daiteke Korrika. Lekuko batean mezu bat sartu, eta milaka kilometro egitea gau eta egun ideia eroa bada, baina gure jarduna, pailazogintzatik, bizitza ere eroa da. Hala ere, ideia ero horiei esker gara garena, eta, euskarak aurrera egingo badu, bere kolorea ematen diolako berezitasunetik munduari da.

Protagonista berriak izango dituzue ikuskizunean?

Euskal Herria zeharkatzen du Korrikak, eta Zeledonon lurra-rekiko eta hizkuntzarekiko maitasuna, Marijaiaren umorea, sorginen jakinduria, Patakonek eta Ezkila kapitainaren elkartasuna... bilduko ditugu, euskarak bere baitan hori guztia bildu baitu.



Aiora Zulaika. TOLOSALDEKO ATARIA

Aurreratu dezakezu zerbait?

Pupuk eta Lorek amari galdetzen diotenean, zer da euskara? Pirritxek hitz politekin erantzungo die: "Euskara dela gure arima taza, munduari gure doinua ematen diogula euskararekin, euskara dela gure xirula-mirula, euskara dela gure neurri egindako soinekoa...". Euskara gauza asko dira, hitz politik nik esan arren, Miren Amurizak ere asko lagundu digu. Ikuskizun dinamiko, alai eta dibertigarria izango da.

Diskoa ere atera duzue, ezta?

Korrika Txikiaren kanta egin genuen bere garaian, eta, oraingoan, Korrikaren eta euskararen inguruko eta Imanol Urbietaren kanta bilduma prestatu dugu. Urbietaren euskara eta euskal haurarekin militantea izan da, eta elkarrekin lotura daukaten bi disko atera ditugu.

Familiantzat antolatutako mendi irteera domekan

Hezkuntza foroak antolatuta, familiantzako mendi irteera egingo dute domekan. 10:00etan Marisatik irtenda: Isuskitza-Landa-Arlaban gaina. *Makila eskuen eta ibili basuen* lelopean, herriko eta inguruko bazterrak eza-gutu, ohiturak ikasi eta naturaren ezagutzan sakontzea eta gozatzea izango dira, besteak beste, irteeraren erronkak.

'Aingeru ala kurriloi?' antzerkia Zaldibar antzokian domekan

Arrasateko Doke antzerki taldeak taularatutako duen *Aingeru ala kurriloi?* antzezlan domekan 19:00etan izango da Zaldibar antzokian. Sarrerak lau eurotan egongo dira salgai alde aurretik kiroldegian bertan edo *bibe.me* webgunean. XX. mendearen erdialdera kokatzen den hiru ahizparen istorio korapilatsua antzeztuko dute.

Hamar urte beteko ditu Eskoriatzako ardo dastaketak

Atxorrotx kultur elkarteak antolatutako ekimenean askotariko ardoak eta pintxoak izango dira Herriko Plazan

I.B. ESKORIATZA

Atxorrotx Kultur Elkarteak antolatutako ardo dastaketak hamargarren edizioa antolatu du zapatu honetarako. Herriko Plazan lau postu jarriko dira eta 18:30etan emango zaio hasiera dastaketari. Pates Zubiaren eskutik foie pintxo beroak egongo dira, kanpoko ardoak, onduak, bereziak... besteak beste.

Lau karpa jarriko dira, eta bertan hamahiru motatako ardoak jarriko dituzte. Lehen postuan, San Lorenzo Chianti (Italia), Vicente Sur Malbecc (Argentina) eta Bouquet Alella (Girona) ardoak izango dira. Bigarren postuan, berriz, Besos de Requeña (Alacant), Heredad Torresano (Madril) eta Ramos Ducher (Duero) ardoak. Hirugarren postuan, Segrel (Albariño), Godello (Bierzo) eta New Age Semi Dulce (Argentina)

ardoak. Laugarren postuan, berriz, Cantos Val Piedra (Guardia), Baigorri (Samaniego), Belezos ondua (Lapuebla de Labarca) eta Kerixeta (Mendraketa beltza) izango dira.

Txartel bidez

Pintxoak eta ardoen salmentek txartel bidezko funtzionamendua izango dute. Txartel bakoitzak euro bat balioko du eta ardo kopak zein pintxo bakoitzak bi txartel balioko du, nahiz eta txartel bakarreko pintxoak ere jarriko dituzten –pintxo zehazteko dago–.

Elkartearen batzar orokorra

Bestalde, zapatu goizean 11:30ean batzar orokorra egingo dute Hotela tabernako jantokian, eta Atxorrotx Kultur Elkarteoko dei egin gura izan dieten bazkide guztiei bertaratu daitezten.

Lehen sektoreari bultzada emateko hitzaldia egingo da

'Lurraren transmisioa gazteen instalakuntzan' hitzaldia kultura etxean egingo da, azaroaren 22an, 18:00etan

I.B. ESKORIATZA

Debagoieneko udalek, Deba Garaia Landa Garapen Elkarteak (LGE), Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hazi Fundazioak Debagoieneko 2015-2020rako Landa Garapen Programa (LGP) landu dute. Programa horren helburua da bailaran dauden oztopoei edota arazoari irtenbideak ematea, eta horren berri ematen izango dira datorren martitzenean Eskoriatzan.

Maiatzaren 24rako, Arantzazun, *Lurraren transmisioa gazteen instalakuntzan* lan-saio bat antolatu zuten, eta oraingo honetan ere gai hau sakondu nahi dute. Hala, hitzaldia azaroaren 22an egingo da, Eskoriatzako kultura etxean, 18:00etan. Hitzaldian, Iker Elosegik –Euskal Herriko Laborantza Ganbarako teknikaria– eta Maite Aristegik –baserritarra– izango dira. Jo-

rratuko diren gaiak, berriz, honako hauek izango dira: lurraren transmisioa gazteen instalakuntzan; oztopoak eta aukerak, Ipar Euskal Herriko esperientzia, eta zuzenbide zibil legearen aldaketa; herentzia eta transmisioetan eragina.

Hitzaldi hauekin, baserritar, gazte eta herritar ezberdinak elkartu nahi dira lehen sektoreari bultzada emateko eta gai honetan sakontzeko.

Irteera Aiherrara

Bestalde, Ipar Euskal Herrian izan diren kasuen esperientziak jasotzeko asmoz, Aiherra herri-irteera antolatu dute azaroaren 26rako, zapatarako.

Egun osoko irteera izango da eta Iker Elosegik gidatuko du. Interesa duenak 656 781 415 telefonora deitu dezake azaroaren 23a baino lehen.

Espero baino jende gutxiago San Milixanen

Produktu eta material aldetik azoka aberatsa izan arren, beste urte batzuetan baino harrera ahulagoa izan zen pasa den domekan; hala ere, buzkantzek eta ardikiak arrakasta izan zuten. Beraz, zapore gazi-gozaarekin gelditu da udala.

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

"Iaz baino ahulagoa izan da aurten San Milixan azoka. Ez dakigu zergatik, baina jende gutxiago hurbildu da", adierazi du Joannes Mendizabal kultura zinegotziak. "Produktu eta material aldetik azoka aberatsa izan zen, baina ez zen jende askorik hurbildu, egia esan. Gure termometroa taloak eta txistorrak izaten dira, eta dezente gelditu ziren soberan; beraz...", gaineratu du.

Udalak antolatutako autobus zerbitzu berezirik ez egoteak ere eragina izan zezakeela uste du zinegotziak. "Hala ere, ez dut uste horrek jende askori eragingo zionik", gaineratu du.

Hala ere, berrikuntza modura egin ziren buzkantzek eta ardikiak arrakasta izan zuten, guztia saldu zen eta.

25. edizioa

Datorren urtean mende laurdena beteko du San Milixan azokak.

Hori dela eta, zerbait berezia antolatzekotan da Gatzagako Udala. "Oraindik ez daukagu ezer pentsatuta, baina ekitaldi indartsu bat egin gura dugu urteurren borobil hori ospatzeko. Urte guztia daukagu hori pentsatzeko", azaldu du.



Haurrak, zeramika tailerlean. GOIENA



Azokako postuetako bat. GOIENA



Azokaz gozatzera hurbildu ziren zenbait herritar. GOIENA

Baietz 1.000! Arrasateko dendariekin ere euskaraz.



Arrasateko dendetan euskaraz jarduteko konpromisoa hartuko duten herritarrak behar ditugu.


Zatoz argazkia ateratzera: Azaroaren 21ean BAZen, 10:00 eta 13:00 artean eta Musakolako kiroldegian eta Mojategin, 16:30 eta 19:30 artean.



1000-

500-

0-



**Guztion
arte
an
lortuko
dugu
erronka!**

**Bidali zure
argazkia**



688 690 017



baietzmila@gmail.com

Baietz 1000

Arrasateko dendariekin ere euskaraz.



"Berdintasuna gizarteko balioa izan behar da"

ALAITZ IGARZABAL GIZARTE ONGIZATE ZINEGOTZIA

Azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna, ate-joka dago. Hala, agintaldian zehar aurrera eramandako ekimenak azaldu ditu Alaitz Igarzabalek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Urtebete pasatxo karguan, Antzuolako Gizarte Ongizate zinegotzi Alaitz Igarzabalek balorazioa egin du. Berdintasunaren bidean egindakoaz eta egiteko dagoenaz jardun du.

Zein urrats egin ditu Antzuolako Udalak berdintasunean eragiteko?

Bideberrik bultzatuta [Elgetak, Leintz Gatzagak eta Antzuolak osatzen duten gizarte zerbitzuen mankomunitatea]. Berdinbidean programan parte hartzen du Antzuolako Udalak ere. Berdinbidean, Gipuzkoako 10.000 biztanletik beherako herrietan berdintasun politikak sustatu eta indartzeko; Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarritako programa da. Horretan dihardugu buru-belarri lanean.

Berdinbidean plana zein fasetan dago egun Antzuolan?

Berdinbidean planak 2010. urtean hasi zuen ibilbidea. Eta aurten, hiru lan ildo nagusitan oinarritutako plangintzak garatzen hari gara Antzuolako Udalean. Lehen ildoak: *Mainstreaming* eta Gobernantza. Berdintasun politikak zeharkakotasunez lantzeko estrategia da; baina Udaletik hasitakoa izango da. Bigarren ildoak: balioen aldaketa eta emakumeen jabetza. Emakumeen



Antzuolako Udaleko Gizarte Ongizateko zinegotzi Alaitz Igarzabal. MAIDER ARREGI

parte-hartze soziopolitikoa sustatzeko politikak eta gizarte antolakuntza erantzunkidea bateratzeko ekimenak dira. *Berdinbidean jabetza eskola; Jaiak berdintasunean; Erantzunkidetasuna bultzatzea; eta Emakume zaintzaileak*. Eta hirugarren lan ildoak: indarkeria matxista prebenitzeko politikak eta arreta hobetzeko neurriak. Honetarako, plangintza bat landu dugu; bertan, lortu nahi diren helburuak eta hauek lortzeko bultzatuko diren neurriak eta ekintzak fin-

katzeko lanean dihardugu Udaleko Ongizate sailetik.

Zer dago egiteko?

Lehenengo, sentsibilizazioa da; gizartean eragitea. Berdintasuna gizartean egon behar lukeen ezinbesteko balio bat dela konturatzea, alegia.

Orain, zein asmo du Udalak?

Oraingoan, esku artean aipatu dudanarekin gabilta lanean. Teoriatik praktikara pasa eta funtzionatzea eta martxan jartzea nahikoa erronka dela esan nuke.

Lanean egunero jarraitzea ezinbestekoa dela uste duzu gizartea guztiz sentsibilizatzeko?

Bai; lan asko dago, arlo batzuetan gehiago beste batzuetan baino, baina lanean egunero jarraitu behar dugu bai udaletan, baina baita egunerokoan, norbanakoetan... egunero landu beharko litzateke berdintasuna. **Herritarrek berdintasunaren gaineko kontzientziarik badute?** Kontzientzia orokorra bai, inork ez dizu esango sexuen arteko berdintasunaren kontra dagoenik. Baina gauza txikietan daukagu kontzientziatu beharra, egunerokotasunean.

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna ate-joka dago. Zein ekintza prestatu dituzue?

Bai, datorren egubakoitzerako antolatu ditugu zenbait ekintza. Batetik, urtero egiten dugun elkarretaratzea egingo dugu Herriko Plazan arratsaldeko zazpietan hasita. Herritar orori dei egiten diegu parte har dezaten. Gainera, gaueko hamarretan film emanaldia eskainiko dugu Torresoroa aretoan: *Prohibido recordar*. [Bertan, 1937 eta 1944 urte bitartean faxistek Saturrarango hondartzako bainuetxea emakume-kartzela bihurtu zuten. Espainiako toki guztietatik ekarritako 4.000 emakume errepublikano baino gehiago izan zituzten giltzapean]. Herritarrei gogorarazi ere, puntu morea daraman zapia eskuragai dutela bi euroren truke udaletxeko bulegoan. Tarte hau aprobetxatu gura dut zapia etxeko balkoi eta leihoetan jartzeko deia egiteko. Iazko arrakasta ikusita, aurten ere kaleratu ditugu zapiak.

Zein da ekintza horien guztien helburua? Zer lortu gura da?

Berdintasuna eta emakumeen eskubideak gizartean txertatzea balio bezala; eta ez legeak edo ez dakit zeinek esaten duelako. Gizartean integratu beharra dugu berdintasuna.

Eta aurrera begira zein izango da Udalak egingo duen urratsa?

Gobernantzan eta *Mainstreaming*-ean berdintasuna txertatzeko lanean, idazkariek eta kontu hartzaileek formazio bat egin dute; eta orain, zinegotzietan tokatzen zaigu. Berdintasuna arlo guztietako zeregina da eta. **Gaztetxoengana iritsi zarete? Hezkuntza mailan landu duzue eurekin berdintasunaren gaia?**

Bai; gazte txokoarekin beti gauden harremanetan eta urtero egiten dute berdintasunari eta indarkeria matxistari buruzko tailerren bat. Formazioan eta kontzientziaztean baitago gakoak. **Oinarria sentsibilizatzeko da? Hezkuntzan eragitea?**

Bai, hezkuntza eta baita sentsibilizazioa ere; biak dira oinarri eta beharrezkoak.

"BERDINTASUNA ETA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK GIZARTEAN INTEGRATU BEHAR DIRA"

Azaroak 25

Egitaraua:

- 19:00: Elkarretaratzea Herriko Plazan.
- 22:00: Zinea Torresoroan: *Prohibido recordar*.
- 17:00: Gineako ipuin kontalaria, Olaranen.

Auzokok saio berezia egingo du emakumeekin astelehenean

Kultura ezberdinen arteko hitz jokoak egingo dituzte hizkuntzen arteko harreman zubia estutzeko asmoz

M.A. ANTZUOLA

Astelehenean 10:30ean batuko dira, Olaranen, Auzokok parte hartuko duten emakumeak. "Datorren astelehenean berriro elkartuko gara, eta, oraingoan, hitz eta soinuaren inguruan ari-

tuko gara, hitz jokoen eta sonoritatearen inguruan jolastuz... Kulturen arteko hitz jokoak izango dira. Helburua harremanak estutzea eta euren hizkuntza eta euskara lotzea dira, hain zuzen ere", azaldu du Maite Te-

llerriak, Auzoko programaren dinamizatzaileak. "Indarkeria matxista ere izango dugu berbagai. Azalduko diet azaroaren 25a zer den".

Emakumeen arteko auzoko saioa, baina, ez da ekimen berria. Urtean zehar zenbait saio egin dituzte; hala, urrian egin zuteneko saioan udazkena izan zuten langai. "Udazkenaren hasiera ospatu genuen. Hosto lehorrak margotzen aritu ginen Auzoko emakumeok. Eta ondoren, Olarango leihoan jarri genituen".



Emakumeen eskulana. MAITE TELLERIA

Udazkenerako eta negurako bi peoi kontratatuko deia

Udalak bi pertsona kontratatuko ditu, hiru hilabeterako, peoi eta garbiketa lanak egiteko udal langileekin batera. Eskaera Lanbideren bidez egin behar da, nahitaez, eta eskaera egiteko epea azaroaren 22an bukatzen da. Eskola ziurtagiria edo baliokidea, gidatzeko B-1 baimena eta lehen hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoak dira.

Herri txikietan eredu da euskararen erabilera

Euskararen eguna aurreratu egin dute Antzuolan, eta, atzo, euskararen erabilerak daukan garrantziaz jardun zuten herriko hainbat eragilek herritarrekin. Gaztetxo zein heldu, guztien esku dagoela euskararen biziraupena aldarrikatu zuten

Maidar Arregi ANTZUOLA

Haur, gaztetxo, heldu, nagusi... euskarari eskutik lotuta eta festaz gozatzen ibili ziren. "Helburua euskarak daukan garrantziaz sentsibilizatzea gurasoak eta haurrak. Izan ere, euskara asko hitz egiten den herri batek beste herrietan -batez ere, gutxiago hitz egiten den herrietan- zuzeneko eragina dauka", azaldu zuten Euskara zinegotzi Jon Ugarteburuk.

Hala, patioan, txokolate-janaz, puzgarriez eta rap ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten, besteak beste. Ondoren, Olaranen Kike Amonarriz soziolin-guista eta komunikatzaileak herriko egoeraz jardun zuten.



Gaztetxoak Aitor Mendizabalekin solasean. IMANOL BELOKI

Erabileran eraginez

Antzuolan, euskararen arnas gune izanik, gaztetxoaren artean euskararen erabilera jaitsi egin dela antzeman zuten Udalak, Uemak eta Emunek. Hala, horri aurre egiteko proiektu pilotua abian jarri zuten ekainean abiatutako elkarlanean herriko hainbat eragilerekin.

Eta hor eragin eta hausnartu guran, atzo, Kike Amonarrizek Antzuolan euskaraz hitz egitearen beharraz jardun zuten, gurasoen eta gaztetxoaren kezka argituta. "Daukagun kezka nagusia, beharbada, arnas gunea da. Baina, egin kontu, herri txikietan kanpoko edozein eragin berehala nabaritzen da; oso herri zaugarriak (fragilak) direlako", azaldu zuten Amonarrizek. Eta herriko zenbait datuk harridura eragin zion: "Atentzioa eman dit azken 15 urteetan gazteek, sistematikoki, haurrek baino gehiago euskaraz hitz egiteak". Baita uneren batean gazteen %100ek euskaraz egin izana. Nahiz eta normala den moduan gero datu hori zerbait jaitea". Baina beheranzko joera ere ikusten duela esan zuten,



Txokolate-janaz gozatu zuten bertaratutakoek. IMANOL BELOKI

kezka. "Euskararen erabileran eta ezagupen mailan aldaketak gertatzen ari dira; ez Antzuolan soilik, baita gainontzeko herri eta hiriburuetan ere. Baina azpimarratu behar da datuak positiboak direla. Ikusten ari gara geroz eta hitzun gehiago ditugula eta erabilera gorantz doala; leku batzuetan beste batzuetan baino motelago."

Amonarrizek azpimarratu gura izan zuten euskara gazteen eta

haurren artean hitz egiten dela nagusiki; helduen eta zaharren artean baino gehiago. "Euskararen berreskuratze laneko abiapuntua hori da. Irakaskuntzan lan egin behar da, baina gazteei ere galdetu behar diegu arrazoi horren atzean zer dagoen: moda, kanpotik etorritako jendea... arrazoiak detektatu behar dira eta gero, zer dinamika bultzatu, erabili, behar den jakin hutsune horiek betetzeko".

Herria garbi mantentzeko "ez zikintzea" dela oinarri dio Udalak

Herria txukun mantentzeko eskatuz, Antzuolako Udalak kontzientziazio gutuna kaleratu du asteon

M.A. ANTZUOLA

Herria garbi mantentzeko helburuarekin, "kontzientziazio lanean jarraitzeko asmo sendoa" du Udalak. Hala, asteon ikasleekin eta Herri Eskolarekin elkarlanean ekimen hezitzailea abian jarri du. "Adostu genuen eskolarekin astelehenean patioa ez garbitzea, eta, modu horretan, eskolako umeek patioa nola zegoen ikusi zuten. Ondoren, gletan gaiaz berba egin eta hausnarketa egin zuten. Gero, taldeka banatu eta udal langileekin batera eskolako patioa garbitu zuten", azaldu du Beñardo Kortabarría alkateak.

Helburua garbitasunaren gaia mahai gainean jartzea eta etxeetan hausnartzea dela gaineratu du: "Ekintza horrekin batera, gutuna eman zitzaaien ikasleei; hala, etxean berba egin eta haus-

narketarako bide izatea gura genuen. Izan ere, garbitasun falta ez da bakarrik umeen kontua, nagusiok ere zerikusi handia dugu horrekin, eta horren guztiaren helburua gaia mahai gainean jartzea zen, eta etxeetan horri buruz hitz egitea".

Udalak kaleratutako gutunak dio "oinarria ez zikintzea" dela. "Herria zikin dagoela erraz esaten da, baina kontuan hartu ez dela berez zikintzen. Guk zikintzen dugula. Denon ardura da ez zikintzea".

Azken boladako errespetu faltaz ere ohartarazi du Udalak: "Aulkiak puskatu, ateak, leihoak, erre, pixa egin, desorduetan kolpeka jardun... Edozer gauza ez da zilegi. Errespetua, gauzei eta pertsoneri". Eta gaineratu dute berriro pilotalekua zabalik dagoela herritarrendako.

Santa Sezilia egunean musika izango da nagusi txistulariekin

Azaroaren 22an da Santa Zezilia eguna, martitzena. Eta aurten ere, hutsik egin gabe, herriko txistulari taldeak alaituko du arratsalde musikarekin. Iluntzeko zazpitan, herriko kaleetan barrena ibiliko dira Santa Zeziliako biribilketara. Kalejira egingo dute, eta herritarrek gonbidatuta daude musikarekin egunaz gozatzera.

Txosna batzordea sortzeko batzarra gaur, egubakoitza

Herriko eragile eta herritarrekin txosna batzordea osatzeko batzarra deitu dute gaurko Olaranen 18:30ean. "Urte askoan berdina ibili gara txosna batzordea aurrera atera nahian, eta, azkenean, nekatu egin gara. Hala, herritik eta herriarentzako izango dena eta talde desberdinen artean antolatutako batzordea osatu gura dugu", azaldu dute.

Gaztaina jana eta karta txapelketa Landatxopen

Bihar, gaztaina jana egingo dute erretiratuek 18:00etan. 70 kilo gaztaina prestatuko dituzte. Eta, azaroaren 29an abiatuko dute herriko karta txapelketa. Partidak azaroaren 29an eta 30ean eta abenduaren 1ean eta 2an jokatuko dituzte. Izen-ematea, azaroaren 28ra arte Landatxopenko lokalean bertan arratsaldeko lauretatik seiak bitartean.

Sorturen birfundazioan parte hartzeko deia

Antzuolako Sortuk herritarrei birfundazio prozesuan parte hartzeko dei egin die *partehartu.sortu.eus*-en akreditatuz. Baita ere bihar Donostiako Sorturen Iratzar aretoan izango den ponentziaren aurkezpenean eta eztabaidan. Aurkezpena 10:30ean hasiko da. Antzuolarrek 09:30ean Olarandik autoetan joateko hitzordua egin dute.



Herritar taldea domekako bisita gidatuan Uriarteko Amaren irudiaren inguruko azalpenak entzuten. L.Z.

Elizan dauden artelan baliotsuak ezagutzen

Pieza esanguratsuak daude Elgetako elizan. Azken ikerketek baieztatu dute XVI. mendekoa dela Juan Bautista de Aranbururen triptikoa. Aldare nagusian dagoen *Amabirjinaren jaiotza* koadroa, berriz, erakusketa baterako eskatu dute Sevillatik

Larraitx Zeberio ELGETA

Pintxo domeketako egitarauaren barruan, bisita gidatu berezia egin zuten domekan Elgetan. Hamabost bat lagunek entzun zituzten Nerea Villa elgetarraren azalpenak eta hainbat nobedaderen berri eman zuten.

Iritzi kontrajarriak eragin ditu sakristian dagoen Juan Bautis-

ta de Aranbururen triptikoa. Kopia edo Flandriako eskolako den zalantzan egon da azken urteetan. Egindako azken ikerketek, ordea, triptikoa XVI. mendekoa dela defendatzen dute. "Munduko edozein museotan egoteko moduko obra da", adierazi zuen bisita gidatuan Manolo Cainzos historialariak.

Albiste da, baita ere, Sevillan egingo duten erakusketa baterako eskatu dutela aldare nagusian dagoen *Amabirjinaren jaiotza* koadroa. Murillo margolariaren eskolaren gaineko atzera begirako erakusketa prestatzen dihardute eta bertan egongo da ikusgai Elgetako koadroa hurrengo urte amaieran. Nerea



Amabirjinaren jaiotza koadroa. L.Z.



Aranbururen Flandriako triptikoa. L.Z.

Villak azaldu zuen Murilloren eskolako Juan Simon Gutierrezenak direla aldare nagusiko koadro gehienak. "Hasiera batean, koadro guztiak eskatu zituzten, baina adostu dugu bakarera eramango dutela, eta *Amabirjinaren jaiotza* izango da", gaineratu du Elgetako parroko Juan Cruz Juaristik.

Intereseko beste artelan batzuk

Jasokundeko Amari eskainia da Elgetako eliza eta XIV. mendekoak dira lehenengo aztarnak. Bisitariak adi entzun zituzten Otxoa Donor de Olaegiren eta Jalotza etxeko Calahorrako inkisidore Martin Saez de Ibarra-

ren hilobi gotikoen gainekoa azalpenak. Horrekin batera Santiagoren albo-erretaularen eta aldare nagusian dagoen Uriarteko Amaren irudiaren gainekoak. Sakristiak ere altxor ugari gordetzen ditu: Pablo Uranga margolariaren hiru pieza esanguratsu, Santa Anaren XIV. mendeko irudia edo erromesen ospitaleko Maria Magdalenaren irudia. Bisitan interes berezia sortu zuten koruko organo erromantikoa eta kanpandorreak. Organo-jotzaile Lorea Larrañagak pieza bat eskaini zuen eta kanpandorreko kanpaiak mugimenduan ikusteko aukera izan zuten bisitariak.

Badator azken pintxo domeka

Herriko pintxo lehiaketara aurkeztutako pintxoak dastatzeko azken aukera izango da domekan Elgetan. Euro bateko prezioan izango dituzte salgai tabernariak, eta bezeroek martxan dauden lehiaketetan parte hartzeko aukera izango dute: pintxoaren osagaiak asmatzeko lehiaketa eta Publikoaren Saria izendatzeko prozesua. Udalak jakinarazi du aste barruan emango duela lehiaketa guztien emaitzen berri; tartean, aurreko aste bukaeran egindako argazki lehiaketarena. Zortzi lagunek hartu zuten parte. Domekan, bestalde, Elgeta Kantuan ekimenak bat egingo du hirugarren pintxo domekarekin. Abeslari taldea 13:00etan abiatuko da herriko plazatik eta gustura hartuko dituzte partaide berriak. Kantu liburua salgai izango dute.

Mintzalagunek Elorrion egin dute lehen ekintza bateratua

Argiñetako nekropolia, Zenitakoleako errota eta sulfurodun Uratsa iturria ezagutu zituzten

L.Z ELGETA

Elgetan Berbetan ekimeneko kideek Debagoieneko mintzalagun taldeek egindako lehen ekintza bateratuan parte hartzeko aukera izan zuten zapatuan. Hala, Elgetako zortzi

lagun Elorrion elkartu ziren Debagoieneko beste hogeit mintzalagunekin. Batera Argiñetako nekropolia eta bertako hilharriak, Zenitakoleako errota eta Uratsa izenarekin ezagutzen den sulfurodun

iturria bisitatu zituzten. Bisita oso interesgarria izan zela adierazi dute. "Gauza oso bereziak entzun genituen", esan du mintzalagun Sonia Mirandak. "Gidariaren azalpenak oso onak izan ziren eta asko ikasi dugu", gehitu du mintzalagun Iratxe Bravok.

Asmoa da Debagoieneko mintzalagunek ekintza bateratuak egitea hilean behin. Lehenengoak harrera oso ona izan du.



Mintzalagun taldea Zenitakoleako errotaren gainekoak entzuten. IRATXE BRAVO

Indarkeria matxista salatzeke ekintza sorta

Emakumeenganako indarkeriari ez! lelopean elkarretaratzea deitu du Udalak azaroaren 25erako, eta herrian propio prestatuko bertsoak abestuko dituzte amaieran. Gaztetxeak, berriz, poesia saio musikatua eta afaria iragarri ditu

Larraitz Zeberio ELGETA

Arazoa larria da eta Elgetan ere hainbat sentsibilizazio ekintza iragarri dituzte azaroaren 25erako, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunerako.

Goizean goizetik herritarrek eskuragarri izango dituzte paparrean jartzeko lazo moreak. Udalak herriko dendetan eta tabernetan banatuko ditu, eta doan hartzeko moduan jarriko ditu. Aldarrikapen egunaren seinale puntu morea ere lehenengo ordutik egongo da ipinita udaletxeko balkoian.

Ekintza nagusiak 18:00etatik aurrera izango dira, eta herriko plazan kokatuko dituzte. Asmoa da neska-mutikoen artean globo moreak banatzea. Horiek puztutakoan, lazo more erraldoi bat egingo dute globo guztiak elkarren ondoan lotuta.

Herritarrek 19:00etako elkarretaratzean parte hartzea deitu ditu Udalak. Hamabost minutuko elkarretaratze isila izango da eta *Emakumeenganako indarkeriari ez!* lelopean egingo dute. Elkarretaratze horretan bereziki gogoan izango dituzte indarkeria matxistaren eraginez azken hamabi hilabeteotan Hego Euskal Herrian hil dituzten bost pertsonak: lau emakume eta ume bat. Silueta bana irudikatuko dute lurtean eta krabelin gorriak eskainiko dizkiete.

Bertsoak, poesia eta afaria

Elkarretaratzearen ostean, egun horretarako herrian propio sortutako bost bertso abestera gonbidatuko dituzte bertaratutakoak. *Aitorren hizkuntz zaharra* doinuarekin abestuko dituzte eta Elgetako koroak parte hartuko du ekintza horretan.

Gaztetxeak ere bi hitzordu antolatuko ditu Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunerako. Poesia saio musikatua eskainiko dute Soralezko Mantazpitik taldeko kideek, 19:30ean. Ordu-



Indarkeria matxista salatzeke iaz udaletxe aurrean egindako elkarretaratzea. L.Z.

bete inguruko iraupena izango du emanaldiak eta sarrera doan izango da. Afaria ere iragarri du gaztetxeak. 21:30ean egingo dute eta prezioa hamar euro da. Interesatuak Haizea tabernan eman behar dute izena eguaztena baino lehen, hilak 23. Menua hauxe da: pasta-entsalada, solomoa piperrekin, postrea, ogia, kafea, sagardoa eta ura.

Eskolan tratu onen horma

Herri Eskolan ere landuko dute gaia. Iaz hasi ziren eta aurten ere tratu onen horma egingo dute, guztiak elkarlanean, umeek etxetik eramandako argazkiekin. Elkarrenganako tratu onak bulzatu gura dituzte horrela.

Dokumentala udaletxean

Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna baino bi egun lehenago *Prohibido* recordar izeneko ikus-entzunezkoa eskainiko du Udalak udaletxeko osoko bilkuren areto nagusian. Bideberri mankomunitatearen eskutik dator dokumentala eta 1937tik 1944ra Saturrarango espetxean preso egondako hainbat emakumeren testigantzak jasotzen ditu. Frankismoaren espetxe handie-

netakoa eta krudeletakoa izan zen. 16 eta 80 urte bitarteko bi mila emakumetik gora egon ziren bertan preso. Emanaldia 19:00etan izango da eta sarrera doan da. Iraupena ordubete ingurukoa izango da.

Azaroak 25 Egitaraua

Azaroak 23

- **19:00** *Prohibido* recordar pelikula udaletxeko areto nagusian. Sarrera irekia.

Azaroak 25

- **18:00** Globo moreen banaketa eta denen artean lazo erraldoiaren osaketa plazan.
- **19:00** Elkarretaratzea.
- **19:15** Kantua Elgetako koroaren laguntzarekin.
- **19:30** Mantazpitik taldearen poesia saio musikatua gaztetxean.
- **21:30** Afaria gaztetxean.

Teknikari berria izango du Udalak eguaztenetik aurrera

Sei hilabeteko kontratua izango da eta kultura, euskara, hizkuntza eta turismo gaiak landuko ditu

L.Z. ELGETA

Enplegu planaren barruan Udalak egingo duen kontratazioa da, eta Ainhua Bernabe mutrikuarrak hartuko du lanpostua %60ko lan-jardunarekin. Kultura, euskara, hizkuntza eta turismo gaiak jorratuko ditu.

Kultura gaiekin lotuta, Udalak jakinarazi du hiru lagunek jaso dutela Espaloia kafe antzokiaren prozedura negoziatuan parte hartzeko gonbidapena. Hilaren 29ra arte dago nork bere proposamena idatziz aurkezteko. Izan ere, egun horretan elkar-

tuko da kontratazio mahaia jasotakoan lehenengo azterketa egiteko.

Ipuinak eta gaztelekua

Gaur, barikua, bi ipuin kontalari saioa egingo dituzte liburutegian: 16:40ean bost urtetik gorakoendako eta 17:25ean bi urtetik gorakoendako.

Gazteleku zerbitzuan, berriz, ate irekiak dituzte bihar eta etzi, 16:30ean. Domekan Izar Irazabalek, Aitzol Oartzabalek eta Iratxe Bravok dituzten afizio ikusgarrien berri emango dute.

Zapatuan ongietorria Hondarribiko arraunlariei

Aurten ere Hondarribiko arraunlariekin egun-pasa egingo dute Elgetako jarraitzaileek. Irailean amaitu zen denboraldia, eta, atsedean denbora baliatuz, zapatuak gonbidatu dituzte Elgetara. Goiz erdian iritsiko dira herrira, eta, urtero moduan, pilotan eta bolotan egingo dute txikiteoa hasi aurretik. Bazkaldu aurretik Hotz Bergarak kafe antzokian antolatu duen aurkezpen ekitaldian hartuko dute parte arraunlariek. Ondoren egingo dute bazkaria, eta aurreikuspena da 55 bat lagun elkartzeko. "Arraunlari asko datoz eta zuzendaritza batzordetik ohikoa baino jende gutxiago", esan dute antolatzaileek.

Beste kanpaina bat aurkeztuko du Hotz Bergarak bihar

Siriako errefuxiatuen aldeko beste ekimen bat antolatu dute Hotz Bergarakoek. Beste hainbat talderekin lankidetzan, maila eta modalitate askotariko kirolariek emandako 96 sari zozketatuko dituzte urtarrilaren 28an. Espaloia kafe antzokian egingo dute kanpainaren aurkezpena, bihar, zapatua, 13:00etan. Kirolariek emandako materiala jarriko dute ikusgai eta kanpainaren nondik norakoak azalduko dituzte. Martxan jarriko dute baita ere zozketako txartelen salmenta. Ekitaldi irekia da eta materiala eman duten kirolari guztiak daude gonbidatuta. Kafe antzokiko taberna zabalik izango da 12:00etan.

PILOTA TXAPELKETA

EMAITZAK - 4. JARDUNALDIA

I. Retolaza - M. Elkoro /

J.M Zubiaurre - P. Larrea **18-01**

O. Erostarbe - G. Arizmendiarieta /

A. Elortza - O. Sarasua **15-18**

J. Mañarikua - B. Arabaolaza /

E. Ormaetxea - A. Valle **18-16**

D. Cantabrana - T. de Vega /

E. Garate - E. Maguregi **18-10**

PARTIDUAK, 5. JARDUNALDIA

GAUR, BARIKUA, 18:30EAN

I. Ugarteburu - S. Bouzas /

A. Telleria - A. Ibarluzea

O. Erostarbe - G. Arizmendiarieta /

D. Cantabrana - T. de Vega

E. Ormaetxea - A. Valle /

E. Garate - E. Maguregi

J. Mañarikua - B. Arabaolaza /

M. Beretxinaga -

OI. Unzetabarrenetxea

Emakumeen aurkako indarkeria salatuko dute

Azaroaren 25ean Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da; Bada, horren bueltan, salaketarako eta gaiari buruz gehiago ikasteko tartea izango da Udalak eta Martxanterak taldeak datozen egunotarako prestatutako hitzorduetan

Maite Txintxurreta BERGARA

Azaroaren 25ean, datorren egu-bakoitzean, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da. Horren harira, udalak eta Martxanterak talde feministak arlo horrekin lotutako hainbat ekintza antolatutako dituzte.

Antolatutako egitarauaz gain, talde biak eraso edo erailketa sexista gertatzen denerako udal erantzun prozedura prestatzeko elkarlanean ere badihardute.

Emakume pilotariak

Datorren eguaztenean, azaroak 23, emakumeen kirolari buruz hausnartzeko parada izango da; hain zuzen, emakume pilotariak buruz. Izan ere, Zabalotegi areto zineklubean *Las Pelotaris* eta *Pilota Girls* dokumentalak emango dituzte, 20:00etan, eta bukatzean solasaldia izango da.

Las Pelotaris-ek euskal pilotako emakumeak ditu protagonistat. Istorio desberdinak kontatzen dira; esaterako, XX. mende hasieran Euskal Herrian, Kuban, Filipinetan eta Mexikon frontoiak betetzen zituzten erraketistak azaltzen dira.

Pilota Girls, berriz, Bilbon kokatuta dago, eta zinemako zein bideoklipetako lengoia darabil. Emakume pilotariak



Zabalotegin emango duten 'Las Pelotaris' dokumentalaren fotograma. LAS PELOTARIS

estereotipoen eta sistemaren aurkakotzat erakusten dituen performancea da.

Mahai inguruan herriko pilota eskolako Reyes Azkoitiak eta Izaro Izarbe zestalariak hartuko dute parte. Maite Aristegik gidatuko du saioa.

Akelarrea

Azaroaren 25erako, 19:00etan, udaletxe aurrean, emakumeen aurkako indarkeria salatuzko kontzentrazioa deitu dute.

Horren ostean, 20:00etan akelarre antipatriarkala egingo dute,

musikaz lagunduta, eta queimada edaria prestatu eta banatuko dute. Hala, emakumeek jasaten duten biolentziaren adibideak erreko dituzte suaren bueltan.

'Koaderno zuri' antzezlan

Bukatzeke, abenduaren 11n, Hika antzerki taldearen *Koaderno zuri* antzezlan doan ikusteko aukera izango da Zabalotegi aretoan, 19:00etan. Ama hil berritan, 20 urteren ostean atzera ere elkartzeko diren Begoña eta Arrate ahizpen istorioa kontatzen du antzezlan honek.



NIRE USTEZ

MIGEL LAZPIUR

Lehiakortasunari buruz

Egungo munduan kontzeptu klabea da lehiakortasuna; enpresek lehiakor izan behar dute, baita pertsonak ere; osterantzean, ezingo diegu oraingo gizarteko erronkei aurre egin.

Euskal enpresari entzutetsu batek zioen balorea gehitzen duen operazio bakoitzeko, beste 200ek ez dutela balorerik gehitzen. Ekintzarako sekulako marjina dugu hor.

Enpresek lanean dihardute balorerik gehitzen ez duten baina gure ekonomia kaltetzen duten operaziook ezabatzen. Henry Fordek xahutzea esaten zion horri.

Zer ulertzen dugu lehiakortasunaz ari garenean? Bada, produktuak kostu egokian ekoiztea, etengabe prezioa, kalitatea eta eraginkortasuna hobetuaz, hau da, xahutzea ezabatuz.

Hori talde lanarekin eta gestio adierazleekin egiten da, eta adierazle horiek betetzeko energia handia jarri behar da. Horri esker, bezeroari balore handiago kostu gutxiagorekin eskaini diezaiokegu.

Kontuan izanik administrazioak herrialde honetako enpresarik handienak direla, kontzeptuok arlo honetara ekarriaz, gutxiago gastatuaz herritarrei balore handiagoa ematea izango litzateke ideia. Horrek zergen jaitziera ahalbideetako luke, zerbitzuen lehiakortasuna etengabe hobetuz eta xahutzea ekidinez.

Hemen ez dut inoiz lehiakortasun eraginkorraren adierazleez hitz egiten aditu, baina, zergatik ez jarri halakoak administrazioetan ere. Hala, enprekin alderatu ahal izango lukete, emaitzak analizatu.

Jardunek bazkietza kanpaina aurkeztuko du astelehenean

Datozen hilabeteetan zehar bazkietza kanpaina berri bat jarriko du martxan Jardun Euskara Elkarteak. Kanpaina hori Euskaltzaleen Topaguneak bideratu du, eta beste zortzi euskara elkarterekin batera jarriko dute abian. Kanpaina horen aurkezpena azaroaren 21ean izango da, 19:00etan, Irizar jauregian. Aurkezpena herritarrendako irekia izango da.

Gudariei omenaldia eta Sorturen birfundazio batzarra

Frankistak Bergaran sartu zirenetik 80 urte bete direla eta, Sortuk orduko gudari eta milizianoak omenduko ditu bihar, zapatua, 13:00etan, Telesforo Monzon plazan. Egun berean, goizeko hamarretan, Sorturen birfundazio prozesuaren baitako batzar irekia egingo dute Aranzadi ikastolan. Azalpen bideo bat ikusiko dute lehenik, eta ondoren eztabaida ireki.

UREDERRA
ITURBINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Osasun zentroko segurtasuna eta arreta saritu dituzte

Osasun Zentroak Joint Commission erakundearen egiaztagiria lortu du, pazientearen segurtasuna eta arretaren kalitatea ebaluatzen dituen eta nazioartean mailan ospe handia daukana. Debagoieneko ESiko zuzendari Andoni Arzelaik osasun-zentroko profesionalak zoriondu ditu, eta eskerrak eman dizkie eguneroko egiten duten lanarengatik.

Lanak abian Ipintzan eta Mekolaldeko zubian

Futbol zelaian joan den astean hasi ziren 150 ikuslerentzako tokia izango duten harmailak jartzeko lanak. Eguenean, berriz, Mekolaldeko zubi zaharra botatzeko lanak hasi zituzten; oinezkoendako pasarela bat eraiki nahi dute toki berean

Maite Txintxurreta BERGARA
Ipintzan harmailak jartzeko lanak joan den astean hasi ziren. 30 metroko luzera izango dute, eta 150 jarleku, hiru ilaratan

banatuta. Euritik babesteko atarpea izango dute, eta pareta gardenak. 140.880 euroko aurrekontua dute lanek, eta hiru hilabete iraungo dute.

Harmaila berriak eta Agorrosingo kafetegiko terraza lotuko dituen pasarela bat ere eraikiko dute proiektu beraren barruan, gurpil aulkian dabilzanendako

irisgarritasuna bermatzeko. Elena Lete alkateak nabarmendu du proiektu honek zelaia eta Agorrosin Kirol Gunea "gehiago lotzeko" balio izango duela.

Mekolaldeko zubia

Mekolalden, berriz, Mekolalde jatetxea zenaren ondoko zubia botatzen hasi ziren eguenean, eta hamar egun iraungo dute lanek. Alkateak azaldu du 2002. urtetik datorren proiektua dela zubia eraistearena. Aurrerantzean ibilgailuek zubi berria (zuri kolorekoa) erabili beharko dute ibaia igarotzeko.

Lanok bukatzean, oinezkoendako pasarela bat egin nahi dute.



Martitzeneko kontzertua. A. TXINTXURRETA

Mizpirualden makina bat emanaldi izan dituzte aste honetan

Mizpirualde egoitzaren astea ospatzen dihardute astelehena ezker, eta makina bat ekimen izan dute egunotan. Irudian, esaterako, martitzenean Musika Eskolako hasiberrien eta akordeoi taldearen emanaldia. Gaur, egubakoitza, arratsaldean musikoterapia tailerra eta ondoren Moises Azpiazukoen dantza emanaldia izango dute. Bihar, berriz, meza eta bazkaria.



Iñaki Ugarteburu eta Elena Lete alkatea kirol teknikaria. M.T.



Udal teknikariak eta obrako arduradunak eta alkatea, Mekolalden. ANDONI BODES

Bidebarri

LANERATZE ENPRESA

20 urte uending zerbitzua eskaintzen

merkatu
Soziala

FAIRTRADE
INTERNATIONAL

"Eskaintza bereziak bidezko merkataritzako kafe eta txokolatean enpresa txiki eta ertainentzat"



www.bidebarri.org

Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe:
Tel. 943 716 479 • Mug. 617 677 913 • bidebarri@terra.com



CLAUDIO GARCIA

1976an sorrera Aurretik bazen herrian Club Ciclista Vergares zeritzona; horiek, baina, zikloturistak ziren, eta lasterketak antolatzen zituzten gainerakoan. Ume eta gaztetxoei aukera emateko sortu zen Lokatza. Argk.: Lokatzaren hasieretako taldea, Santa Ana ermita aurrean, Porturekin.



LOKATZA

Juanito Suinaga 1987an hil zen, presidente zela. Jesus Kortabarria *Kaxeta*-k hartu zuen postua. Argk.: 1988ko lantaldea, *Kaxeta* buru.



LOKATZA

Oparotasuna Argazkiaren garaian, 90eko hamarkada erdian, adibidez, sasoi oparoa bizi izan zuen ziklismo eskolak. Kategoriatan bi talde ere izaten zituzten garaiak ziren. 50 ziklista agiri dira, adibidez, irudi honetan. Argazkian: kategoriatan desberdinetako ziklistak, arduradunekin.

Zaletasunez lokazten 40 urte

Izerditu, busti, nekatu, poztu, erori, altxatu, zikindu... Bizikletarekin horiek guztiak lau hamarkadatan egin badituzte Bergarako hainbat ume eta gaztetxok, 1976an zenbait lagunek Lokatza Ziklismo Eskola sortu zutelako izan da. Bihar da ospakizun nagusia

Julen Iriondo BERGARA

Zer ote ikustekorik jostintzak eta txirrindularitzak? Lokatzaren kasuan, Julian Porturena da biak elkarri lotzeko izena; jostunak konpontzen zizkien gaztetxoei bizikletak, txirrindulari ohi eta zale handia izaki; hura eta Fermin Hernandez; eta Juanito Suinaga, Pello Larrañaga, Joxe Mari Gabilondo...

Bergarako kuadrilla baten izena zen Lokatza. Eta hala deitu zuten 1976an sortutako eskola. Herriko gazteenengan bizikletarako zaletasuna txertatzea

helburu, ehunka dira 40 urteotan bertan ibilitakoak, 200dik gora kadete eta gazte mailetan.

Eta aipatzekoa lasterketak antolatzen egiten duten lana ere: makina bat karrera, Gurutz Arrietak Club Ciclista Vergares zenaren lekukoa pasa zientetik.

Bihar –zapatua– egingo dute 40. urtemugako ospakizuna. 10:00etarako frontoian jarri dute ordua bizikleta irteera egiteko; motza izango da, eta klubeko maillot zaharrekin joatea proposatu dute Lokatzakoek. 13:00etan, hilabete hasieratik

Dixulan dagoen erakusketa ikustera joango dira –eguneko omen-duak protagonista dituen; abenduaren 2ra arte dago–, eta 14:30ean 150 lagun batuko dira bazkaritan. 17:00etan hasita Aranzadiko gimnasioan egingo duten mahai-ingurua, berriz, irekia izango da; bazkaltzen izango ez direnek badute joaterik.

40 urteoi buruzko liburua ere ari dira egiten, eta zenbait gauza bihar erakutsiko dituzte. Baina ekarpen gehiago ere jasoko lukete –lokatza_ze@hotmail.com–, argazki edo bizipen eran.



CLAUDIO GARCIA

Ricardo Iturbe Hura jo daiteke Lokatzak emandako txirrindulari hoberen. Arazo fisikoengatik ez zen profesionaletara iritsi, baina Espainiako txapelkun izan zen eta Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen. Argk.: Ricardo Iturbe, garaikurra eta loreak eskuan, Juanito Suinagarekin.



Gora Lokatza! Gora ziklismoa!

ION UNAMUNO LOKATZAKO PRESIDENTEA

Concorde hegazkina; Fidel Castro presidente; Montrealgo Olinpiar Jokoak; *Rocky* pelikula; edo Jose Luis Elkororen alkatetzapean Bergaran izandako *Alkateen mugimendua*: Lokatza Ziklismo Eskolaren sorreraren garaikideak dira. 40 urte pasa dira ordutik, 40 generazio eskolatik; bizikleten, erruberen,

pedalen, mailloten edo boteilinen artean pasatuko urteak izan dira. Fermin, Portu, Juanito, Peio, Kaxeta, Joxemari, Manolo, Larra, Mesner, Ion Ander, Sanchez, Iñigo, Uribe, Arantzeta; nire zuzendari izan ziren Del Teso eta Leturia; Sampruren lantaldea, motoristak, peto-pitoak. Eta beste asko. Denak izan dira

ezinbestekoak eskolaren pedalkadak mantentzeko. Batzuetan azkarrago, besteetan motelago, baina beti martxan. Bergarako Udala, Sumofic, Igartua edo Bolintxo okindegia bidelagun izan ditugu, baita boletok eta bazkideak ere. Eta Igor Garitano, Ricardo Iturbe, Maria Cid edo Mikel Aristi, esaterako; txirrindulariak dira benetako protagonistak Lokatzen, eta izaten jarrai dezatela! Gora ziklismoa!



MIKEL FRAILE

Gorlako Igoera C.C. Vergares-i lekukoa hartu eta 2001ean antolatu zuen lehen aldiz Lokatzak –26.a–. Contadorrek irabazi zuen. Ohiko karrerez gain, tarteka bereziak antolatzen dituzte; profesionalenak, adibidez. Argazkian: Alberto Contador, Gorlako helmugan garaile, 2001ean.



GOIENA

Egungo harribitxiak Lokatzaren fruitu dira Bergarak 2017an izango dituen hiru —oraingo— profesionalak. Delko-Marseille taldean dabil Aristi, eta Euskadi Muriasen ariko dira Lizarralde —aurten ere ibili da— eta Irizar. Argazkietan: Eneko Lizarralde, Mikel Aristi eta Julen Irizar.



I.S.

Emakumeen lasterketak 2010ean Osintxun egin zuten Lokatzak antolatutako lehena. Hura egiteari utzita, 2014an eta 2015ean Gipuzkoako Itzulia hartu zuen Bergarak, eta Demasa Kriteriuma egin dute aurten. Argazkian: erlojupekoa hastera, Emakumeen Gipuzkoako Itzulian, iaz.



JULEN IRIONDO

"Zati handi bat da nire bizitzan"

FERMIN HERNANDEZ
SORTZAILEETAKO BAT

1990era arte ibili zen Lokatzan, entrenatzaile eta zuzendaritzan.

Lokatza izena esaten badizut, zer da burura datorkizuna?

Nire bizitzaren zati handi bat da [hunkitu]. Ikusten duzu.

Lan eta ilusio handiak, momentu onak, txarrak.

Lana ugari. Eta, gainera, dirua jartzen, denok, baita gurasoek ere. Baina gustuko gauzak egitea ez da kostatzen.

Dena txirringularitza maite zenuelako, gaztetxoei laguntzeko.

Nik senide bat nuen KAS taldean ibili zena, Carlos Etxeberria, eta hari jarraitetik sortu zitzaidan zaletasuna. Porturi ere izugarri gustatzen zitzaion txirringularitza, eta horrela hasi ginen. Juanito Suinaga batu zen gero. Ahoz aho zabaldu zen, eta mutikoak eurak bakarrik etortzen ziren, ugari. Lokatza sortzeko beste arrazoi bat izan zen mutikoak ez zitezen alkoholarekin eta drogekin-eta hasi.

Zeu ere ibiltzen zinen. Bai, ni ere ateratzen nintzen, gazte mailara arte, gero ezin nien jarraitu. Beti ibili izan naiz bizikletan, neure kasa. Lasterketetan hastekoa nintzenez, 15 urterekin, bizikleta lapurtu zidaten. Eta ez nuen behin ere korritu.



GOIENA

Gaur egungo egoera Aurten, kadete mailako ziklista bat eta gazte mailako bi —Aloña Mendin ibili dira— baino ez zituen Lokatzak. 2017an ia hogei txirringulari izatea espero dute, alebin, infantil eta kadete artean. Argazkian: 2015eko taldeen aurkezpena, orain arteko azkena.



Askasibar, Arantzabal, Bengoa eta Aiasui, Dixulako erakusketan. M.ARREGI

Omenaldia eta mahai-ingurua

Biharko bazkarian Jesus Arantzabal, Migel Bengoa, Santi Aiasui eta Jose Inazio Askasibar omenduko dituzte, profesional izanak denak. Haiek eta Txomin Perurena eta Migel Mari Lasarekin mahai-ingurua izango da gero, Arrixu Iribarrek gidatuta.


Txikitatik zaletasuna sorrarazteko ahaleginean

Txirringularitzarentzat oparotasun handieneko garaiak ez direla-eta, ahalegin berezia ari dira egiten Lokatzan txiki-txikitatik sorrarazteko umeengan bizikletarako zaletasuna. Moduetako bat da tarteka-marteka antolatzen dituzten Bizikleta Festak. Urriaren 23an izan zen azkenekoa, eta Lokatzakoak oso gustura geratu ziren parte-hartzaile kopuruarekin.

Umeen parte-hartzea nahikoa sari ez eta, gainera, ezusteko polita jaso zuten festan izan zen neskatala baten partetik. Hura antolatu izanagatik eskerrak emanaz gutuna idatzi zuen neskatalak ikastetxerako, eta Lokatzakoei ere iritsi zitzairen.



Urriaren 23an egindako Bizikleta Festa. LOKATZA



Neskatala baten gutuna. LOKATZA

Emon-ek Argentinarraino eramandu bere 'Sua'

Taldekideen artean hainbat bergarar dituen musika taldea Necocheako euskal etxeak antolatutako duen euskal astean izan dira, eta bi kontzertu eskaini dituzte. Azken diskoaren aurkezpena borobiltzeko "esperientzia bikaina" bizi izan du taldeak.

Maite Txintxurreta BERGARA

Emon musika taldeak bukaera borobila eman dio *Sua* diskoaren aurkezpen birari, duda barik. Izan ere, non eta Argentinan izan dira egunotan, Buenos Airesko probintzian dagoen Necochea Euskal Etxeak antolatutako duen euskal astearen baitan. Hala, joan den egubakoitzean eta zapatuan kontzertu bana eskaini zuten, gauzez.

Emon taldeak Europatik kanpo eman dituen lehendabiziko kontzertuak izan dira hauek, eta, kontatu dutenaren arabera, esperientziak ez ditu epel utzi taldekideak. Alderantziz, aho zapo ezin hobearekin itzuliko dira Euskal Herrira.

Esperientzia aberasgarria

Taldekideen esanetan, esperientzia "bikaina" izan da: "Argentinara heldu ginenetik oso harrera ona izan genuen, etxean egongo bagina bezala sentiarazi nahi gintuzten". Azaldu dute bertako jendeak etxean hartu zituela, eta iritsi orduko sagardotegiko menua ere bazutela mahai gainean, beraien zain.

Harrera bero hori Emonek eskainitako bi emanaldietan ere igarri zuten, "kristorenak" izan zirela baitiote. "Jendez beteta, denak dantzan eta entregatuta" ei zegoen Necocheako Euskal Etxeko aretoa. Taldeko abeslari Eneko Longartek azaldu du kontzertua bukatzean jendea zorionak ematera hurbildu zitzaizela. Gainera, kontzertuotan argentinarrak batzuek beraiekin kolaboratu zuten. Errepikatze moduko esperientzia aberasgarria, horrenbeste.

Euskal asteaz gozatzen

Ozeano Atlantikoaren beste alderaino joan badira ere, giro euskalduna ez dute faltan sumatu Emoneko kideek. Izan ere, Necocheako euskal astean



Kontzertu ostean, jarraitzaileekin batera. ARATZ BERGARA



Emoneko taldekideak Necochea herrian. ARATZ BERGARA

musikari moduan parte hartzeaz gain, antolatutako ekintzez eta bertako giroaz gozatzeko parada ere izan dute. Esaterako, euskal dantza emanaldietan egon dira, baita zapatu arratsaldean izan zen danborrada handian ere, besteak beste.

Izan ere, hitzorduz betetako astea izan du Necocheako euskal komunitateak. Hala, Emonen kontzertuaren aurretik, esaterako, Kalakan hirukote famatuak eskaini zuen emanaldia.

Bertan euskal jendeak euskal kulturarekiko duen sentimenduarekin "harrituta" geratu zirela diote Emonekoek, eta euskaraz "maila onean" berba egiten duten argentinarrak dezenterekin izan zirela esan dute.

Necocheako jendeaz gain, beste estatu batzuetatik euskal atera gerturatutako jende ugari elkartu zen, eta euskal astearen azkenengo egunean 900 pertsona bildu ziren mahaiaren bueltan.

San Juan ermitako eskultura gotikoak mintzagai zapatuan

Jesus Muñiz Petralanda adituak hiru irudioi buruzko berbaldia eskainiko du

M.T. BERGARA

Jesus Muñiz Petralandak hitzaldia eskainiko du San Juango eskultura gotikoei buruz ermitan, bihar, zapatua, 11:00etan. Laboratorium museoko programazioaren baitan dago berbaldia.

Historialaria eta Erdi Aroko arte higigarria ikertzen espezializatua da Muñiz. Bergara da Gipuzkoan ermita gehien dituen bigarren udalerrria, eta horietan aurki daitezkeen altxorrek ezaugarrazteko antolatu dute saioa.

San Juan ermitan estilo gotikoko lau irudi ikus daitezke: bi San Juan Ebanjelari (bata XIV. mendekoa eta bestea XVI.aren hasierakoa), XV. mendeko Andre Mari bat, eta ermitako irudi nagusia den San Juan Bataiatzailea, XV. mende bukaerakoa.

Piezon azterketa historiko-artistikoa egingo du Muñizek. Irudiok dituzten jarrerak, iku-



San Juango eskultura nagusia . GOIENA

rrak, jantziak eta ezaugarriak deskribatuko ditu; eta iturri grafikoei buruz hausnartuko du; hau da, nondik atera zuten irudi horiek egiteko eredua.

Bada, irudi horietatik abiatuta, Euskal Herriko irudigintza gotikoa zabal landuko dute.

Orkestrak Santa Zeziliako kontzertua eskainiko du gaur

Bergarako Orkestra Sinfonikoak Santa Zezilia egunaren bueltan urtero egiten duten kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza. Musikarien patroia eguna hilaren 22an ospatzen den arren, asteburura aurreratu dute. 20:00etan hasiko da emanaldia Mariaren Lagundiko elizan, eta ikustera joateko interesa duen orok sarrera doan izango du.

Kirol argazki lehiaketako sariak banatuko dituzte


Gaur, egubakoitza, aurtengo kirol argazki lehiaketako irabazleak zeintzuk izan diren emango dute aditzera. Banaketa ekitaldia 20:00etan egingo dute Aroztegi aretoan. Sari banaketarekin batera, erakusketa inauguratuko dute. Mostran, lehiaketan parte hartu duten lanak izango dira ikusgai abenduaren 4ra arte.

Lenoir eta Mobydick, Txapako programazio aurkezpenean

Domekan, azaroak 20, Txapa Irratiko denboraldi berriko programazioaren aurkezpena izango da 18:00etan. 19 irratsaio izango dira aurten, beteranoak zein berriak. Aurkezpenaren ostean, musikaz girotuko dute arratsaldea. Joseba B. Lenoir & Gakobeltzak eta Mobydick taldeek kontzertua eskainiko dute bost euroren truke.

Hegats igeriketa lehiaketa eta hainbat ikastaro Agorrosinen

Hegats igeriketa lehiaketa izango da bihar 16:00etan Agorrosingo igerileku estalian, klub liga nazionalako lehen jardunaldia, hain zuzen. Gainera, hilaren 20ra arte hegats bakarra eta tutua erabiltzeko aukera izango da igerilekuan. GAP mini ikastaroa hilaren 21etik 30era. Hilaren 26an, spinningeko eskola magistrala, 17:00etatik 19:00etara.



Olakuako ur putzua handitu egingo dute, tamaina bikoitza izango du. LUR PAISAJISTAK

Paisaia indartu, beharrak asez

Olaran erreka ardatz hartuta, alde bietara dauden gunetako paisaia elementuak indartu eta jasotako eskaerekin herritarrek ikusi dituzten beharrak egokituko ditu udalak. San Lorenzo, Olakua eta San Martin sartzen dira proiektuaren barruan

Oihana Elortza OÑATI

Olaran paisaia izena jarri dio udalak martxan jarri duen proiektu paisajistikoa. "Ikusi dugu aurreko urteetatik behar batzuk daudela aisialdiaren, jolasguneekin eta baita natura hezkuntzarekin ere, adibidez. Behar horiei era isolatuan erantzun beharrean, egoerak ikuspegi integralagoa eskatzen duela iruditzen zaigu; paisaia plan baten beharra. Olaran errekek lotzen ditu Ugarkalde, San Lorenzo, Olakua, Aldakiñoko aldapa eta San Martin, eta horregatik jarri diogu izen hori proiektu honi", azaldu du Mikel Biain alkateak.

Bost gunetan

Iñigo Segurola paisajista ezagunak lan egiten duen Lur Paisajistikak enpresari eskatu zion udalak proiektua egiteko. Egun batean irteera egin zuten udal

ordezkariak Segurolarekin, inguruak ezagutzeko, eta orduan hasi ziren lanean paisajistak.

Proiektuak jasotzen duen moduan, bost gunetan egingo dituzte egokitzapen lanak. "Eltzia pareko berdegunean, adibidez, ur txorrotak eta gimnasia egi-

teko aparailuak jarriko ditugu. Karabanak eta atoiak aparkatuta egoten diren errepide zati hori ere belardiari emango diogu, espazio naturala irabazita. Olakuako dorretxearen inguruan, berriz, putzuak egokituko dira eta handik eta natura eskolara



Baratzeko pikua du izena San Martingo proiektuak. LUR PAISAJISTAK

doan bidea ere ezberdina izango da gero. Akazia handi batzuk landatu eta pasabidea moldatuko da", azaldu du Biainek. Erreka gurutzatzeko dagoen zubira heldu baino lehen dauden aparkalekuak kenduko dira eta zebra-bide erraldoi bat marraztuko da lurlean, marra diagonalak eginez; grafismo antzerako bat egingo dute lurlean.

Ahateen putzuek tamaina bikoitza izango dute gero eta ertzak naturalki prestatuko dira egokiak izan daitezzen sorgin-orratzen dako eta txantxikuendako, esaterako. Natura eskolako eraikina gehiago bistaratzea ere bada asmoa. Ondoan euri-urez beteko den putzua egokituko dute, anfibioendako. Hormigoizko terraza txiki batzuk ere egingo dira, eta inguru horretan dagoen metal-ur iturriak herdoil kolorea emango die.

Aldakiño aldapa igota, San Martin auzoko berdegune batean umeendako jolasak jarriko dituzte. "Baina izango dira jolas ez konbentzionalak. Ez dira ziburuak eta txirristak egongo, lokatza eta harea baizik", zehaztu du alkateak. Pikondoak landatu gura dituzte gunehorretan, ez direlako oso fruta-arbola garaiak eta arrama sendoak dituztelako, umeak pikoak hartzeko igo ahal izateko. Horregatik, *Baratzeko pikua* izena jarri diote esparru horri. Umeek euren kasa jolasteko gunen natural bat izango da, eta gurasoen sarriera zailtzeko elementuak ere jarriko dituzte.

Ur txorrotak

Joan den astean batzorde monografiko bat egin zuten alderdi bietako udal ordezkariak proiektuaz berba egiteko. Faseka egingo dute eta Udal Gobernuak abenduaren 4a aurretik jakinaraziko dio oposizioari lehentasuna zeri ematen dion. Biainek esan du abenduaren 19a izango dela muga erantzuna jasotzeko. 2017ko aurrekontuetan fase bat sartzeko da asmoa. Baliteke Eltzia pareko ur txorrotak izatea egingo duten lehen gauza.

ASTELEHENEAN DA LEHEN BILERA HERRITARREKIN, 19:00ETAN OLAKUAKO DORRETXEAN



Iñigo Segurola, Oñatin. IMANOL SORIANO

"Pozik nago proiektu honekin, erronka da"

IÑIGO SEGUROLA
PAISAJISTA

Lur Paisajistikak enpresako kidea da Segurola.

O.E. OÑATI

Segurolak aitortu du lehen aldiz jaso dutela horrelako plan integral bat egiteko proiektua, eta "ilusioz gainezka" dagoela.

Proiektu honekin pozik zaudela antzematen zaizu.

Europar egiten dira natura plan integralak, baina hemen industriara edo etxebizitzetara lotutakoak egiten dira. Nire ibilbide profesionalen lehen aldiz jaso dut horrelako enkargu bat, eta pozez zoratzen nago. Erronka bat ere bada, gainera.

Nola egin duzue? Ze izan duzue kontuan?

Udal ordezkariekin berba egin dugu eta azaldu digute ondo zer gura duten. Behar horiek naturan txertatu gura izan ditugu.

Landare berri asko ikusiko ditugu gero Oñatin?

Bai eta ez. Eltzia parean, esaterako, badaude egun zuhaitzak, eta horiek hortxe utziko ditugu. Loreak sartuko ditugu; urdinak agian. Olakuako dorretxe inguruan, kirolerako gunean ez da aldaketarik egongo eta putzuen bazterretan ur ertzetan hazten diren landareak sartuko ditugu. Aldakiñoko landaretza basatia mantendu egingo dugu eta San Martinen, gereziendo japoniarrek eta pikondoak landatuko ditugu; baita usain-belarrak ere.



Errekarguarekin lortutako dirua gazteen emantzipaziorako diru-laguntzetara bideratzen du udalak. OIHANA ELORTZA

Errekargua duten etxe kopurua %25 jaitsi da

Badira hiru urte Udal Gobernuak errekarua jartzen hasi zela inor erroldatu gabeko etxebizitzetara, ohiko bizileku ez diren etxebizitzak beharra duten herritarrendako bizileku bihurtzeko asmoarekin; 2013an 449 etxeri aplikatu zitzaizkien eta 2016an, berriz, 342ri

Eneko Azurmendi OÑATI

Datu horiek aintzat hartuta, udalak egiten duen irakurketa da ehuneko horren zati handi bat alokairura bideratu dela. "Gure inguruan ikusi dugu lehen etxebizitza hutsak zituen jendea orain alokairura bideratu duena", azpimarratu du Mikel Biain alkateak. Alde horretatik, "irakurketa positiboa" egin du.

Politika honek, etxebizitza beharra duten herritarrei laguntzea ez ezik, "Oñatin benetan zenbat etxe huts dauden ezagutu eta etorkizunerako etxebizitza politikak diseinatzeko oinarri egokiak ezartzeko aukera" ematen du, alkatearen esanetan.

Arau foral batek ahalbidetzen du errekarua hori aplikatzea. "%50 eta %150 arteko tartea zegoen eta Oñatiren kasuan erabaki zen %100 aplikatzea eta neurri hori indarrean dago. Egia da polemika piztu zuela bere garaian baina gaur da eguna neurri horren inguruko adostasun bat badagoena", dio alkateak.

Gaineratu du adostasun horren lekuko dela, bai EAJK eta bai EH Bilduk, 2017ko ordenantza fiskala aho batez onartu izana.

Emantzipazio diru-laguntza

Errekarguarekin lortutako dirua 30 urtez azpiko gazteei zuzenduriko emantzipazio diru-laguntzetara bideratzen du udalak. Izan ere, badira bi urte laguntza hau eskaintzen duela, "azken urteotako eraikuntza burbuilaren ondorioz, bereziki kaltetua izan den kolektiboa gazteena delako, euren autonomia maila eta garapena kolpatuz".

Hori horrela, azken diru-laguntza deialdian 23 eskaera jaso dira -11 emakumezkoak eta 12 gizonezkoak-. Eskatzaileen %74

**UDAL GOBERNUAK
%100EKO
ERREKARGUA
APLIKATZEN DIE
ETXEBIZITZA HUTSEI**

25 eta 30 urte bitartekoak izan dira. "Hasiera besterik ez da. Bi urte bakarrik goaz eta jendea poliki-poliki badoa konturatzen diru-laguntza hau badagoela. Beraz, etorkizunean bere fruituak emango dituela uste dugu", azaldu du Biainek. "Gure ustez fiskalitatea garrantzitsua da eta mantendu egin behar da, baina horrez gain, neurri aktiboak jartzea ere inportantea da eta horretan ari gara", gaineratu du.

Etorkizunera begira

Alkateak adierazi du "administrazio publiko gisa", udalak ezin duela ahaztu egoera soziodemografikoa aldatzen ari dela. Alde horretatik, azpimarratu du etorkizunean sortzen diren premien arabera politikak diseinatzea izango dela erronka. "Bide honetan sakontzen jarraitzeko asmoa du Udal Gobernuak eta agintaldian zehar egitasmo zehatzak jarriko ditugu abian", azpimarratu du.



NIRE USTEZ

MARINA ETXEGOIEN

Denboraren orratzak

Bitxia da. Umetan, kaleko eskela baten ondotik pasa nintekeen hura zegoenik ere ohartu gabe. Etxera heltzerakoan, gurasoen elkarrizketa hildakoaren inguruan zen eta beti ideia bera azpimarratzen zuten: hildakoa gaztea zen. Anai-arrebok gustura egiten genuen barre, hildakoak demagun 70 urte zituela esaten zutenean. Eskelak informazio iturri ikaragarria dira. Egunkaria zabaldu eta badaude hildakoen zuhaitz genealogikoa egiteko gauza direnak ere.

Gaztaroan, eskelara hurbiltzen nintzen gazteren bat bazen hildakoa, une horretan bainintzen nire etorkizunaren jabe. Gaur egun, berriz, eskela bat ikusten dudanean, ez zait axola gazte edo zaharra den, gerturatu eta normalean bistaz ezagutzen dudana norbait ikusten dut. Orduan, gurasoen elkarrizketa zahar haiek datozkit burura eta konturatzen naiz dagoeneko 70 urtekoak gazteak direla niretzat, baita 80koak ere eta bakarrik 90ekoekin ditut zalantzak, oraingo.

Oñati, Dabilen Herria marka aurkeztu du Udalak

"Herri dinamiko, bizi, irudimentsu, aktibo, anitz eta nortasun propioa da. Gardentasunean, efizientzian eta herritarren arazoekiko gertutasunean pauso nabarmena eman nahi dugu", azaldu du Udal Gobernuak. Borobil bat, dinamismoa, eta baita Oñatiren O hori ere irudikatu nahi izan du. Koloraduna, "hutsetik ez garelako abiatzen".



Irudi berria.

Euskal artzain txakurrak hezteko ikastaroa egingo dute

Euskal artzain txakurrendako heziketa-ikastaro laburra antolatu du Euskal Herriko Artzain Txakurren Elkarteak.

Euskal artzain txakurra izan eta txakurra ardi-lanerako hezi nahi duen edozeinentzat da ikastaro hau. Txakurrik gabe ere entzule gisa parte hartu ahal izango du nahi duen edonork. Oskar Murgia izango da irakaslea eta hurrengo egubakoitzean, azaroak 25, egingo da, 09:30etik 14:00etara. Doan da ikastaroa, baina aurretik eman behar da izena 656755183 telefono-zenbakira deituta edo zuzendaritzaehate@gmail.com helbidera idatzita. Hilaren 21a aurretik egin behar da izen-ematea.

Errefuxiatuendako janaria batuko dute bihar kiroldegian

Mondragon Unibertsitateko ikasle batzuk Greziako errefuxiatuendako janaria batzen ibiliko dira bihar, zapatua, Zubikoan. Zumba eta fit-bike maratoniak egingo dituzte bihar kiroldegian, eta, hori aprobetxatuz, hantxe egongo dira, 09:00etatik 13:00ak arte. Makarroiak, babarrunak, arroza, atun latak eta olioia dira jaso gura dituzten elikagaiak. Janaria Hotz Oñati elkartearen laguntzarekin bilduko dute egunean bertan eta herriko elkarte horretako kideak arduratuko dira gero janariaren kudeaketaz. Batutako elikagaiak Donostiako Zaporeak elkarteari emango dizkiote, Chios-en duten sukaldean otorduak prestatzeko.



Teresa Calo, Gurutze Beitia, Itziar Lazkano, Elena Irureta eta Loli Astoreka dira antzezleak. TTANTTAKA

'El florido pensil-neskak' antzezlana Santa Anan

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren harira antolatutako ekitaldietako bat izango da emanaldi hau, datorren egubakoitzean; frankismo garaian errepresioa jasan zuten emakumezko ikasleen hainbat istorio islatzen dira ikuskizun honetan.

Eneko Azurmendi OÑATI

Azaroaren 25a, egubakoitza, Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna da, eta, hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dira. Horietako bat da *El florido pensil-neskak* izeneko antzezlana, egubakoitzean bertan 22:30ean Santa Ana antzokian eskainiko dena, Ttanttaka taldearen esku-tik. Obra hau 1970eko hamarkadan girotuta dago, zeinetan emakumeak diren zenbait ikasleek jasaten duten errepresioa azaleratzen den. "Emakumeok garai hartan izan genuen heziketa da lanaren ardatza. Jakina da gizonezkoek eta emakumeek ez zutela heziketa bera izaten. Umeak mundura ekartzeko besterik ez ginen emakumeok garai hartan", adierazi du Loli Astoreka antzeleatetako batek.

Umore bitartez

Gaineratu du umore bitartez azaldu daitekeela "katarsi" hori, barre egitea "osasungarria" dela nabarmenduta. "Istoria oinorena

erabiliz kontatzen dugu eta garai hartan abesten genituen hainbat kantu abesten ditugu, gainera", zehaztu du.

Antzezleek paperak aldatzen dituzte ikuskizunean zehar. "Ni, umea izateaz gain, Doña Jimena irakaslea ere banaiz, Heziketa Fisikoko irakaslea", adierazi du Astorekak.

Berdintasunera bidean

Antzezlana honen bitartez, iragana ez ahaztea eta jendea kontzientziatu gura da. "Garai batean nola bizi izan ginen kontuan hartu eta, aurrera begira, berdintasunerantzko bidea hartu behar dugu", azpimarratu du Astorekak.

EMANALDIRAKO SARRERAK SALGAI DAUDE JADA, 10 EURO TAN, 'BIBE.ME' WEBGUNEAN

Animatzeko deia

Herritarrak antzezlana ikustera gerturatzeko animatu gura izan ditu antzezleak. "Ordu eta erdiko obra da eta ikusleari oso arin pasatzen zaio denbora hori. Hausnarketarako obra izateaz gain, barruak husteko aukera ezin hobea da", dio. Gaineratu du ez direla damutuko. "Orain arte harrera oso ona izan dugu eta Oñatin ere hala izango dela seguru gaude", bukatu du.

Beste ekitaldi batzuk

Egunaren bueltan antolatutako egitarau beraren barruan, gaur, egubakoitza, *Oñatin indarkeria-ren diagnostikoa* hitzaldia izango da, 18:30ean, Euskaldunberri aretoan -Bidebarrieta 18-. *Azaroaren 23an, eguaztena, Qué puedo hacer yo para terminar con las violencias machistas* hitzaldia, leku berean, Maitena Monroyren eskutik. Azkenik, azaroaren 26an, eguena, mural margoketa izango da, 10:30ean, Gorritxitxiko tunelean.

Jardunaldiak dituzte gaztetxean, eredia aztertu eta hobetzeko

"Gizarte kapitalistaren ondorio txikitzaileekin ados ez eta, beronen eraldaketarekin, zer den desadostasuna eragiten diguna eta zeintzuk diren aldatu nahi genituzkeen puntuak zehazteko" antolatu dituzte jardunaldiak gaztetxean. Hilaren 22tik 26ra izango dira. Astelehenean, esaterako, Igor Meltxor idazlearen *Kazetari kanaia* proiektua aurkeztuko dute, 19:00etan. "Jardunaldiok antolatzearen helburua gai sozial eta politikoen inguruko formazio teorikoa eskaintzea", diote gaztetxeko kideek.

Gaur, egubakoitza, Mikel Uraken eta Montauk entzuteko aukera egongo da, 22:00etan. Etzi, 19:30ean, ipuin musikatu.

Familiei zuzendutako opera ikuskizuna dago etzi Santa Anan

Mozart-en *Txirula magikoa* izeneko opera ikuskizuna egingo du Opera Divertimento taldeak domekan Santa Ana aretoan, 17:00etan. Musikegunak egitasmoaren barruan antolatutako emanaldia da eta familiei zuzenduta dago.

Duela hamasei urte sortu zen talde hau, lirikaren mundu itxuraz zail eta ulertezina ikus-entzule guztiengana hurbiltzeko, haurrei eta familiei, bereziki. Euskaraz ez ezik, gaztelaraz eta kataluniarrez ere egiten dute ikuskizun hau.

Andoni Barañano da tenorea eta Miguel Ribagorda eszena zuzendaria. Sarrerak *bibe.me* atarian ere eros daitezke.



Iazko denboraldiko pilotariak. ALOÑA MENDI

Pilota sailak bazkide kanpaina jarri du martxan, lehenengoz

Geroz eta neska-mutiko gehiago daude taldean eta gastuei aurre egiteko modu egokia dela ikusi dute

E.A. OÑATI

Azkenaldian hazten ari da Aloña Mendiko pilota saila. Geroz eta neska-mutiko gehiago ari dira izena ematen eta horrek dakarren gastua ere handiagoa da.

"Gastu horiei aurre egiteko asmotan", bazkide kanpaina bat jarri du abian pilota sailak, Josu Osa bertako kidearen esanetan.

Urteen 20 euro ordainduta, txartel bat jasoko du bazkide bakoitzak. Txartel horrek hainbat zozketatan parte hartzeko eta sari batzuk irabazi ahal izateko aukera emango dio bazkideari.

Bazkide izan nahi duenak saileko batzordeko kideren batekin harremanetan jarrita edota pilota eskolaren bitartez egin ahal izango du txartelaren tramitazioa.

Aurtengo denboraldian 70 pilotari inguru izango dira.

Herritar guztiendako

Hasieran pilota saileko gurasoentzako bazen ere, herritar guztiak izango dute aukera bazkide izateko. "Herritar eta pilotazale guztiak zuzendutako kanpaina da hau, ondo etorriko zaigu laguntza", dio Osak.

Xabier Urzelai OÑATI

Martitzenean, Mendi Hamabostaldiaren barruan, Santa Ana aretoa goraino bete zen Alex Txikonen berbaldia entzuteko. Bazen motiborik; bizkaitarrak berez arreza pizten du mendizaleen artean, baina oraingoan mami handiko espedizio bat zeukan kontatzeko; otsailean –neguko denboraldian– Nanga Parbat (8.126 metro) igo zuen Ali Sadpara eta Simone Moro mendizaleekin batera, ordura arte inork eginda ez zuena [Tamara Lunger metro gutxira geratu zen]. Bizkaitarrak, gainera, ez zuen igoera horrek sortu duen polemika alboratu, hainbat mendizalek zalantzan jarri dutelako tontorra iritsi izana: "Mendian eta mendizaleen artean beste jarrera bat izan beharko genuke; gauzak suntsitzea baino gehiago, eraikitzea gustatzen zait niri, baina ikasi dut polemika horietatik urruntzen".

Beste behin Oñatin, eta aretoa beteta.

Oso gustura egoten naiz hemen, etxean moduan sentitzen naizelako. Bizkaitarra naiz, baina sarritan esaten dut txantxiak egin naizela apur bat, lagunak ditut hemen eta sarritan etortzen naiz, besteak beste, Araotz aldera eskalatzera. Plazera izan da hemen jardutea.

2016ko otsailaren 26a ez duzu berehalakoan ahaztuko, zure kirol ibilbidean lorpen garrantzitsu bilakatu da.

Ez pentsa, azken urteotan tontor asko egin ditugu, eta Nanga Parbatekoa baliteke berezia izatea, baina, esaterako, ez da iaz egindako ahalegina baino bereziagoa. Tontorra zapaltzea baino gehiago, espedizioan bizi izandako momentu bereziak gordezten ditut niretako, horiek dira garrantzitsuak.

Iaz Nanga Parbateko gailurretik metro batzuetara geratu zineten. Aurten, ostera, lortu duzue. Ze marra fina den porrotaren eta arrakastaren artekoa, baldin eta arrakasta tontorra egitera mugatzen bada.

Bai, baina guk beste metro batekin neurtzen dugu zer den porrota eta zer arrakasta [Barre]. Iazko espedizioa aurtengoa bezainbeste baloratzen dut, edo gehiago. Esperientzia, han bizi izandakoa, ezagututako jendea, izandako zailtasunak zelan gainditu ditugun, edota hanka-sarzteetatik zer ikasi dugun... Horiek

"Nabaritzen duzu neguak mendian zelan jaten zaituen"

ALEX TXIKON MENDIGOIZALEA

MENDIA Otsailaren 26a nazioarteko alpinismoan historiara pasa zen, hiru mendizalek Nanga Parbat neguan igotzea lortu zutelako; Alex Txikon zen hiru lagunetako bat



Alex Txikon, eguaztenean Oñatin. X.URZELAI

guztiak baloratzen ditut nik. Urte asko daramatzagu Himalaiara joaten, eta saiatzen naiz joaten naizen bakoitzean ilusioak berritzen. Nanga Parbat, esaterako, Pakistanen dago, eta hara joaten naizen bakoitzean 2003an lehenengoz joan nintzeneko ilusioa errekuperatzen ahalegintzen naiz, txoko berri bat ezagutzen... Detaile txikiak dira espedizioak handi egiten dituztenak.

Azken bost urteotan neguan egin dituzue espedizioak. Zergatik?

Aldaketa behar nuen, erronka berriak. 2002tik 2010era Edurne Pasabanen proiektuan egon nintzen murgilduta, *Al filo de lo imposible* barruan. Oso urte opa-roak izan ziren, esperientzia handia hartu nuen eta lan ikuspegitik segurtasuna ematen zuen. Zortzi tontor egin genituen guttira, baina azkenerako sentsazioa nuen uneoro gauza berbera egiten ari nintzela. Nekatu egin nintzen, eta aldaketa behar nuen. Gogoan dut 2003 inguruan hasi nintzela neguko espedizioetan arreza jartzen. Lehenengo saiakera K2-n, Broad Peak-en gero... 2006an Shishapangma-n ahalegindu ziren, eta ondoren Maka-

"SUNTSITU BAINO GEHIAGO, ERAIKI EGIN BEHARKO GENUKE; JARRERA HORI IZATEN AHALEGINTZEN NAIZ"

lu-n... Espedizio horiek gertutik jarraitu nituen, eta harra barrura sartu zitzaidan. Eta ondoren etorri zen gure ahalegina neguko espedizio batean. Proiektu pertsonal bat zen, ez beste inorena. Erronka nire egin gura nuen, sentitu, ikusi zer den neguan 7.000 metrora egotea, eta bertan bizirik irautea.

Zuk esan duzu, ez da eskalatzeko soilik, bizirik irautea da. Neguan dena da muturrekoa.

Muturrekoa, eta erabat ezberdina. Gogoan dut lehenengoz K2 mendia ikusi nuen momentua, udan, piramide zuri bat zen, erabat zurituta, ederra. Neguan, berriz, harkaitzeko piramide bat da, beltza, orografia ezberdinarekin, baldintza ezberdinekin. Espedizioaren planifikazioa asko aldatzen da, tontorrera igotzeko erabili beharreko estrategia, erabili beharreko materiala... Eta garrantzitsuena da neguak jan egiten zaituela, zure taldekideengan ikusten duzu, eta eurek zuegan, gorputzean ze eragin izaten ari den negua. Hotza hezurretaraino sartzen da [Sentsazio termikoa 65 gradu 0 azpitik izan dute], eta pisua galtzen duzu uneoro, gorputz osoko mina etengabea da... Lehen esandako moduan, muturreko egoera da. Baina dena ez da sufrimendua eta eskarmentua. Momentu oso bereziak izaten dira, besteak beste, halako egoeran taldekideekin izaten dituzun momentu gogoangarriak.

Nanga Parbat dagoeneko igo duzue. Posible da gauza bera K2 mendian egitea? Orain arte inork ez du lortu.

Bai, lortuko dute hori ere. Baina planifikazioa behar da, aurrerontua, konpromiso handia... Seguru egon ez dela lortuko lehenengo saiakeran; izan ere, nire estatistikak ikusiz gero, lau saiakera egin ditugu tontor bakarra lortzeko, eta lauretan pasa gara 7.000 metroko langatik. **Zuen borroka, baina, ez da metro horien kontra bakarrik. Lehenagotik hasten da borroka, babesleak bilatzen hasten zarenetik.** Erabat zoraturta nabil egunotan. Andaluziatik itzuli ginen atzo, egun batzuk hemen egin eta Kataluniara noa, segituan Poloniara joateko... Gaur oholtaza gainean egotea tokatu zait, baina beti ez da horrela. Espedizio bat prestatzeko sekulako lan neketsua dago atzean.

"Esperientzia, taldean ez da beste ezer aldatu"

ESKUBALOIA Ligako zortzigarren jardunaldian egin du salto Euskadiko Txapelketako lehenengo postura Izarraitz Muñoz Aloña Mendik. Iaz koska bat falta izan zitzaizen onenekin lehiazteko eta aurten erreferente bilakatu dira

Xabier Urzelai OÑATI

Martitzena, 20:30ak jotzear eta Izarraitz Muñoz taldeko jokalaria koadrila Zubikoako kantxa urdinean entrenatzen hasteko gertu. Hamazazpi lagun, hamazazpi, martitzen burusoil baten Eskolapiosen kontrako partidua prestatzeko gertu. Giro ona antzematen da, eta lider egoteak eragina du baita aste barruan ere. Andoni Bernalek esaten duen moduan, *Zubikoa efektua*-ren atzean -harmailak jendez betetzen dira 15 egunero- garai-penen %50 badago, taldeko giro ona beste 10 puntu dira.

Dinamika ona aprobetxatzen

Bernalek garbi du dinamika positiboan egoteak asko laguntzen duela: "Hainbat partidua izan ditugu malda gora jarri zaizkigunak. Iaz galdu egingo genituen horiek, eta aurten irabazi egiten ditugu. Hori da urtebete gehiagoko esperientziak ematen duena, eta dinamika



Jon Irizar, Bernalen begiradapean, jaurtiketa egiteko gertu. IMANOL SORIANO

positiboan egoteak laguntzen du halako partiduetan ere etekina lortzen".

Taldeko beteranoetako batetik, gazteenetako batera, Ander Galdos: "Esperientzia duten jokariengandik asko ikasten dugu,

gazteondako ederra da etxean bertan halako taldea izatea". Liga, baina, luzea da: "Lehenengo fasean baino ez gaude. Helburuak mailari eustea izaten jarraitzen du, baina goian ba gaude, askoz hobe".

"Entrenamenduetan lagun asko batzen gara; oso lagungarria da hori"

AITOR ARANBURU ENTRENATZAILEA

Zortzi jardunalditan partidua bakarra galdu dute, eta dagoeneko jokatu dute kategoriako faboritoen kontra; laztik hona beste pauso bat eman du talde oñatiarrak. Aste barruan gertu-gertutik jarraitu du GOIENAK txantxikuen entrenamendu saio bat.

Espero zenuen Gabonen aurretik horren aurrean egotea?

Akaso, lider izatea ez, baina aurrealdean ibiltzea bai.

Iaz Basauri eta Ford Mugarri Arrasate gehiago izan ziren Zubikoan. Aurten ez.



GOIENA


Iaz talde horiek koska bat gorago zeuden, baina aurten etxean jokoa egon diren lau puntuetatik bakarra eraman dute.

Zer gertatu da, bada, iaztik hona?

Taldeak urtebete gehiagoko esperientzia daukela, askoz ere gehiago ez. Talde ona dugu, baina oso gaztea. Eta talde gazte batean urtebeteko esperientzia igarri egiten da. **Zer dauka talde honek?** Ikusten duzun moduan jende asko etortzen dela entrenatzera, eta akaso, hori da aurten aldatu den beste gauzetako bat. Horrela entrenamendu saio politak egin ditzakegu, eta hori igarri egiten da.

Asteburuan Eskolapios taldearen bisita izango duzue, sailkapenaren erditik atzera dagoen taldea.

Hasiera batean, irabazteko partidua da, iazko biak ondo irabazi genituen, baina talde indartsuen kontra ezustekoak emateko gauza izan dira; hortaz...



Eneko Lizarralde. MURIASTALDEA.COM



Julen Irizar. MURIASTALDEA.COM

ZIKLISMOA Julen Irizar profesioaletara, Murias taldearekin

Jon Odriozola oñatiarrak zuzentzen duen Euskadi Basque Country Murias taldeak hamalau ziklista izango ditu 2017an. Eta,

aurten Ampon ibili den Julen Irizar bergararra da fitxaketetako bat. Irizarrekin batera Eneko Lizarralde bergararrak ere taldean jarraituko du, eta, kontinental mailan beste urtebete egin ostean, taldeak profesional kontinental mailara egingo du salto.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

Anaitasuna-Mondra

Zapatua. 16:30. Txerloia.

Real Union-UDA

Domeka. 16:00. Irun.

Hondarribia-Aloña M.

Zapatua. 15:30. Ondartza.

E. PREFERENTEA

Mondra-Getariako

Zapatua. 16:00. Mojategi.

Aretxabaleta-Zestoa

Domekan. 16:30. Ibarra.

Bergara-Soraluze

Zapatua. 15:30. Agorrosin.

EMAKUMEZKOAK

Zumaia-Bergara

Zapatua. 16:30. Zumaia.

Arizmendi-Mondra

Zapatua. 11:30. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Gora Bilbao-Aretx. UDA

Zapatua. 20:30. Bilbao.

Eskoriatza-Scalibur

Domeka. 18:00. M. Muñoz

GIPUZKOAKO TXAP.

Mondrate-lurre Tab.

Gaur. 22:30. Iturripe.

SASKIBALOIA

EBA

Cantabria Estela-MU

Zapatua. 17:30. Santand.

EUSKADIKO BIG. MAI.

Arri BKL-Natra Oñati

Zapatua. 18:00. Beasain.

SENIORRAK LEHEN MAI.

Take Orbela-MU

Zapatua. 16:00. Usaba.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Izarraitz M.-Eskolapios

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Ford Muga.-Txikipolit

Zapatua. 18:00. Iturripe.

EUSKADIK. T. NESKAK

Jarri.-Iturritxo Aloña

Zapatua. 19:30. Portuga.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ereintza-Soraluce BKE

Zapatua. 19:15. Errenteri.

PILOTA

Oñatin

Egubakoitza, 18:30ean

hasita bost partidua.

Bergaran

Egubakoitza, 19:15ean

hasita bost partidua.

ERRUGBIA

Kanpanzar-Urbealde

Atzeratu egin dute.

FUTBOLA Bergarak Soraluze hartuko du Agorrosinen

Ohorezko erregional mailan, Mondrak, Aloña Mendik eta UDAn kanpoan jokatuko dute. Aretxabaletarrak bigarren postuari eusteko Real Unionen ze-laira puntu bila joango dira (domeka, 16:00, Irun), eta interesgarria izango da Anaitasunaren eta Mondraren arteko partidua (zapatua, 16:30, Txerloia), sailkapenean bi talde ho-

riek hirugarren eta laugarren daude eta. Aloña Mendi, azkenik, Hondarribian (zapatua, 15:30, Ondartza) ahaleginduko da atzeko postuetatik urrutzen lagunduko dioten puntuak batzen, kostaldekoak ere ez dabilta-eta oso ondo.

Erregional preferentean, berriz, hirugarren dagoen Bergarak Soraluze hartuko du zapatuan Agorrosinen (15:30). Eta ordu berean, erregionalen, Antzuolak Unben jokatuko du, Urkiren kontra.



Eguaztenean Plateruena kafe-antzekian egindako Durangoko Azokako 51. edizioaren aurkezpena. AMAIA TXINTXURRETA

Durangoko Azokak 349 nobedade izango ditu

51. edizioa abenduaren 2tik 6ra bitartean egingo da; 28 urtetan egin den goiztiarrena da. Nobedadez gain, 200 ekintza kultural baino gehiago eta 264 erakustoki egongo dira euskal kulturaz gozatzeko. Aurtengo leloa *Bizitzekoa DA!* izango da

Ibon Carmona DURANGO

Gero eta gutxiago falta da Durango euskal kulturaren bilgune bihurtzeko. Aurtengo azoka inoiz baino lehen hasi eta bukatuko da, eta eguazten goizean, bizitasunez betea aurkeztu zen; izan ere, 349 produktu berri, 274 stand eta gune ezberdinetan egingo diren 200 ekintza kultural baino gehiago izango ditu. Guztira, zortzi gune egongo dira 700 metroren barruan, eta bost minutuko distantzian kontzentratuta.

Dena prest

Gerediaga elkarteko lehendakari Nerea Mujikak egindako aurkezpen prentsaurrekoan azaldu zuenez, dena prest dago jada aste bi barru Durango kultur hiriburu bihurtzeko: "Zuek etorri, guk prest izango dugu dena. Erakustokiak kultur produktuz gainezka izango ditugu, dozenaka talde arituko dira taula gainean, hamarnaka proiektu digital, ikus-entzunezko pieza eta antzezlan ezagutzeko aukera izango dugu".

Zortzi gune

Azken urteetan bezala, Landako Gunetik harago, azokak gune ezberdinak izango ditu. Horietako bat Areto Nagusia da, eta bertako programazioa, esaterako, azokako partaideen zabalakunde lanen aurkezpenek eta Gogoetaren Plazako solasaldiek eta mahai-inguruek osatuko dute.

Ahotsenea guneari dagokionez, obrak direla-eta karpa Landako Gunearen ondoan kokatuko da. Bertan, 70 musikarik eta musika-taldek euren lanak kontzertu formatuan aurkeztuko dituzte, eta solasaldi gunean, 50 sortzailek baino gehiagok saio ezberdinetan hartuko dute parte. Plateruena,

EUSKAL KULTURAREN ALDEKO "INURRI LANA" EGIN DUTENEK JASOKO DUTE ARGIZAIOLA SARIA

berriz, Willis Drummond taldeak irekiko du kontzertu egitaraua, eta Zea Mays, Hesian, Skakeitan eta Bide Ertzean taldeek jarraituko diote. Gune horiez gain, Irudienean, Kabi@n, Saguanbaran eta Szenatokian ere programazio anitzia izango da egun guztietan zehar, eta hori guztia Azoka Telebistaren bitartez jarraitu ahal izango da edozein tokitatik.

Argizaiola saria

Nereak Mujikak Argizaiola saria euskararen eta euskal kulturaren alde lan egin duten "inurriek" jasoko dutela azaldu du.

Honako hauek jasoko dute saria: Justo Alberdi bizkaitarrak, Jaime Albillos gipuzkoarrak, Mari Karmen Belaza nafarrak, Patxika Erramuzpe ipar euskal herritarrak, Kepa Mendia arabarrak, eta diasporaren izenean, Jose Ramon Zengoitabengoa zaldibartarrak.

'Emakume musikarien solasaldia' mahai ingurua bihar

Saioa Gaztetxean egingo da 19:00etan hasita. Musika estilo ezberdinetako hiru musikarik hartuko dute parte

I.C ARRASATE

Napoka Iria taldeko Miren Narbaiza, Gose taldeko Ines Osinaga eta *La Chula Potra* bezala ezagutzera ematen den Julieta Itoiz rap-kantaria izango dira mahai inguruan hitz egingo duten musikariak. Dinamizatzaile lanetan, berriz, Leire Lopez musika kritikaria arituko da.

Emakume horiek beraien bizipenak kontatuko dituzte, musika eszenan daukaten paperaren, egin duten ibilbidearen eta daukaten erreferenteen gaineko hausnarketa eginda.

Emakume Txokoko dinamizatzaile Esther Lizarralderen esanetan, musika estilo ezberdinetako emakumeak ekartzen saiatu dira.

Horrez gain, Merinok mahai inguruaren ideia Emakume Txokoko Jabetza eskolatik atera zela adierazi du: "Eskola horietan, hainbat gai ezberdin lantzen ditugu. Eztabaida saio batean, zenbait emakume musikarik sexismo egoera ezberdinen berri eman zuten, aldi berean, bihar egingo denaren antzeko hitzaldi bat proposatuz".



Aurretik egindako emanaldietako bat. EVA ZUBERORENA

Emanaldi piktoriko musikatua izango da Gandiaga Topagunean

Patxi Zubizarretaren *Laranja bat zaborrean* liburua oinarri izanik, diziplina ezberdinak uztartuko dira saioan

I.C OÑATI

Emanaldia zapatuan izango da, 18:00etan hasita. Zubizarretaz gain, Felipe Barandiaran esatariak, Mintxo Cemillan marrazkilaria eta Pello Ramirez biolontxelistak hartuko dute parte.

Liburuan, munduko herri zikin eta pobre batean gertatutako istorioa kontatzen da. Idazlearen esanetan, liburua aitzakia bat da "zaborretara botatako" hainbat istorio berreskuratze, eta, aldi berean, bestearengana-ko errespetuan sinisteko.

"Barandiaranek liburuan jasotzen den Joseren istorio bi-

blikoaren pasarte batzuk errezitatuko ditu, baita niretzat ederrak diren idazle arabiar batzuen hainbat testu", adierazi du Zubizarretak. Errezitaldian zehar etenak egongo dira, eta horiek Pello Ramirez biolontxeloz eta Mintxo Cemillanen marrazketa prozesuaz gozatzeko balioko dute.

Emanaldia zapatuan izango da, 18:00etan hasita. Saioa euskara hutsean egingo den arren, Zubizarretak euskara ez dakitenei ere bertaratzeko dei egiten die; izan ere, "saioa ez da diziplina bakarrera mugatzen".

Euskaraz ekoizteagatik, Abbadia aitortzen saria

Gipuzkoako Foru Aldundiak euskararen alorrean egindako lanagatik banatzen du urtero Abbadia saria; eta aurtengoa Moriarti Produzioak zinema ekoizleak jasoko du abenduaren 1ean. Aitor Arregi zinegile oñatiarra da ekoiztetxeko sei kideetako bat

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Arantxa Urretabizkaiak, Maite Artolak, Iban Arantzabalek, Jone Miren Hernandezek eta Kike Amonarriek osatutako epaimahaiak bide ezberdinetatik proposatutako hautagaiak aztertu ondoren, aho batez proposatu zion Aldundiari 2016ko Abbadia saria ematea Moriarti Produzioak zinema ekoizleari; eta Aldundiak ontzat eman zuen proposamena. "Aitortu nahi izan da ikus-entzunezko esparruan euskarari ekarpen handia eta jarraitua egin izana", azaldu du Mikel Irizarrek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariak, eta zera gaineratu du: "Pozik hartu genuen izendapena; izan ere, Foru Gobernu honek badu euskarazko sorkuntza sustatzeko, Etorkizuna Eraikiz ekimena; eta Moriarti etxeko taldea etengabe ari da erakusten, euskaraz eta baliabide mugatuekin egin daitezkeela ikus-entzunezko produktu duinak eta lehiakorak". Moriartiko Aitor Arregi dio ilusioz eta arduraz hartuko dutela inondik inora espero ez zuten aitortzen saria. "Sari hori ez zen gure parametroetan sartzen. Euskaingintzan jarduten duten profesionalak ziren-eta proposatutako izen gehienak.



Mikel Irizar eta Imanol Lasa, martitzenean, sariaren berri ematen. G.F.A.

Gure hizkuntzan lan egiten duen ekoiztetxe bat izanik, umiltasunez eta eskerronez hartuko dugu".

Egindako lanak eta kideak

Jon Garañok, Xabier Berzosak, Aitor Arregik, Jose Mari Goenagak, Asier Atxak eta Jorge Gil Munarriek osatzen dute Moriartiko lantaldea. *Loreak* filma da produkziarik ezagunena, baina hainbat dira egin dituztenak: askotariko film laburrez gain, *80 egunear* film luzea eta muntatzen ari diren *Aundiya* lan luzea.

Saria, izaskun Alvarezen artelana Gipuzkoako artista berri eta nabarmentzen ari den baten artelana izaten da saria, Irizarren esanetan: "Izaskun Alvarez oiartzuarrak lana propio egingo du saritua nor den jakinda".

Sari banaketa abenduaren lehen egina dute Aldundiaren jauregian. "Giro goxoan egindako protokolozko ekitaldi polita izango dela aurreratu digute. Moriartiri buruzko bideo bat eskainiko dute eta hitzalditxo bat egingo dugu ondoren", azaldu du Aitor Arregi zinegileak.

batera. Ondoren, Arkaitz Mineiren biolinak gehitu dizkiote.

Elkar argitaletxearen esanetan, "discoak nortasun sendoa erakusten du". Doinu guztiak eta hitz gehienak Ordorikarenak dira oraingoan ere, baina Sarrionandiarendako lekua eginda.

Gaur, egubakoitza, Ermuko antzokian izango da. Era berean, datorren egubakoitzeko *Puntua* aldizkarian Fermin Etxegoien kazetariak –eta musikariaren lagunak– egin dion elkarrizketa irakurtzeko aukera izango da.

Kalean da Ruper Ordorikaren azken lana: 'Guria ostatuan'

"Energia ahalmen handiko" hamaika kantu batu ditu oñatiarrak, martitzenean aurkeztu zuen bilduman

A. A. OÑATI

Azkeneko lanak bezala –*Haizea Garizumakoa* (2009), *Hodeien Azpian* (2011) eta *Lurrean Etxanda* (2014)–, eskarmentu handiko New Yorkeko jazz musikariarekin grabatu du Ordorikak: Tony

Scherr (kontrabaxua eta gitarra elektrikoak), Kelly Wollesen (bateria, bibrafonoa eta perkusioak) eta Jamie Saft (pianoa, hammond eta teklatuak). Grabatzeko modua ere aurrekoaren bidetik joan da: zuzenean eta denak

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko azaroko zozketa!



Tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



Umeentzako jokoa

Perretxiko zaindaria

Parte hartzeko sariaren izena: Perretxiko zaindaria



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketak honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.

Eskubidea izango duzu datuontan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

LARRINETXE JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Izaskun Murgia elkarte lirikoari esker

